

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Bera*



Aurkibidea

# Udalerria: Bera

## Sarrera



Nafarroako ipar-ekialdean dago Bera, Bidasoa ibaiaren ertzean, Lapurdi eta Gipuzkoarekin duen mugan. Arantza, Etxalar, Igantzi eta Lesakarekin batera, Bortzirietako herria da. Iparraldetik, Biriatu, Azkaine eta Urruñak mugatzen dute; ekialdetik, Sarak; hegoaldetik, Etxalarrek; eta mendebaldetik, Irun eta Lesakak. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAKo (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 3.691
- **Euskaldunak:** %72,79

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **26**
- Zintak: **34**
- Pasarteak: **855**
- Transkribatutakoak: **31**
- Audioak: **30**
- Bideoak: **825**

## Proiektuak

- Bera eta Lesakako Ondarea, Jon Abril
- Bortzirietako ahozko ondarea
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990
- Gazte gara gazte
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

## Hizlariak



**Pakita Ado Perugorria** (1917-2010)

Beran sortu zen, Mendiondon. Ama Berakoa zuen eta aita Bidartekoa.

## **Esteban Alzuguren**

Ez dugu daturik.



**Itxaro Aranibar Eltzaurdia** (1945)

## **Juanito Burgete Irazoki** (1929-2020)



Berako Bilkorreena etxean jaioa. Hiru senidetan bigarrena. Mendian lanean aritutakoa da Juanito; besteak beste, Iratin, Frantzian eta Kanadan. Lantegian ere aritu izan da lanean; Alemanian eta Beran bertan.

## **Patxi Castillo Graziarena** (1992)



Beratarra da Patxi. "Administrarritza eta finantzak" goi mailako zikloa egin du eta aisian hainbat jarduerari lotuta ibili izan da. Berako dantza taldeko dantzari (bost urte zituela hasi zen ikasten), hamasei urte bete zituenetik hurrei irakasten ibili da. Bortzirietako bertso eskolako partaide ere bada. Maialen Chantre Irazokirekin batera elkarrizketatu genuen, eta euren aisialdiari eta euskara kontuei buruz aritu ziren gehienbat: hizkera informala, hitanoa, guraso eta aiton-amonen hizkeraren transmisioa, inguruko herrien hizkera ...

### **Maialen Chantre Irazoki (1991)**


Beran jaio zen Maialen, eta bertan bizi izan da beti, ingurugiro zientziei lotutako ikasketak burutu bitartean Gasteizen egin zituen hiru urteak eta Erasmus beka batekin Kolonbian egin zuen beste urte bat izan ezik. Aita Berakoa du eta Zugarramurdikoa ama. Familia guztia bi herri horietan banatua du. Anaia bat du, bi urte gazteagoa. Patxi Castillo herritarrarekin batera elkarrizketatu dugu eta aisialdian euskararekin duten harremanari buruz hitz egiten dute, gehienbat: hizkera informala, hitanoa, guraso eta aiton-amonen hizkeraren transmisioa, inguruko herrietako hizkerak ...



Ama Zugarramurdikoa izateak eragina izan du Maialenen bizitzan, eta modu batean bertakoa ere sentitzen da. Zugarramurdiko lagun eta familiakoekin mintzatzeko haien hizkera erabili ohi du, berea egina baitu, hein handi batean.

Ostalaritzan lanean aritu izan da. Beste hainbat zaletasunen artean, Berako dantza taldean ibili izan da Maialen, txikitatik. Egun, hurrei dantzan irakasten ere aritzen da.

### **Dolores Errandonea Altzuguren (1920)**




Beran sortu zen, Zigardiberean. Guraso biak Berakoak zituen.

### **Xabier Errandonea Tapia**



Xabier Errandonea, Beran jaiotako hegazkin-pilotua da. Betidanik gustatu izan zaizkio hegazkinak, motorrak eta batez ere, bidaiatzea. Bartzelonan 2 urtez egin zituen pilotu-ikasketak, Doneztebeko eta Lesakako bi irakasle tartean zirelarik. Atzerrian ibili zen lanean, eta Bartzelonara itzuli zen kargo-hegazkinen pilotu bezala hasieran, eta bidaiarien hegazkin-pilotu bezala geroago. Hegazkinen eta hegaldiei buruz hitz egiten du.

### **Juli Etxegarai Gainza (1920-2012)**



Alzate auzoko Landatxipia baserrian jaioa. Gurasoak Berakoak zituen. Sei senidetan zaharrena zen. Mojetan ibili zen eskolan, baina ez denbora askoan. Aitaxirekin Irunera joaten zen umetatik, baserriz baserri batutako arrautzak saltzera. Postuan egoten zen saltzen, eta gero denda batean ere egin zuen lana, Irunen. Izan ere, hogeiterterekin izebaren etxera joan zen bizitzera, eta Irunen egin zuen handik aurrerako bizimodua.

**Antonia Goñi Goldarazena (1920)**



Leitzan jaio zen, baina umetan Larrainzarren bizi izan zen eta batez ere Beran. Bere euskara, baina, Aralar aldekoa dela dio, gurasoak hangoak zituelako. Bederatzi senide izan ziren. Zerbitzatzen egin zuen lana oso gaztetatik; Donibane Lohizunen sei urte igaro zituen, Parisera jo zuen gero, eta duela 50 bat urte Irunera joan zen bizitzera; udan Iparraldean ibiltzen zen neskame. Ez du ohitura handirik euskaraz hitz egiteko.

**BRA-003 Hizlari ezezaguna**

**BRA-004 Hizlari ezezaguna**

Ez dugu daturik.

**BRA-031 Hizlari ezezaguna**

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko bekaren barruan Beran jasotako lekukotza anonimoak.



**Matias Irazoki Berasain (1926-2016)**

Beran sortu zen. Guraso biak ere Berakoak zituen.



**Pilar Irazoki Elgorriaga (1925-2018)**

Berako Zalain auzoko Sagasti etxean sortua eta Alkaiagako Martinetxeberri etxean hazia da Pilar. Bost seme-alaben artean bigarrena. Dendaria izandakoa da.



**Rosario Irazoki Matxikote (1927-2011)**

Beran sortu zen, Balkezenean. Guraso biak Berakoak zituen.



**Jose Maritorea Larrosa (1926-2010)**

Beran sortu zen. Ama Lesakakoa zuen eta aita Berakoa.



**Patziku Martikorena Arribillaga (1919-2016)**

Beran sortu zen, Babezin garaian. Guraso biak berakoak zituen.

**Felipe Matxikote**

Ez dugu daturik.



**Juan Matxikote Mikelperizena (1926)**

Beran sortu zen, Elarraldean. Guraso biak Berakoak zituen.

**Modesta Mikelperizena**

Berako Egurregi baserrian jaioa. Ignazio Larramendi beratarraren 'Zeinen pollita den Bera' bertsoak abesten ditu.



**Pepita Mindegia Irazoki (1929-2020)**

Lesakan sortu zen, Barrenetxean. Ama Berakoa zuen eta aita Lesakakoa. Zalain zokokoa zen eta bere burua beratartzat zuen.



**Josetxo Pagola (1942)**

Hiru senide ziren. Etxeko harategian egin du lana. Mari Carmen Iturralderekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten.



**Bixente Taberna Irazoki (1952)**

**Jose Mari Zelaieta**

**Julian Zelaieta**

# Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Euskara

### 1.1. Beratar gehienek dakite euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Castillo Graziarena, Patxi; Chantre Irazoki, Maialen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: BRA-011/010
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:14:41. **Bukatu**: 00:17:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Beratar gehienek dakite euskaraz, baina gaztelararako joera handia sumatzen dute Maialenek eta Patxik. Gaztetxo aunitz sumatzen dute euskaraz gaur egun, baina zalantzak sortzen zaizkie helduekin batera hizkuntzari eutsiko dioten edo gaztelaraz aritzeko joera gailenduko ote zaien.

#### Transkripzioa

<p>- Eta Berari buruz, zer esango zenukete hizkuntzari dagokionez? Herri euskalduna da Bera? Edo nola ikusten duzue?</p>

<p>&nbsp;- Maialen: Nik, egia erran, gaztelera dexente aditzen dut.</p>

<p>- Patxi: Nik&acute;e bai. Egia, bueno, leheno baserritan ta, bueno, leheno ta guain&acute;e bai, baserritan-ta bizi direnak haitz euskaldunak direla, bai&ntilde;o herrian bizi direnak ikusita igual zein den haien jatorria, ez? guraso aunitz igual kanpokuk dittuztela edo hori&hellip; erderara tiratzen dutela aunitz. Nahiz eta hiru eskola dauden Beran ta hirutan D ereduan ikasteko aukera dagon.</p>

<p>- M.: Euskera jakin-jakin nik uste gure generaziotan denak badakigula.</p>

<p>- P.: Bai, hori bai, hori bai.</p>

<p>- M.: Generazio helduagoetan gehientsunak ere bai.</p>

<p>- P.: Kontua gero zein&ntilde;etan ibiltzen diren erosogo ere bai.</p>

<p>- M.: Hori da.</p>

<p>- P.: Ikusten badute, ez dakit, kuadrilla batian nik zer dakit 10 pertsonatikan batek nahiago badu, nahiz eta euskeraz jakin, nahiago badu erderaz egin, pues egingo da erderaz.</p>

<p>- M.: Hori da. Eta jende aunitz, nahiz ta eskolara euskaraz jua euskaraz ikasi ta kuadrillan ttikitan-edo euskaraz aritzen zaren, azkenean, familiar egunerokotasunean gaztelaniaz aritzen bazara eta telebista, irratia, dena gaztelaniaz adituta, errextasun gehio duzu gaztelaraz eta euskara jakinta ere nik uste dut jende aunitzek erdarara jotzen dula.</p>

<p>- P.: Igual bai erosogua da, hori da. Bai.</p>

<p>- M.: Ez dakit gero ta gehio euskara edo gero ta gehio gaztelania, hori errateko, egia erran, ez dakit.</p>

<p>- P.: Nik, bueno, gure ttiki... edo ttikiago gi&ntilde;enetikan, ordun euskaraz egitten genuen ta guain ya gure adi&ntilde;eko aunitzek egitten dute erdaraz. Bai&ntilde;o, guain ere, nik, bueno, dantzako irakaslea naizen aldetikan ta hori, sumatzen dut, haurretan, beraien artin euskaraz ibiltzen direla aunitz, bai&ntilde;o ez dakit igual etorkizun batin ez diren... ez dakit. Guai&ntilde; galdetzen badiazue, errango dizuet haiek euskaraz

ingo dutela hemendikan 20 urtera ere bai, bai&ntilde;o ez dakit. Gero, nik zer dakit, nik adibidez Irunen ikasi dut azkenko urtetan eta erderaz ikasi dut, mi&ntilde;o horregatik ez dittut nere ohiturak aldatu. Haiek pues hemendik urte batzutara... ze&ntilde;ek daki. Nik esperantza dut euskeraz egitekua, e, bai&ntilde;o&hellip;</p>

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Etxean euskaraz (BRA-011/003)**

Etxean euskaraz egin izan diete beti gurasoek Maialeni eta anaiari. Gurasoek bazuten euren artean gaztelera hitz egiteko ohitura, baina seme-alabak koskortzearekin batera euskaraz egiteko joera berreskuratzen hasi dira. Osaba-izebekin nagusiki euskaraz egiten du Maialenek, baina denetariko hizkuntz harremanak ditu.

### **2. Euskararen aldeko hautu kontzientea (BRA-011/004)**

Etxeko gazteenen hizkuntza joerek etxeko hizkuntza giroan eragiten dute. Maialenek eta bere amak euskararen aldeko hautu kontzientea egiten dute egun.

### **3. Semeek euskaraz ikastea nahi zuten gurasoek (BRA-011/005)**

Patxiren aitona Santardetik etorria zelako edo, Patxiren aitak ahalegin berezia egin izan du beti semeak euskaraz ongi ikas dezan.

### **4. No le digas "papi", dile "aita" (BRA-011/006)**

Patxik "papi" esaten zion txikitan aitari, adarra jotzeko; aitonak, ordea, aitari "aita" dei ziezaion eskatzen zion Patxiri.

### **5. Auzoan euskara eta gaztelania elkarrekin bizi dira (BRA-011/007)**

Auzo berean bizi dira Patxi eta Maialen, eta euskaldun beste erdaldun bizi denez bertan, bietara egiten dute.

### **6. Industrializazioaren eragina (BRA-011/008)**

Industrializazio garaian kanpoko jendea etorri zen Berara lanera. Horrek hizkuntza aniztasuna ekarri du herrira, eta Patxik eta Maialenen kontaktzen dute nola bizi duten hori.

### **7. Euskalkia eskolan, irakaslearen arabera (BRA-011/012)**

Eskolan euskalkia jaso dute bertako irakasleengandik, Haur eta Lehen Hezkuntzan, batez ere. Behin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hasi eta gero, kanpoko irakasle gehiago joan zitzaizkien Berara, eta haiei bertako hizkeraren ezaugarri nagusiak esanarazten omen zizkieten ikasleek.

## **8. Gaur egungo haurrek euskalkiari eusten diote (BRA-011/014)**

Patxi eta Maialenen esanetan, Berako haurrak herriko hizkeran mintzatzen dira.

## **9. Esamolde zaharrak naturalki berreskuratzen (BRA-011/015)**

Eskolatik institutura igarotzerakoan beratarrak Bortzirietako gainontzeko herrietako ikasleekin elkartu ziren, eta hori onerako izan zutela iradokitzen du Maialenek. Izan ere, gainontzeko herrietako ikasleen hizkuntz joerek bultzatuta, beratarrak ere hasi baitziren euren herri-hizkerak berezkoak dituen esamoldeak eta halakoak erabiltzen.

## **10. Herri bakoitzak bere hizkuntz berezitasunak (BRA-011/016)**

Bortzirietako herritarrek askotan erabili izan dituzte tokian tokiko hizkera ohiturak umorea egiteko eta batak besteari adarra jotzeko; gazteen artean, behinik behin. Horren adibide dira, besteak beste, aranaztarren "yi-ya", beratarren "jaitsun" edo etxalartarren "soindu", "goiti" eta "beiti".

## **11. Bera, bortzirietako "herri erdalduna" (BRA-011/017)**

Bortzirietako herrien artean Bera da jendetsuena, eta ondorioz, baita erdaldun gehien biltzen duena ere.

## **12. Hizkuntza ohiturak eta itxurakeria (BRA-011/018)**

Jende aunitz lotu omen zaio gaztelerari, euskaraz jakin arren. Maialenek uste du euskararen prestigio faltagatik izan daitekeela. Patxi ados da horrekin, baina dio ez ote den gaur egun alderantziz gertatzen ari, zenbait gazteren artean, behintzat.

## **13. Tokian tokiko hizkerak mantendu eta sustatzearen alde (BRA-011/020)**

Tokian tokiko herri hizkerari eustearen alde da Maialen. Berari laguntzen dio bere jatorrizko herriarekin harreman sendoagoa izaten, eta baita amaren herria, Zugarramurdi, gertuago sentitzen, bertakoen modura solasteko gai baita ere. Patxi ados da ere, baina zailtasunak ikusten ditu euskalkia ikastetxeetan sustatzeko garaian.

## **14. Euskara batuari, testu formalei eta euskalkiari buruzko zalantzak (BRA-011/021)**

Maialenek dio zalantzak izaten dituela askotan jakiteko zein punturaino erabil dezakeen euskalkia testu formalean. Neurri edo arau horiei buruzko irakaspen gehiago jaso ez izanak tristatzen du.

## **15. Kuadrillan, gehienek, gazteleraz (BRA-011/023)**

Patxiren ustez, bera da bere lagun artean euskaraz maizen eta normaltasunez aritzen den bakarrenetakoa. Askotan "euskararen polizia" ote den sentsazioa du.

## **16. Egunerokoak agintzen du hizkuntza hautuetan (BRA-011/024)**

Maialenen ustez, euskaraz jardun edo gazteleraz egin, egunerokoarekin oso lotuta dago. Bere inguruan sumatu izan dituen kasu batzuen berri ematen digu.

## **17. Hizkuntza ohiturak aldatzea zaila da (BRA-011/025)**

Norbaitekin hizkuntza batean mintzatzera behin ohituz gero, oso zaila da harremana beste hizkuntza batera bideratzea.

## **18. Futboleko eta saskibaloiko terminologia erderaz (BRA-011/027)**

Hizkuntza jakin batean egitera behartzen ote dituen gai edo jardunik bai ote den galdetu, eta itxuraz, euskarari lotutako jardueretan ez dugu euskaraz egiteko eragozpenik (dantza, bertsoaritze...) baina kiroletako terminologia, esaterako gaztelerari lotu samarrrik dugu oraindik, gauzak aldatzen ari diren arren.

## **19. Esamoldeak erdal telebista kateetatik (BRA-011/029)**

Erdal kateetako telesailek eragin handia dute gazteengan, esamolde eta halakoei dagokienean. Beran ohikoa da "hago ixilikan" eta "asto zakila" edo "urde asto zakila" bezalakoak entzutea, lagun artean, eta iraintzeko intentzior baldin bada, beti ere.

## **20. Abizenaz deitzeko eta izenak laburtzeko joera (BRA-011/030)**

Berako gazteen artean, eta lagun artean, hurkoari abizenaz deitzeko eta izenak laburtzeko ohitura dago.

## **21. Sare sozialetan euskaraz idazteko joera (BRA-011/032)**

Sare sozialetan euskaraz idazteko joera dute, baita parez-pare edukita gazteleraz egingo luketen jendearekin ere; eskolako eragina izan daitekeela diote. Horrez gain, Patxik egiten du saiakera kontziente bat ere, eta euskara zuzena erabiltzen saiatzen da, gainera.

## **22. Erregistro aldaketak hizkeran (BRA-011/033)**

Baldin eta aurrean nor duten, hizkera moldatzen dute.

## **23. Aiton-amonei jasotako hitzak (BRA-011/034)**

Badira etxean jaso baina lagun artean erabiltzen ez dituzten hitzak.

## **24. Hitanorako joera gutxi Berako gazteen artean (BRA-011/036)**

Hitanorako joera gutxi sumatzen dute Patxik eta Maialenek Berako gazteen artean.

## **25. Hitanoa baliagarria da gaur egun (BRA-011/038)**

Eurek egiten ez duten arren, gertuko jendearekin aritzeko tratamendutzat daukate hitanoa, eta ez ote duten, diote, gaur egun eta gertuko jendearekin beti ere, hitanoa gaztelerazko esamolde eta hitzengatik ordezkatu. Hala ere,

gaur egun hika hitz egiten hasteko ez ezagutza eta helduleku falta sumatzen dituzte.

### **26. "Hikalagunaz" eta hika trebatzeko beharraz (BRA-011/039)**

Hika egiten jakitea gustatuko litzaieke, baina Patxiren ustez, garrantzitsuagoa da ingurua euskalduntzea tratamendu jakinen zabalkundeari ekitea baino. Bestalde, hika egiten ikasteko ezagutzen dituzte Beran bertan "hikalaguna" bezalako ekimenak.

### **27. Hitanoa eskolan, teorikoki bai, baina praktikarik ez (BRA-011/040)**

Eskolan hika mintzatzen irakastekotan, teoriiaz gain, ezinbesteko ikusten dute ahozko jarduna ere lantzea.

### **28. Hizkuntza bat ikasten ari denaren larruan jarrita (BRA-011/042)**

Hizkuntza bat ikasten ari denaren larruan jarrita, gauzak gaizki esateko beldurrez egiten ez duen haren jarrera ulergarri zaie Patxiri eta Maialeni. Maialenek dio sententzio eta jarrera bertsuak lituzkeela berak hika mintzatzen hasiz gero.

### **29. Beratarak eta Frantses hizkuntza (BRA-011/044)**

Ibardineko komertzio eta dendak direla eta, Beratar askok omen du frantses hizkuntzaren oinarritzko ezagutza. Hala ere turista frantsesekin erabiltzen dute, eta iparraldeko euskaldunekin, aldiz, euskara.

### **30. Frantsesez ongi mintzatzen jakin nahi (BRA-011/046)**

Maialeni gaztelaraz bezain ongi gustatuko litzaioke frantsesez mintzatzen jakitea, azken batean, Euskal Herria bere osotasunean hartuta, hiru hizkuntza nagusi ikusten baititu. Eta ez dio zentzu askorik ikusten Berako ikastetxeetan ingelesari ematea frantsesari baino garrantzia gehiago.

### **31. Iparraldeko eta hegoaldeko gazteen joerak (BRA-011/048)**

Iparraldeko gazteek joera handiagoa omen dute hegoalderako, alderantziz baino. Hizkuntzen ezagutzak izan dezake pisurik joera horietan. Berako gazte euskaldunek giro euskalduna bilatu ohi dute iparraldera mugitzerakoan. Besta giroan eta kontzertuetara joaterakoan sumatzen da hori.

### **32. Mugako komertzioa eta ostalaritza (BRA-011/050)**

Mugako komertzio eta ostalaritza zerbitzuetan lan egitea ohikoa izan da Berako hainbat herritarrentzat, eta gurasoen etxean bizi den gaztearentzat, udan lan eginda, urte osorako soldata ateratzeko modu bat.

### **33. Lastargia eta menda (BRA-012/001)**

Lastargia erabiltzen zuten gauaz ibiltzeko. Mendarekin etxea garbitu eta freskatzen zuten; kukusoak hiltzen zituela erraten zuten lehen.

### **34. Bokata (BRA-012/002)**

Arropa nola garbitzen zuten, bokata nola egiten zuten, azaltzen du. Putzuan arropa xabotzen zuten eta gero kubelan sartzen zuten, gainean zaku oihala eta hautsa paratzen zuten. Ura egosi eta gainetik botatzen zuten. Oso usain ona botatzen zuten. Gero, putzuan uretan eragin eta kanpoan hedatzen zuten. Batzuetan berdean paratzea zuten xaboiutako arropa.

### **35. Haur ttikiendako kontuak 1. Patziku eta ilargia (BRA-012/004)**

Patziku eta ilargiaren ipuina kontatzen du.

### **36. Haur ttikiendako kontuak 2. Asto zaharra mukizu (BRA-012/005)**

Asto zaharraren ipuin-kanta kontatzen (eta kantatzen) du.

### **37. Haur ttikiendako kontuak 3. Patziku eta Pello (BRA-012/007)**

Patziku eta Pello anaien ipuina kontatzen du.

### **38. Haur ttikiendako kontuak 4. Axeria eta otsoa (BRA-012/009)**

Axeria eta otsoaren ipuina kontatzen du.

### **39. Haur ttikiendako kontuak 5. Patziku eta ilargia (BRA-012/011)**

Tartaro aitona zakarraren ipuina kontatzen du.

### **40. Sorginak eta lamiak (BRA-012/012)**

Sorginak hegaka ibiltzen omen ziren, urritzekin egindako erratzen gainean. Zugarramurdi eta Bera artean zulo luze bat bazela erraten zen. Gizon bat zuloa aurkitu nahi zuen eta gau batean (ilargi betean) abiatu zen; bere bidaian zehar aurkitutakoa azaltzen du: sorgin batzuk arropa jotzen eta beste batzuk dantzan eta parrandan ari ziren, baina, bat-batean tinako batean sartu ziren denak. Sorginak eta lamiak ez dira gauza bera. Lamiak ttikiagoak omen ziren eta urrezko gauzak zituzten.

### **41. Lamiak (BRA-012/013)**

Batek kontatzen zuen ur putzu baten ondoan bi neskatxa eder ikusi zituela ilea orrazten ari zirela eta, bera ikusi zutenean, uretan sartu zirela (beraien buztanak erakutsiz). Gizon horrek zera erraten zuen: behiek edota ardiek ondokoa (plazenta) ezin zutenean bota, sasiarrosarekin inguratu behar zitzaizela lepoa.

### **42. Aranburuko gazteluko semea (BRA-012/014)**

Aranburuko gazteluko jaunak bere semea Donostiara bidali zuen hango berriak jaso nahi zituelako. Semeak Larungo maldan etxe bat eta erreka ondoan beste bat zeudela erran zionean, aitak zera erran zuen: "hurbil asko ongi bizitzeko".

### **43. Altzateko plazako gizona (BRA-012/016)**

Aitak kontatu zion Altzateko plazan gizon bat liburu handi batekin izaten zela eta "gaurko nere kapitulua, neskazarren titulua" esan ondoren, sekulako disparteak erraten hasten zela.

### **44. Emakume xelebrea (BRA-012/017)**

Baserri bateko emakume bat, zurrut egiten zuena, bere behorarekin erosketak egitera etortzen zen herrira eta, bueltan, mundu guztiari bertsoak paratzen zizkion. Zerbait galdetzen ziotenean, erantzuna errimatzen zuen.

### **45. Gaizki-ulertua. Garaiar eta Sigasti (BRA-012/018)**

Gaizki-ulertua: Gayarre eta Sarasate beharreen, Garaiar eta Sigasti ulertu zuen batek.

### **46. Animaliak eta belarrak solasten ziren (BRA-012/019)**

Lehen animaliak eta belarrak solasten ziren.

### **47. Ilekuetako etxeen izengoitien kanta (BRA-012/021)**

Ilekuetako etxeen izenak eta izengoitiak aipatzen ditu; lehengo kanta baten letra zen.

### **48. Behien "txoriendako" erremedioa (BRA-012/022)**

Behiek "txoriak" (gongoiloak) zituztenean, sendatzailea bederatzi egunez baraurikan joaten zen eta, eskuetan gongoiloak hartuta, kredoa azpitik goiti errezatzen zuen.

### **49. Ardiek hanka hausten zutenean (BRA-012/024)**

Ardiek hanka hausten zutenean, kedarra xehe-xehe egin eta arrautzaren zuringoarekin pasta bat egiten zen. Hankaren bi aldeetan oholtxo bana paratzen ziren eta trapu batekin ongi biltzen zen dena; gero pasta hori paratzen zen eta gogor-gogorra gelditzen zen.

### **50. Azienden kalitxak kentzeko (BRA-012/025)**

Azienden kalitxak kentzeko erremedioa azaltzen du.

### **51. Jendearen kalitxak kentzeko (BRA-012/027)**

Jendearen kalitxak kentzeko, haltzen azala kendu eta harekin harraskatu behar zela erraten zuen ijito batek, baita nonbaiten bi sos bota behar zirela ere.

### **52. "Erre-botika" (BRA-012/028)**

Erre-botika nola egiten zen azaltzen du. Asun azala olioan frijitu eta argizariarekin nahasten zen; gero trapu bat horretan sartu eta paperean biltzen zuten gordetzeko.

### **53. Xaboia egiten zuten (BRA-012/029)**

Xaboia nola egiten zuten azaltzen du. Seboa eta sosa kaustikarekin egiten zuten; erramua eta kolonia ere botatzen zuten.

#### **54. Defuntuentzako ofrendak (BRA-012/030)**

Familiako norbait hiltzen zelarrik, elizan egunero argizaria eta kandela paratzen ziren eta olata ere botatzen zen (defuntu bat zuenak, bat eta bi zituenak, bi).

#### **55. Asmakizunak (BRA-012/031)**

Asmakizunak kontatzen ditu. Adibidez: "buru zabala, barrena goxoa, jateko kentzen zaio buztan osoa".

#### **56. Zotz egiteko 1. Jaun Pier handia (BRA-012/033)**

Hurrek zotz egiteko erabiltzen zuten: "Jaun Pier handia..."

#### **57. Haur-kanta. Kukurruku (BRA-012/035)**

Haur-kanta eta jokoa: "Kukurruku, zer diozu?..."

#### **58. Haur-kanta. Trula Joxepe (BRA-012/037)**

Haur-kanta: "Trula Joxepe ari zen astoari ura ematen..."

#### **59. Haur-kanta. Josten, josten presa dut (BRA-012/039)**

Haur-kanta: "Josten, josten presa dut..."

#### **60. Haur-kanta. Arre, arre molinero (BRA-012/041)**

Haur-kanta: "Arre, arre molinero, astoaren gainean caballero..."

#### **61. Haur-kanta. Anda randa, zubi landa (BRA-012/043)**

Haur-kanta: "Anda randa, zubi landa, lera txiko zapatiko..."

#### **62. Haur-kanta. Behin bazen jaun bat (BRA-012/044)**

Haur-kanta: "Behin bazen jaun bat, bizar-bizar jaun bat..."

#### **63. Haur-kanta. Kia, kia mendirat (BRA-012/045)**

Haur-kanta: "Kia, kia mendirat, oiloa oilategirat..."

#### **64. Haur-kanta. Din dan maleran (BRA-012/046)**

Haur-kanta: "Din dan maleran, balerako eliza..."

#### **65. Haur-kanta. Itsasoan ari dira arbolak plantatzen (BRA-012/048)**

Haur-kanta: "Itsasoan ari dira arbolak plantatzen, itsuak ikusi du etxe bat erretzen..."

#### **66. Haur-kanta. Irri ta negar (BRA-012/050)**

Haur-kanta: "Irri ta negar, bihar ezkondu behar..."

#### **67. Haur-kanta. Joxe Ramon mendi gainean garela (BRA-012/051)**

Haur-kanta: "Joxe Ramon, mendi gainean garela, beti-beti mozkortzen da, beti..."

### **68. Haur-kanta. Elizara joan eta belauniko jarri (BRA-012/053)**

Haur-kanta: "Elizara joan eta belauniko jarri, lehenbiziko otoitza gure maiteari..."

### **69. Haur-kanta. Bonbilun, bonbilunete (BRA-012/055)**

Haur-kanta: "Bonbilun, bonbilunete, barrilan aguardiente, bonbilun bat, bonbilun bi, bonbilun putzurat erori..."

### **70. Ijitoen bataioa (BRA-012/056)**

Ijitoen bataioa. Azpil handi batean ura paratu eta haurra "sarraterian" ibili, eta erran: jito pipia, jito malakasta, uretan pilisti palasta

### **71. Haur-kanta. Hiru txito izan eta lau galdu (BRA-012/058)**

Haur-kanta: "Hiru txito izan eta lau galdu, gure txitoaren ama zer jan du

### **72. Zotz egiteko 2. Un fraile marmote (BRA-012/060)**

Hurrek zotz egiteko erabiltzen zuten: "Un fraile marmote..."

### **73. Zotz egiteko 3. Zirristi mirristi (BRA-012/062)**

Hurrek zotz egiteko erabiltzen zuten: "Zirristi mirristi gerrena plau, olio zopa kikirri salda..."

### **74. Animaliek elkarrerri nola adierazten diote (BRA-012/064)**

Animaliek elkarrerri nola adierazten diote: zezenak orruka, behiek morruka, abereek irrintzika, zerriek kurrinkaka, zakurrek eta axeriek sainaka, katuek marrauka, oilarrek kukurruka, oiluek karakaka, txitoek piopio, antzarek karranka, otsoek aurika, sugeek ziztoka, apuek kantari eta katuek marrauka.

### **75. Erran zaharrak (BRA-012/066)**

Erran zaharrak. Ogiak (gariak) erran zuena: "Ttiki banintzen eta handi banintzen, maizatzean burutu nintzen". Elurra hasten zenean, hurrek kantatzen zutena: "Elurra, elurra, ez diguk hire beldurra, etxean badiguk hartuta egurra". Euriari, berriz: "Euria, euria, aingeru buru zuria, oihanean zer da, aiton bizar zuria".

### **76. Ezkilen errateak (BRA-012/068)**

Ezkilen errateak: "zerria landan, zerria landan" eta "ateri, ateri, ateri"

### **77. Santu guztien eguna (BRA-012/070)**

Saindu guztien egunean, "marautxo" bat eskatzen zuten hurrek estampa batekin

### **78. San Juan bezpera (BRA-012/071)**

San Juan bezperan, Zalain Zokon "belar xarrun" egiten dute: belar zaharrak biltzen dituzte erretzeko. San Juan egunean, belar berriak bedeinkatzen dituzte. Arantzan, sua saltatzerakoan "ona barrena eta gaiztua kanpora" erraten zuten.

### **79. Herrien fama (BRA-013/001)**

Arantzakoek mozkorren fama omen dute: "Ttot edan eta iup". Igantziarrek: "San Juan Xarrari eskatu eta min guztiak sendatu". Lesakarrek: "Hatozte, hatozte balkoiatik begira egotera". Beratarrek, berriz, "Hatozte, hatozte eta kafesnea emanen dizuegu".

### **80. Xori negarra (BRA-013/003)**

Muxikek eta beste arbolek botatzen duten kola antzeko horri "xori negarra" deitzen diote.

### **81. Arbolak txertatu 1. Noiz eta nola (BRA-013/004)**

Arbolak ilbeheran txertatzen zituzten. Txertoak aurretik ekartzen bazituzten, ilbehera heldu arte, iratze bustien artean gordetzen zituzten. Txertatzeko egunerako, behi kaka eta buztinarekin egindako pasta bat prestatzen zuten; moztu, txertoak jarri eta pasta horrekin estaltzen zituzten, gero trapu bat jartzen zuten eta zuloak egiten zizkieten txertoak handik ateratzeko.

### **82. Arbolak txertatu 2. Zer zeri (BRA-013/005)**

Elorri zuriak anitzetan hartzen du madaria, baina ez da erraza izaten. Mendian sagar basatiak hartu eta ereiten zituzten; egiten zirenean txertatzen zituzten eta han hartzen zutenean, handik atera eta paratu

### **83. Ilargiari begiratu (BRA-013/006)**

Zerria hiltzerakoan eta txertoetan ilargiari begiratzen zitzaion; baita sagardoa botilatzerakoan ere. Batzuek erraten zuten belarra ilbeheran egin behar zela eta arbolak botatzeko ere hori zela garai onena.

### **84. Sagardoa nola egiten zuten (BRA-013/007)**

Sagardoa egiten zuten bere etxean. Gazi gutxi nahasten zuten, gozoa gustatzen zitzaien. Kolore gorria emateko, motzolo eta patzulo erabiltzen zituzten. Solairuaren gainean uzten zituzten sagarrak ontzen. PISOIEKIN EGITEN ZUTEN dena guztien artean, ez zen makinarik, ezta prentsarik estutzeko. HARRIZKO TINARA joaten zen zukueta eta handik, baldekin, kupelera edo barrikara husten zuten. Etxean zurezko onila zuten. Kupela betetzen zutenean, irekita uzten zuten irakin arte. Irakiten duenean ateratzen duen aparra kendu behar zitzaion. Ondoren kupela ixten zen eta sebo ematen zitzaion izkin guztietatik. NEGUAREN hasieran egiten zuten eta udaberri aldera botilatzen zen. Kupela garbitzerakoan, mixto bat erabiltzen zuten barrenean gasa bazen jakiteko. KUPELEK zurezko "ziztonbrak" (kanilak) zituzten. Azkenik, sagardoa botiletan sartzen zuten.

### **85. Pittarra 1 (BRA-013/008)**

Pittarra egunero hartzen zuten; pitxer batekin joaten ziren eske. Pittarra urez nahasitako sagardoa zen.

### **86. "Mustillua" (BRA-013/009)**

"Mustillua" edo "mustigua" ere egiten zuten. Ontzi handi batean paratzen zuten eta han izaten zuten zortzi egunez irakiten eta eragiten. Azkenean gelditzen zenari intxaurrak botatzen zizkieten eta gordetzen zuten (gozoki bezala).

### **87. Pittarra 2 (BRA-013/010)**

Pittarra noiznahi hartzen zen, ez baitzuen mozkortzen. Bazkaltzeko pitxer bat beterik eramaten zuten eta, hustutzen zenean, berriz eske joaten ziren.

### **88. Dolareak (BRA-013/011)**

Dolareek toki handia hartzen zuten.

### **89. Elurra pilatzeko tokia (BRA-013/013)**

Elurra pilatzeko toki bat, elutxa, zegoen muga aldean: biltzen zuten elurra eta ongi zanpatzen zuten, udan horma izateko.

### **90. Sinesmenak. Animaliak eta euria 1 (BRA-013/015)**

Sinesmenak. Animaliak eta euria: Armigo (armiarma) beltz batzuk paretatik behiti etortzen direnean, euria eginen duela erraten da; baita Martin arrantzalea pasatzen denean, hontzak etxe izkinean kantatzen duenean, zizare handiak kanpora ateratzen direnean eta katuak goitien jostetan fuertea ari direnean.

### **91. Hontzak (BRA-013/017)**

Lehen orain baino hontz gehiago zeuden. Beraiek hontz bat hazi zuten: hasieran arrautza egosia ematen zioten jateko. Gero libre utzi zuten

### **92. Santa Barbarari errezatu (BRA-013/019)**

Tximista eta trumoiak hasten zirenean, Santa Barbarari errezatu, kandela piztu eta erramu bedeinkatuaren zati bat erretzen zuten. "Santa Barbara, zure bizitza kantuz behar dugu zabaldu, argitasun bat, memoriara nahi badidazu ekarri"

### **93. Izarrak (BRA-013/021)**

Izarrak ezagutzen zituen eta haiekin martxa eramaten zuen. Nola mugitzen diren azaltzen du.

### **94. Ortzederra eta erromako zubia 1 (BRA-013/022)**

Ortzadarrari "ortzederra" , "erromako zubia" eta "arkoirisa" deitzen diote. Norbaiti "otsederra " entzun dio. Kukuak martxoaren 25ean hasten da jotzen eta Sanpedrotan joaten da: "Sanpedrotan kuku mututu". Ortzadarra dagoela eta euria hasten denean, "azeria bataiatzeko eguna".

### **95. Ortzederra eta erromako zubia 2 (BRA-013/024)**

Arkoirisaren azpitik pasatzen den neska, mutila bihurtzen da.

### **96. Sinesmenak. Animaliak eta euria 2 (BRA-013/026)**

Sinesmenak. Animaliak eta euria : oilarrak arratsaldetan kantatzen duenean, euria edo elurra.

### **97. Sinesmenak. Afiladorea eta euria (BRA-013/028)**

Sinesmenak. Afiladorea ikusten zenean, euria egin behar zuela erraten zen.

### **98. Haizearen izenak (BRA-013/029)**

Haizearen izen desberdinak aipatzen ditu: behehiko haizea (edo mendebal-haizea) erraten diote itsasaldekoari). Ipar-haizea eta hegoaldeko haizea. Ekialde erran beharrean, eguzkia ateratzen den tokia edo Sarako erreka erraten dute. Sorgin-haizea erran beharrean, zirinbiloa erraten dute.

### **99. Xort egunak (BRA-013/030)**

Xort egunak. Bere lagun batek begiratzen zien, eguraldia igartzeko.

### **100. Errana. Urriko haize hegoak... (BRA-013/032)**

“Urriko haize hegoak buztana putzuan”: urrian izaten ohi da goizetan haize hego ederra eta arrasteko, euria.

### **101. Errana. Azazkaletan orbanak... (BRA-013/034)**

Azazkaletan orban zuriak ateratzen direnean, gezurrak erran dituzula erran nahi du. Txukuna (zotina) izaten duenean norbaitek, zerbait ebatsi duela erran nahi du.

### **102. Txukuna (zotina) gelditzeko (BRA-013/035)**

Txukuna (zotina) gelditzeko: tu bota lurrean eta harri batekin tapatu

### **103. Hortza erorita (BRA-013/037)**

Haurrak zirela, hortz bat erortzen zitzaienean, sutara botatzen zuten eta “xagu xaharra, horra horko xaharra, ekarri berria” erraten zuten.

### **104. “Gauz ona behin” (BRA-013/039)**

Norbaitek zerbait esan eta besteak “zer?” erantzuten duenean, “gauz ona behin” erraten da.

### **105. “Bi batean, bat ere ez” (BRA-013/040)**

Errana: “bi batean, bat ere ez”

### **106. Lurra lantzeko tresnak (BRA-013/042)**

Lurra lantzeko tresnak nolakoak ziren azaltzen du: area eta are ttikia, goldea eta golde ttikia (lehenago golde nabarra izaten zen), bonbilla, ohola, orbil jotzekoa

### **107. Gorotza (BRA-013/043)**

Gorotza nola zabaltzen zuten azaltzen du.

### **108. Artoa (BRA-013/045)**

Artoa nola ereiten zuten azaltzen du. Artoak lan handia ematen zuen erein ondoren ere: bakandu, jorratu eta galdurrua kendu. Buruak bildu ondoren ere lan handia izaten zen; afal ondotik joaten ziren artoa zuritzera eta elkarri bertsoak paratzen eta kantari aritzen ziren.

### **109. Harearekin garbitu pazia (BRA-013/046)**

Burnizko pazian arto-zopak eta opil-zopak egiten zituzten. Iturri ondoan garbitzen zuen pazia harearekin.

### **110. Eguneroko janaria (BRA-013/047)**

Gosaltzeko xingar, patata frifituak eta arrautzak jaten zituzten eta, ondotikan, katilu bat esne zopekin. Eguerdian, berriz, eltzari ona eta zerrikoa patatekin.

### **111. Emakumeen bizitza (BRA-013/048)**

Emakumeek lan handia egin dute beti. Gizona beti zen nagusi. Igandetan, arrastian, ilundu aurretik itzuli behar zuten etxera, anaiek, berriz, ez. Josten ikastera joaten ziren mojetara eta, belauna erakusten bazuten edota bestelako gauzarengatik kastigatzen zituzten: lurrean musu eman behar izaten zuten. Hagitz estuak izaten ziren.

### **112. Neskak eta mutilak (BRA-013/049)**

Musika ikusten egoten ziren eta gero etxera elkarrekin joaten ziren denak, neskek eta mutilak, koadrilan; kantari ibiltzen ziren.

### **113. Emakumeen lanak (BRA-013/051)**

Egunero bazkaria prestatzen zuten eta etxeari buelta ematen zioten. Bestetako lan handia izaten zuten: koltxoiak urratzen zituzten eta etxe guztia kisurekin zuritzen zuten. Arropa eskuz garbitzen zuten eta etxean josten zuten. Larunbatero "puntaxkak" egiten zituzten: boka-saskian zegoen arropa garbia erreparatzen (josten) zuten. Maindireetan "erdikoz bazter" egiten zuten. Izan ere, dena probexten zen.

### **114. Emakumeen barneko arropa (BRA-013/052)**

Bere amak harizko gerruntzea eramaten zuen. Gonazpiko beltzak bolanteekin eramaten zituzten. Lehenago, berriz, gonazpiko gorri eta lodia.

### **115. Arropa gutxi zuten (BRA-013/053)**

Arropa gutxi izaten zuten. Bestetarako soineko bat egiten bazuten, hurrengo urtean ez zuten beste bat egiten, soineko bera eramaten zuten.

### **116. Ama hil zitzaien (BRA-013/054)**

48 urte zituela hil zen ama. Berak 14 urte zituen eta orotara bortz senide gelditu ziren. 29 urteko izeba ezkongabea beraiekin gelditu zen, karga ederra hartu zuen.

### **117. Sortetxea (BRA-014/001)**

Bere sortetxeak izen bat baino gehiago du: Artalurta, Kokotzenborda. Karlos V.ak bere sortetxean lo egin zuen. Bere gurasoek erosi zuten ezkondu zirenean. Anaia etxean gelditu zen eta bera Ameriketara joan zen ("biak etxean ezin egon...").

### **118. Etxerako gelditzen zenaren betebeharrak (BRA-014/003)**

Etxerako gelditzen zenak gurasoak asistitu behar zituen. Indarreko etxeok kanpora joaten zirenei ere dotea eman behar zieten; batzuetan 3000 pezetako dotea izaten zen. Gerra aitzinean zilarrezko duroak ezagutu ditu.

### **119. Hamabostean behin merkatua (BRA-014/004)**

Lehen, hamabostean behin merkatua egiten zen Lesakan. Etxeko nagusiek duro bat eramaten zuten; hiru pezetarekin berendatzen (askaltzen) zuten eta bi pezeta bueltan eramaten zituzten oraindik.

### **120. Eskolara oinez (BRA-014/006)**

Eskolara baserritik oinez joaten ziren, ordu bateko bidea egin behar zuten. Oso eguraldi txarra egiten zuenean, batzuetan baserrian gelditzen ziren, baina, bestetan, elur ederrarekin joaten ziren. Maristak ziren

### **121. Maisuak maristak ziren (BRA-014/008)**

Maisuak maristak ziren. Ez zuten deus kobratzen eta etxetik jakiak (arrautzak, patatak, ilarrak etab.) eramaten zizkieten ordaintzeko. "Ez zuten goserik pasatzen".

### **122. Eskola erdaraz (BRA-014/010)**

Eskola erdaraz ematen zuten. Gipuzkoako Atanasio aitak, berriz, beti euskaraz egiten zien. Auzoko lagun batek Ameriketara joan nahi zuen, baina ez zekien gaztelaniaz idazten. Gutuna idatzi zion eta hiru hilabeteren buruan joan zen hara.

### **123. Hamar urte Ameriketara (BRA-014/011)**

Lagun batekin izan zen Ameriketara. Bera hamar urteren buruan etorri eta hemen gelditu zen. Bere laguna, berriz, 22 urte pasa zituen han.

### **124. Nola joan zen Ameriketara (BRA-014/012)**

Anaia etxerako gelditzekoa zenez, kanpora ateratzea pentsatu zuen. Lehenbiziko Frantziara joatea pentsatu zuen, baina aitaren lehengusua Ameriketara zegoen eta erreklamatu zuen bera. Iruñean gestoria bat zegoen paperak egiteko eta Bilboko kontsulatuan azterketa egin behar zuten. Azterketa gainditzeko bazuten bisa ematen zieten. Bakarrik egiten zuen lan eta bazkaria ere berak egiten zuen. Karro bat eman zioten. Lehenbiziko Kaliforniara joan zen, han lau urte izan zen, baina udan bero ikaragarria egiten zuen (semitropikoa da) eta ez zuen aguantatzen. Gero, Iparraldera joan zen (bi egun eta gau bateko distantzia Kaliforniatik). Han bi lagun egon behar zuten. Urteko hilabete guztietan elurra egiten zuen. Hamar gradu zero azpitik izaten zen; hotz idorra zen.

### **125. Ameriketara joateko abioia (BRA-014/014)**

Helizeak zituen abioi batean joan zen Ameriketara, 1953an. 35 orduko bidaia izan zen.

### **126. Ameriketara artzain 1. Ardiak, zaldiak eta zakurrak (BRA-014/016)**

Aste guztian egiten zuten lan (baita larunbat eta igandetan). Urtean hilabete bat libre zuten, baina oporrik hartzen ez bazuten, bikoitza ordaintzen zien nagusiak. Mendian 2500 eta 2700 arteko buru izaten zituzten udan; neguan, berriz, guttiago. Bi lagun izaten ziren: bata artzain eta bestea sukaldari. Noizbait galdu izan zen mendian; baina ez zen deus pasatzen, zaldia eskutikan uzten ez bazenuen, zaldia ez baita galtzen. Etxera itzultzeko, zaldiaren gainean jarri eta utzi behar zaio libre, berak bidea baitaki. Zaldia eta zakurra

azkarrak dira. Lau zaldi izaten zituzten bi lagunentzat: bi ongi heziak, bat goizean erabiltzeko eta bestea arratsaldean; beste biak, berriz, leku aldaketetarako erabiltzen ziren. Izan ere, lekuz aldatu behar zuten, hainbeste ardiek segituan jaten baitzuten mendia. Jeneralean hiru hilabete izaten ziren mendi batean eta, zu han zauden bitartean, ezin da inor sartu. Walkie-talkieak erabiltzen zituzten beste artzainekin komunikatzeko. Artzainak udaberrian elkartzen ziren noizbehinka.

### **127. Ameriketan artzain 2. Ogia (BRA-014/017)**

Artzainak udaberrian hasten ziren noizbehinka juntatzen. Behin mejikano bat hurbildu zitzairen. Mejikanoek ez dute ogirik egiten, "tortillak" egiten dituzte. Beraiek ogia lurpean egiten zuten (nola egiten zuten azaltzen du). Mejikanoa beraiekin bazkaldu zuen eta erotua zegoen ogiarekin (errezeta hartu zuen).

### **128. Ameriketan artzain 3. Maiordomoak (BRA-014/019)**

Maiordomoa izaten zen. Tximista batek jo zuen eta hil egin zen. Norbait largabistekin begiratu eta ohartu zen bere artaldea abandonaturik zegoela eta haren nagusiari erran zion. Maiordomo hori bakarrik egoten zen, eta hori ez zen libre (bi lagun izan behar ziren beti). Maiordomoaren lana artzainei janak eramatea eta eskaerak jasotzea zen.

### **129. Ameriketan artzain 4. Nagusiak. Negua eta uda (BRA-014/020)**

Nagusi batek 2.000 behi eta 20.000 ardi zituen. Neguan artzain guttiago zituen bere kargu, artaldea ttikitzen zelako (bildotsak trenez eramaten zituzten bizirik). Neguan basamortura joaten ziren; oso gogorra zen.

### **130. Ameriketan artzain 5. Hartzak, koioteak, pumak eta katamotzak (BRA-014/021)**

Aurkakoen falta ez zuten ez desertuan neguan ezta mendian udan: bertzeak bertze, hartzak, koioteak, lehoiak (pumak) eta lintzeak (katamotzak) izaten ziren. Tiro egin behar zieten. Nagusiak arma bat emateko obligazioa zuen. Berak hartza eta lintzea hil zituen; koioterik eta lehoirik (pumarik), berriz, ez zuen hil (asko ikusi bazituen ere). Pumak eta koioteak ardi anitz hiltzen dituzte artalde batean sartzen direnean; hartzak eta lintzeak, berriz, bakarrik hiltzen ohi dute. Izan ere, hartzak, harrapatzen duena jan arte, ez du besterik hiltzen. Lintzeak (katamotzak) muturretik harrapatzen du ardia.

### **131. Ameriketan artzain 6. Hartza hiltzeagatik, 20 dolar (BRA-014/023)**

Lehoiak eta hartzak jendearengandik eta zakurrengandik ihesi joaten dira. Amerikanoek hartza jaten dute, gaztea baldin bada. Artzainek, hartza bat hiltzen zutenean, belarria kendu eta nagusiari ematen zioten; honek, 20 dolar ematen zizkien. Koiote eta bertzeagatik ere dirua ematen zieten.

### **132. Ameriketan artzain 7. Tranpa-jartzaileak (BRA-014/024)**

Basamortuan, neguan, koiote anitz izaten ziren eta Gobernuak tranperoak (tranpa-jartzaileak) eramaten zituen. Hegazkin txikiekin ere joaten ziren eta handik tiroka aritzen ziren, batidak (uxaldiak) ematen. Tranperuek pozoia paratzen zuten eta zakurrak hil zitzaizkion berari.

### **133. Ameriketan artzain 8. Ardi anitz hil. Ardiak kontatu (BRA-014/025)**

Ardi anitz hiltzen zizkieten koioteek-eta. Mendira joan aurretik ardiak kontatzen zizkieten artzainei eta, gero, udazkenean, itzultzen zinenean, berriz ere. 100 burutik 7 galtzen baziren (edo 100 buru baino gutxiago), garaipena zen. Mendian zela ere kontatzen ohi zituzten ardiak: denak biltzen zituzten eta, arbasatik pasatzean, maiordomoak kontatzen zituen. Ardi guztien artean, ehun bat ardi beltz izaten zituzten; hoiak kontatzen zituzten noiznahi eta, baten bat falta bazen, ardi gehiago falta zirela erran nahi zuen.

### **134. Ameriketan artzain 9. Egunero leku berrira (BRA-014/027)**

Egunero leku berrira mugitzen zen, bazka berria emateko ardiei. Ardi batzuk falta zirela ikusten zuenean, aurretik pasatutako lekuetara joaten zen, ur ondoan edota itzaletan izaten baitziren ardiak.

### **135. Ameriketan artzain 10. Kapoiak (BRA-014/029)**

Hango ardia beti kurri: udan mendira eta udazkenean basamortura. Kapoi espresak zituzten ardiek segitzeko.

### **136. Ameriketan artzain 11. Zer jaten zuten (BRA-015/001)**

Bizimodu gogorra zen hangoa, baina egun onak ere izaten zituzten. Jatekorik ez zen falta. Amuarrair anitz arrantzatzen zituzten errekan. Denetarik jaten zuten: bertzeak bertze bildotsa, arraina, mendiko oiloa, untxia (neguan, desertuan). Ehiza nahi duzun guztia duzu han. Ez ziren zakurrarekin joaten ehizara. Erbi anitz ere baziren basamortuan, baina karroñeroak (sarraskijaleak) dira eta ez zituzten jaten.

### **137. Ameriketan artzain 12. Markatu, buztana moztu eta barrabilak kendu (BRA-015/003)**

Ardiak korraletara biltzen zituzten eta, ate batetik pasatzean, tintaz markatzen zituzten. Bildotsei buztana mozteko, laguntzailea joaten zen. Bildotsei ahoarekin kentzen zizkieten barrabilak. Sukaldean prestatu ondoren, hagitx onak omen ziren jateko.

### **138. Ameriketan artzain 13. Karabanak eta kanpadendak 1 (BRA-015/005)**

Neguan (desertuan) karabanan egiten zuten lo eta udan (mendian), berriz, kanpadendan. Karabana zaldiek tiratzen zuten

### **139. Ameriketan artzain 14. Karabanak eta kanpadendak 2 (BRA-015/007)**

Kanpadendan lo egiteko petatea (zakua) zuten. Estufa (labe) txiki bat ere izaten zuten bazkaria prestatzeko; hodi baten bitartez ateratzen zuten kea, tximini moduan. Karabana edo roulottea barrutik nolakoa zen azaltzen du. Neguan, karabanan gordetzen zituzten patatak eta arrautzak hormatu eta lehertzen ziren. Ura edaten zuten; Kalifornian, berriz, ardo izaten zuten; berak, udan, meloia nahiago zuen freskatzeko. Kalifornian, karabana gehienetan hozkailu txiki bat izaten zuten. Han, baina, bakarka egoten ziren.

#### **140. Ameriketara artzain 15. Garbitasunak (BRA-015/009)**

Udan, ubidetan bainatzen ziren. Arropa garbitzeko, taula bat, lixiba eta eskuila erabiltzen zituzten. Kalifornian ordu erdian idortzen zen arropa.

#### **141. Ameriketatik itzuli zenean (BRA-015/010)**

Bera Ameriketara joan zenean, dolarrak 15 pezeta balio zuen. Gero, egunetik egunera goiti joan zen. Bera hemengo fabrikara lanera joan zenean, 12 pezeta irabazten zituen. Hona etorri zenean, aldaketa handia nabaritu zuen; mila pezetako billeteak zituzten orduko gazteek. Fabrika anitz sortu ziren orduan hemen.

#### **142. Baserriko bizitza (BRA-015/012)**

Ameriketara joan aitzineko bizitzari buruz mintzatzen da. Baserrian lan egiten zuten jan alde, sosik gabe beti. Etxean landatu, erein, esnea jetzi... Jeneralean artoa zuten, errotara eraman eta irinarekin taloak egiten zituzten. Amak erakutsi zion taloak egiten (ur epela behar zuten, adibidez). Ama eta aita igande goizetan, 6etan, lehen mezara joaten ziren eta opilak egiteko erraten zioten berari. Behin, esnearekin egin zituen.

#### **143. Herrietan gosea (BRA-015/013)**

Herrian, deus ere ez zutenek gosea pasatzen zuten. Gauetz, inguruko baserrietako baratzeetan ahal zutena ebasten zuten; besteak beste, patata koxkorra kentzen zuten, landarea utzita. Ez zen azukrerik, ezta oliorik, ezta arrozik ere.

#### **144. Errazionamendua. Gaueko lana (BRA-015/014)**

Hilabetean behin errazionamendu txartelarekin erosten zituzten jakiak. Baina oso gutxi ematen zieten; behin, komediantek batzuk joan ziren herrira eta txantxetan aritu ziren hori zela eta. Batzuek gaueko lana (kontrabandoa) egiten zuten, sosen bat ateratzeko. Dena dela, han ez zen inor aberastu kontrabandoarekin. Gazte askok igandean gastatzen zuten lortutako sosa. Beste batzuek etxean entregatzen zuten sosa. Fabrikari errazionamendu hobea ematen zieten langileei.

#### **145. Hamaika urterekin kontrabandoan (BRA-015/015)**

Hamaika urterekin hasi zen kontrabandoan, aitzak bidalita. Tela ekarri zuen. Anaiarekin joan zen, egunez, gauetz ibiltzeko oraindik gazte baitziren. Militarrez josia zegoen dena. Aitzak etxetik kanpo gordetzen zituen paketeak.

#### **146. Anekdotak. Dirua gorde (BRA-015/016)**

Hamabi urtera arte eskolara joan zen. Oporren ostean, egun erdiko eskola izaten zuten soilik, hamabost egunez. Ordu bateko bidea zuten eskolatik baserrira. Ama astean behin dendara (Mariarenera) joaten zen. Amak bi sos ematen zizkion dendan berendua (askaria) erosteko (olata txiki eta txokolate pastilla). Baina berak gosea aguantatu eta dirua gorde zuen. Bere ama dendara joan zenean enteratu zen eta zertan gastatzen zuen galdetu zion (gozokietan gastatzen zuela uste baitzuen). Erakutsi zionean, amak hartu zion berriz dirua.

#### **147. Gazte denborako gaixtakeri txikiak (BRA-015/017)**

Baserrian fruta anitz bazuten ere, bera ondoko baserrietatik hartzen zuen.

### **148. Noiz egin txertaketak (BRA-015/019)**

Otsaileko ilbeheran egin behar dira txertaketa gehienak. Martxoko ilbeheran ere, izerdia mugitzen hasten da eta ongi hartzen dute arboleak txertaketa.

### **149. Txertaketak nola egin (BRA-015/020)**

Txertaketak nola egiten dituen azaltzen du.

### **150. Ordu zaharra (BRA-015/021)**

Eguzkiko ordua zen lehen, orain bi ordu aurreratu da. Sakeleko erlojuak izaten ziren (bere etxean bat zegoen) eta penduluko erlojuren bat ere izaten zuen norbaitek. Herrira joaten zirenean, elizako erlojua begiratzen zuten. Etxean iratzargailu bat izan zuten. Bere aitak urrezko erloju bat aurkitu zuen mendian; Madrilgo etxe batean lanean ari zen izeba batek oso garestia zela erran zien. Lehengo zaharrek itzalari begiratuta jakiten zuten zer ordu zen.

### **151. Sorginak eta lamiak 1 (BRA-015/023)**

Gurasoek lamietan ez zela sinetsi behar erraten zieten. Bere osabari gertatutakoa kontatzen du: zerrategitik zetorrela, sorgina atera zitzaion (galdategi fabrika zegoen tokian), aurre egin zion eta, alde egin zuenean, ezagutu zuen nor zen. Neskek ilunerako etxera itzuli behar zuten; berandu iristen ziren neska batzuei gurasoak atera zitzaizkien sorginak izanen balira bezala ikaratzeko. Lamiak eta sorginak gauza bera dira. Zugarramurdin zuten zentroa.

### **152. Sorginak eta lamiak 2 (BRA-015/025)**

Lehen, apaizak lamiak omen ziren Zugarramurdin. Anitz formatan ateratzen ziren, ez ezagutzeko. Apoak jaten omen zituzten. Besta egunak izaten zituzten.

### **153. Frantsesa eta igarlearen istorioa (BRA-015/027)**

Frantses bat adibinadora (igarle) batengana joan zen. Bi urte barru uros (zoriontsu) izanen zela erran zion. Bi urteren buruan, baina, hil zen.

### **154. Mexikarrak superstiziosoak dira (BRA-015/028)**

Mexikarrak oso superstiziosoak dira.

### **155. Itsasontzian atzerrira (BRA-016/001)**

Jende asko zirenez, asko ateratzen ziren atzerrira

### **156. Emakumeen egoera (BRA-016/003)**

Garai batean emakumeak "esklabotasun" handiagoa zuen. Orain gizonen mailara iritsi da (aunitz gauzatan gorago) eta buru erneagoa du orokorrean.

### **157. Gizonen izaera (BRA-016/005)**

Badira batzuk, lan egiten dutenak eta badira ere besteen lana probestu nahi dutenak.

### **158. "Itsasotik joan gineko Gailegoa" (BRA-016/007)**

Gailegoak galtzak ebatsi zizkion bigarren aldiz. Kapitaina abisatu zuen orduan.

**159. Gure etxetik itsasora (BRA-016/009)**

Beratik 360 marinel baxuran eta alturan. Baxura da kosta eta altura da Finisterretik pasa eta gero. Altura edo gran altura.

**160. Baxuran lanean (BRA-016/010)**

Baxuran, bonitoa usoa pasatzen den bezala etortzen da: pilaka.

**161. Atlantikoa pasata aldaketak (BRA-016/012)**

Arrain guztiak arrunt diferenteak dira behin atlantikoa pasatuta. "Planuak dira. Fletanak 15 kilokoak, hemen lenguado bezala saltzen da. "

**162. Gatzeko arraiak (BRA-016/014)**

Bakailaoa, maruka, lotxa...

**163. Izokiak (BRA-016/016)**

Zortzi hamar kilokoak. Baina ez da gatzekoa.

**164. Arrain handia txikiaren defentsore (BRA-016/018)**

Balea da defentsorerik handiena.

**165. "Itsaso zerriya" edo izurdea (BRA-016/019)**

Zerria eta itsaso zerriaren puska batzuk ba omen dira bereizten ez direnak. Gibela eta antzekoak.

**166. Arrain gatzatuak (BRA-016/021)**

Arrain zuriak ez du gatza ongi hartzen. Arrain "azulak" denak hartzen du.

**167. Zergatik joan zen itsasora (BRA-016/023)**

Kontrabando fitxa sartu zidaten eta alde egin behar izan nuen.

**168. Terranovara (BRA-016/025)**

Soldata ona eskaini zioten.

**169. Pasaiaiko portuan (BRA-016/027)**

Iskanbila zegoen Pasaiaiko portura iritsi ziren egun batean, kontrabandoaren istorioarekin. Hauek Terranovatik zetozen. Teniente eta karabineroak etorri ziren itsasontzia goitik behera begiratzera. Alvarez Tenienteak kontrabandotik ezagutzen zuen Matxikote. "¿Cuanto llevas aqui? ¿No te daba la frontera?" Galdetu omen zion. Kontrabandoko Whiski botilak armairu batean zituzten ezkutatuak eta Mando batek galdetu omen zion Matxikoteri zer zen armairu hartakoa eta honek sukaldariarena zela esan zion nahiz eta "caballo blanco" izan.

**170. Zer erran zion guarda erretiratu batzuei. (BRA-016/029)**

"Guardia que no se arregla con los contrabantes no vale ni un pito."

### **171. Arrantza kontuak: delfinak (BRA-016/031)**

Zein haragi mota duen eta arpoiekin nola harrapatzen zituzten.

### **172. Sareak (BRA-016/033)**

Hogei zentimetroko sareak hartu eta La Rochellera edo Parisera joaten ziren hamar zentimetroko sare berriak eske. Kiloko harraia ere bertan gelditzen zen. Zertarako harrapatu kiloko bakailaoa?

### **173. Arrantzan emandako urteak (BRA-016/034)**

Hamahiru urte bakailaotan eta bat hemen ikasten.

### **174. Anekdotak: "Marineros de agua dulce" (BRA-016/035)**

Anekdotak bat kontatzen du Marinero de agua dulce daitu zionari zer egin zion.

### **175. Lehenengo bidaia (BRA-016/037)**

Bakailaotara joan zen lehenengo bidaiari. Timonel egiten nola egoten den bat. Mareoak...

### **176. Bakailaoko lana (BRA-016/039)**

Sarea nola botatzen zuten eta "arrastrean" atera. Amorebietako kidea nola izan zuen lehen bidaiari bakailaoak gatzatzen. Guztira 24 lagun egoten ziren, sei hilabetez 24 aurpegi ikusten egonda bukaeran erdi eroturik jartzen dira.

### **177. Sareak bildu, garbitu eta gatzatu (BRA-016/041)**

Sareetatik kajonada handi batzuetara botatzen ziren bakailaoak. Han burua kendu, urez garbitu eta bodegan gatzitu.

### **178. San Pierren deskargak (BRA-016/043)**

San Pierren deskargatu eta aberriz itsasora.

### **179. Nagusiek diru asko egiten zuten (BRA-016/045)**

Nagusiek diru asko egiten zuten

### **180. Kontramaestrearen lana (BRA-016/047)**

Talde guztia manejatu behar du. Marinela urte batzuk egin dituenak badaki bizitzen.

### **181. Sareak egin (BRA-016/049)**

Zakien guztia ibiltzen zen sareak egiten.

### **182. Bakailaotan dirua (BRA-016/051)**

Eskainitako dirua, izaten zituen oporrak... Etxean ez zuten itsasoratzerik nahi izaten.

### **183. Sarearen orratzak (BRA-016/053)**

Erakustaldi bat egiten du sareak nola konpontzen zituen ikusteko. Benetako orratza darabil eskuetan.

#### **184. Gauak sareak egiten (BRA-016/055)**

Sarea erosi eta hautsitako zuloak konpontzen egoten ziren. Batek orratza bete hala, berak sarea konpontzen zuen.

#### **185. Bizkarrerako poltsa (BRA-016/057)**

Ez zuten itsasoan erabiltzen baina berak jositako bizkarreko sare bat erakusten du.

#### **186. Terranovan hamar egunetan (BRA-016/059)**

Zeneraman itsasontziak zer ikusi handia zuen. Hasieran hamar egun behar izaten zituzten Terranovara iristeko. Ondoren zortzi egunetan 1400 zaldiko itsasontziekin.

#### **187. Urtarrilean atera (BRA-016/061)**

Urtarrilean ateratzen ziren orokorrean eta itzulian bata bestea ezin ikusi etortzen ziren urtera. St Pierren etzekoen korrespondentzia hartzen zuten eta bidali ere bai.

#### **188. Lan orduak itsasoan (BRA-016/063)**

Arrairik ez zegoenean lo, jokoa briskan... "arraia agertzen zenean 30 ordu igual aritzen gunen"

#### **189. Petrolioa, gatza... (BRA-016/065)**

La Rochellen hertzen genuen edo Santurtzin. Terranovan edo St Pierre edo San Juanen... Idorrera ere gerturatzen ginen elikagaien bila eta.

#### **190. Zikloiak harrapatzean (BRA-016/067)**

"Virgen Carmen salvanos de esta..." belauniko negarren artean errezoan aurkitu izan gara. Hurrengo egunean botea buelta emanik...Hura pasatzean kalma.

#### **191. Vigon deskargatu (BRA-016/069)**

"Sasoi hura joan egingo zela ere, nork pentsatu..." Vigon deskargatu egiten zuten.

#### **192. Baionan gertatutakoa (BRA-016/071)**

Don Angel Sanchez kapitainarekin Baionan. Fondo gutxi zegoen eta guk killa handia genuenez zorua jota gelditu ginen. Motorra arrankatzean helizea hautsi zen. Helizea konpontzeko bakoitzak makinako olio bidoi bana eraman behar izan genuen eta gero Terranovara.

#### **193. Terranovara joatearen balantzea (BRA-016/072)**

Hara joandakoak demonioak ikusiak dira. Hara joaten urte gutxi egiten zituzten, hemen gertuan bajuran asko baina haraino joaten ez.

#### **194. San Pierren remolkean (BRA-017/001)**

Bi egun eman zituzten remolkean San Pierren. Sarreran, barku zaharretik beste batera saltatzeko agindua eman zion kapitainak. Hala egin zuen eta hatsik gabe gelditu zen.

### **195. Istripuak itsasontzian (BRA-017/003)**

Hiru behatz apurtu zituen behin. Beste batean ebaki g;handi bat.

### **196. Itsasontziko janak (BRA-017/005)**

Ez zuen kexarik izan. Sukaldari onak izan ditu eta ongi jaten zuten. Arrain mota guztiak zituzten eskura eta eltzeko onak ere bai. Sukaldari pare bat Galiziarrek eta hemengoak ere bai.

### **197. Arrantzarako arropa (BRA-017/007)**

Ureko arropa. Bota luzeak. Berak bota ingelesak ibiltzen zituen. Berdea edo horia. Zapela.

### **198. Itsasoko goatzea (BRA-017/009)**

Hamahiru urtetan ez zuen maindire zuririk izan. Etxetik arto-lastoekin eginiko koltxoia eramaten zuen.

### **199. Kamaroteak (BRA-017/010)**

Denetarik tokatu zaio kamarotean, hamabi lagun batera egotea, binaka egotea... Litera zahar batzuekin. Zorritz beteak eta kukuxuak.

### **200. Arropak garbitzeko (BRA-017/012)**

Atorrek eta galtzak bakarrik garbitzen zituzten. Nola garbitzen zituzten bidoietan hankekin zanpatuz.

### **201. Gorputza garbitu (BRA-017/014)**

Gutxi. Razionatua zegoen ura. Azkeneko barkuan 70tona ur geza zituenez hobeki.

### **202. Zorriak itsasontzian (BRA-017/015)**

Zorritz beteak egoten ziren. Maldonado kapitainak pestizida bat eman zien urarekin nahasi eta zorriak akabatzeko.

### **203. Eskuak haragitan (BRA-017/017)**

Eskuak haragitan gelditzen zitzaizkien arenilarekin.

### **204. Ospitalean Terranovan (BRA-017/018)**

Estomagotik operatua izan zen.

### **205. Terranovan euskaldunak bildu (BRA-017/020)**

Hondarribiarrekin eta elkartzen ziren han. Boxeoan eta egoten ziren.

### **206. Kontrabandoan (BRA-017/022)**

Kontrabandoan zebilela hanka apurtu zuen.

### **207. Karabineroaren tiroak (BRA-017/024)**

Sei idi eta behi bat zituzten hamasei urte zituelarik. Tiroak jaso zituen karabineroen aldetik kontrabandoan zebilela. Honela apurtu zuen hanka, etxe batera eraman zuten eta han pasa zituen lau hilabete.

### **208. Asko tirokatzen zituzten paketeroak (BRA-017/026)**

Puntilekin zihoan beste batean harrapatu zituzten eta puntilak kendu.

### **209. Paketekin 14 urtetan hasten ziren (BRA-017/028)**

Hamabitik hamalaura morroi egon zen eta ondoren paketakin hasi zen. Morroi egon zelarik jateko ongi ematen omen zieten baina gainontzekoan infernu bat omen zen.

### **210. Morroi lana 12 urtetan (BRA-017/029)**

Goizen jaiki, esnea hartu bere lekura eraman ezinean pisu asko baitzuen. Hamar duro ordaintzen zituzten.

### **211. Neurriak (BRA-017/031)**

Zantza: 33litro, zantza motza: 22koa ere. Marmita hamar litrokoa. Errua eta erru erdia artoa neurtzeko. Zakutan artoa. Erruak 22 kilo eta erdiak 11kilo. Laka: errotariari ematen zitzaion irina. Sagar karga: hiru zaku.

### **212. Sagardoa etxeetan (BRA-017/033)**

Etxe guztietan egoten zen sagardoa egiteko tokia.

### **213. Ogia egin (BRA-017/035)**

Azken urteetan makina batekin egiten zen.

### **214. Ordua jakin (BRA-017/037)**

Itzalak kontrolatuz jakiten zuten ordua. Ordua ez zuten aldatzen.

### **215. 13 urterekin mutil (BRA-018/001)**

Familia pobrea zen eta hamahiru urterekin, udako hilabetetarako, mutil joan zen baserri batera

### **216. Soldata eskatu eta baldintzak okertu (BRA-018/002)**

Hiru urtez joan zen baserri berera. Hirugarren urtean soldata eskatu zuen eta, onartu bazioten ere, hortik aurrera lan-baldintzak gogortu zitzaizkion eta utzi egin zuen

### **217. Benta batean lanean (BRA-018/004)**

Hamasei urterekin mendian zegoen Benta batean hasi zen lanean. Bertan askoz soldata hobea ordaintzen zioten baina, hilabete batzuk pasata, gobernuak muga inguruan ziren bentak itxi egin zituen

### **218. Etxean eta kontrabandoan (BRA-018/005)**

Benta itxi zutenean baserrian gelditu zen, baserriko lanetan aritzen zen eta baita kontrabandoan hasi ere bai

### **219. Herriko gaixo bat mugaz bestaldera mendiz (BRA-018/007)**

Herriko gaixo bat mugaz bestaldera eraman zuteneko anekdota kontatzen du. Mendiz eraman zuten eta aduanetako frantses poliziarekin topatu egin ziren

## **220. Gero Sarara lanera (BRA-018/008)**

Baserri horretan urte batzuk eman ondoren Sarara joan zen lanera

## **221. Saran ere baserrian eta kontrabandoan (BRA-018/009)**

Saran baserrian eta kontrabandoan aritu zen bi urtez. Etxeko bezala hartu zuten baina etxeko semea zirikatzen ibiltzen zen beti eta ezer gertatu baino lehen, penaz, alde egitea erabaki zuen

## **222. Handik Iratira lanera (BRA-018/010)**

Saratik Iratira joan zen lanera... eta hor hasi zen kalbarioa

## **223. Lehendabiziko etxeko bizi-baldintzak (BRA-018/011)**

Han pasatzen zuen denboran jan eta lo bertan egiten zuen. Baserriko bi seme itsasoan aritzen ziren. Han ez zen inoiz janaria faltan izan

## **224. Bere etxean jateko eskas (BRA-018/012)**

Bere etxean hiru anaia-arreba eta gurasoak ziren eta jateko eskas zuten, horregatik mugitu behar izan zuten alde batetik bestera

## **225. Bera etxez etxe eta arreba neskame (BRA-018/013)**

Anaiak osasun arazoak zituenez ez zen etxetik mugitu, baina bera etxez etxe ibili zen eta arreba Frantzian aritu zen neskame, egoera ilegalean gainera

## **226. Iratin hasi zen egiazko lana (BRA-018/014)**

26 urterekin joan zen Iratira lanera eta han hasi zen egiazko lana. Hasiera batean Otsagabia aldean egon zen

## **227. Oiloek bezala egiten zuten lo (BRA-018/015)**

Oiloek bezala egiten zuten lo, makilen gainean

## **228. Hasiera batean eskuetatik sufritu zuten (BRA-018/016)**

Hasiera batean eskuetatik sufritu zuten, lana aizkora eta arpanaz egiten baitzen

## **229. Iratiko ordutegia (BRA-018/017)**

Argitu baino lehen altxatzen ziren lanera joateko. Goizeko 9ak aldera babak jaten zituzten. Ordu bata aldera berriro babak jan eta lo kuluxka pixka bat egiten zuten. Arratsaldeko 6ak aldera ogia jaten zuten merendu gisa. Zenbaitetan 18 orduko lan jardunaldiak egiten zituzten

## **230. Kanadara joateko apuntatu zen (BRA-018/018)**

Kanadara lanera joateko jendea eskatu zuten eta berak izena eman zuen. Tramiteak luzatzen zirenez Frantziara joan zen lanera

## **231. Frantzian zerrategi batean (BRA-018/019)**

Frantzian zerrategi batean aritu zen orduan, anaiarekin batera

### **232. Kanadara joateko deia (BRA-018/020)**

Frantzian zegoelarik abisua pasa zioten: Kanadara joateko Iruñean agertu behar zuela biharamunean. Landetatik Iruñerako bidaia nola egin zuen kontatzen du

### **233. Soldata ezagututa batzuk atzera egin zuten (BRA-018/021)**

Beraiek uste zuten 400 dolar irabaziko zituztela baina Iruñean elkartu zirenean soldata 100 dolarrekoa izanzen zela esan zieten, Frantzian kobratzen zuen beste alegia. Berak aurrera egitea erabaki zuen baina batzuk Altsasun trenetik jaitsi eta etxera itzuli ziren

### **234. Kanadara iritsita sorpresa (BRA-018/022)**

100 lagun joan ziren eta Kanadara iritsita banatu egin zituzten. Juanitori beste 7 beratarrekin batera tokatu zitzaion. Etxaldera iritsi eta bi litera eta lababorik ez zuen roulotte zahar batean sartu zituzten

### **235. Ez zieten utzi dirua eramaten (BRA-018/023)**

Hangoa ikusita ulertu zuen zergatik ez zieten utzi dirua eramaten: etxera bueltatzeko dirurik izan ez zezaten!

### **236. Lehenengo lana 45 egunetan bukatu (BRA-018/024)**

45 egunetan bukatu zuten lehenengo lana. Taldea banandu eta etxaldeen bakarka lan egitea nahi zuten hangoek baina haiek uko egin zioten eta tren-konpainia batera bidali zituzten

### **237. Bi egun bidaian (BRA-018/025)**

Lan-tokira iristeko bi egun eman zituzten trenean

### **238. Lan kanpamentua (BRA-018/026)**

Lan kanpamentura iritsi zirenean ikusi zuten literak zeudela bagoietan. Gosaltzera joan zirenean harrিতuta gelditu ziren zerbitzariak eta guzti zeudela ikusita

### **239. 18 saltxitxa jan zituen batek (BRA-018/027)**

Orotz Beteluko batek 18 saltxitxa jan omen zituen gosarian

### **240. Urria aldean lana bukatzen zen (BRA-018/028)**

Urrirako errekek eta lakuak hormatzen ziren eta lana utzi egin behar zen

### **241. Berriz ere 14 lagunendako lan bila (BRA-018/029)**

Bortzirietako hamalau lagunendako lan bila joan ziren berriro, baina bostendako bakarrik eskaini zieten

### **242. Lantoki berrian berriz ere sorpresa (BRA-018/030)**

Hasiera batean topatu zuten roulotte zaharra topatu zuten berriro

### **243. Janaria haietako batek prestatzen zuen (BRA-018/031)**

Nagusiak janaria lasai ekartzen zuen eta haietako batek prestatzen zuen

#### **244. Hotz handia (BRA-018/032)**

Hotzak akatuta hilko ziren haiek nagusia ez bazen izan haiekin, gauez nagusia altxatzen baitzen sua piztera

#### **245. Egin beharreko lana (BRA-018/034)**

Mendiko lana egiten zuten: motozerrarekin zuhaitzak moztu, adarrak erre eta egurretarako balio zuena bereizi eta pilatu

#### **246. Egurra garraiatzeko sistema (BRA-018/035)**

Egurra erreka izoztuaren gainean pilatzen zuten. Erreka Papeleratik pasatzen zenez, izotza urtzerakoan errekek berak garraiatzen zuen egurra

#### **247. Sudurra izoztu (BRA-018/036)**

Lagun bati sudurra izoztu zitzaion

#### **248. Gidatzen jakin ez eta kamioa hartu (BRA-018/037)**

Kanpamentua mugitu behar zutela, Juanitok hainbat tona zuen kamioa hartu zuen. Pista guztiz izoztua zegoen eta gorriak pasa zituen kanpamentu berrira iristeko. Nagusia ez zen enteratu Juanitok ez zekiela gidatzen

#### **249. Anekdotakastoreekin (BRA-018/039)**

Kastore asko zegoen han. Behin kabia ikustera hurbildu zen lagun bat baina horma hautsi eta erre kara erori zen

#### **250. Izugarritzko hotza (BRA-018/040)**

Juanitok egiten zuen hotzaren adibide adierazgarriak azaltzen ditu eta aipatzen du 30º zerop ean edozein egunetan egiten zuela

#### **251. Hotzerako arropa (BRA-018/041)**

Hotzaren kontra, arropaz kargatuak ibiltzen ziren. Juanitok erabiltzen zituzten arropak deskribatzen ditu

#### **252. Negua pasa eta berriz ere lan bila (BRA-018/042)**

Negua pasa zenean lan bila joan ziren berriro eta trenbidean lan egitera bidali zituzten

#### **253. Makinetan lanean (BRA-018/043)**

Hurrengo urtean makinetan lanean hasi ziren. Sosa gehiago kobratzen zuten baina lan gogorra zen. Bero handia pasatzen zuten eta batzuk deshidratatuak erortzen ziren

#### **254. Berriz ere mendira lanera (BRA-018/044)**

Mendira joan ziren berriro lanera. Negu gogorra egin zuen hartan. Kanpamentua ongi zegoen baina lana gogorra zen eta ez zuten aski irabazten, hortaz utzi egin zuten eta paroan apuntatu ziren

#### **255. Hurrengo neguetan ez zuten lanik egin (BRA-018/045)**

Negua pasata trenbidean lan egin zuten berriro baina hurrengo neguetan ez ziren saiatu mendira lanera joaten eta paroan gelditzen ziren

### **256. Azkeneko urtea (BRA-018/046)**

Bosgarren urtean lagun batekin ados jarri eta itzuli behar zutela erabaki zuten. Negua pasa eta lanean hasi zirenean istripua izan zuen Juanitok eta bi hankak hautsi zituen

### **257. Istripua nola gertatu zen (BRA-018/047)**

Juanitok azaltzen du nola gertatu zen lan-istripua

### **258. Ospitalean hilabetez (BRA-018/048)**

Ospitalean hilabete eman zuen. Hasieran buruari bueltaka eta negar malkoetan. Tratua hagitz ona izan zen. Hilabeteren buruan handik atera behar izan zuen eta Winnipegera itzuli zen berriz ere

### **259. Errehabilitazioa egitera Torontoraino (BRA-018/049)**

Errehabilitazioa egitera joateko egun oso bat eta bi gau eman zituen bidaian

### **260. Errehabilitazio zentroan 40 egunez (BRA-018/050)**

Torontoko errehabilitazio zentroan beste 40 egun egin zituen

### **261. Jendeak ez zituen errehabilitazio programak egiten (BRA-018/051)**

Jendeak ez zituen errehabilitazio programak egiten, bertan ongi jan eta arropa egunero aldatzeko aukera baitzuen

### **262. Etxera itzultzeko espezialistaren oniritzia behar (BRA-018/052)**

Etxera itzuli nahi baina espezialistak esaten zion aste batzuetako errehabilitazioa gelditzen zitzaiola. Azkenean oniritzia eman zion eta, tramite bakarra eginda, baimena eman eta baja kobratu ahal izan zuen

### **263. Etxera itzuli eta emaztea ezagutu (BRA-018/053)**

Etxera itzuli zen eta emaztea ezagutu zuen. Gainera, hemen egoera aldatzen hasia zen. Hortaz, Kanadara bakarrik itzultzea oso gogorra egiten zitzaion eta gelditzea erabaki zuen

### **264. Biak toki berean lanean (BRA-018/054)**

Emaztearekin ateratzen hasi eta biak toki berean hasi ziren lanean

### **265. Juanito beti prest! (BRA-018/055)**

Enpresa Alemaniako enpresa batekin bazkide egin eta plantak egitera joateko eman zuen izena Juanitok

### **266. Berriz ere janarekin arazoak (BRA-018/056)**

Alemanian zeudela, eguerdian ostatu batera joaten ziren bazkaltzera baina goizean eta arratsean beraiek egin behar izaten zuten jatekoa

### **267. Alemaniako mugan arazoak (BRA-018/057)**

Alemaniar abiatu zirenean, Frantzia eta Alemaniaren arteko muga pasatzerakoan alemaniar poliziak koadrilako erdia jaitsi arazi egin zuen eta

gau hura kalaboetan eman zuten. Biharamunean enpresakoek konpondu zuten

**268. Lehen eguna lantegian (BRA-018/058)**

Alemania iritsi eta lantegian hasi ziren lehen egunean zuzendariak Juanito deitu zuen bere bulegora Berako bizimoduaz solasteko

**269. Sekulako eskaintza (BRA-018/059)**

Sekulan egin dioten eskaintzarik onena egin zioten lantegi hartan: bertan gelditu enkargatu eta interprete gisa. Baina ez zuen onartu

**270. Ez zuten arropa garbitzen (BRA-019/001)**

Iratin zeudela, arropa ez zuten garbitzen. Igandetan lana egiten zuten ordu bata arte eta arratsaldean lo. Galtzerdiak uda osoan behin garbituko zituzten eta galtzak eta atorra hilean behin gehienez

**271. Sutondoan lehortzen zen arropa (BRA-019/002)**

Arropa bustitzen bazen etxolako sutondoan lehortzen zen

**272. Binaka egiten zuten lo (BRA-019/003)**

Bakoitzak manta bakarra zuenez, binaka egiten zuten lo

**273. Txabola (BRA-019/005)**

Juanitok txabolaren barruko eta kanpoko deskribapena egiten du

**274. Euria gogorrena (BRA-019/006)**

Goizaldeko 4etan esnatu eta euria sumatzea izaten zen unerik gogorrena

**275. Bizimodu gogorra (BRA-019/007)**

Berak ez du bestelako arazorik izan, janarekin ezta ere, baina baziren gutxi jaten zutenak eta nahiko larri ibiltzen ziren erritmoari eusteko

**276. Lan istripu larririk ez (BRA-019/008)**

Berak ez du istripu larririk ezagutu. Berak belaunean egin zuen zauria behin eta astebete egon zen bajaran

**277. Zaurituak mandoz herrira (BRA-019/009)**

Norbait zaurituz gero, mandoz jaisten zuten herrira

**278. Asegurua zuten (BRA-019/010)**

Lan istripuetarako asegurua zeukaten

**279. Iratiko lan koadrilak (BRA-019/011)**

Zuhaitzak botatzen ibiltzen zirenen koadrila hamabi bat lagunek osatzen zuten. Biltzen zutenen koadrilak hogeikoak izanen ziren. Kablearekin beste koadrila bat ibiltzen zen eta herrian egurra neurrian moztzen zutenak beste bat

### **280. Kablea nola kargatu (BRA-019/012)**

Zuraren arabera izaten zen, handia bazen bakarra eta bestela bi batera lotzen ziren

### **281. Botatzea lanik makurrena (BRA-019/013)**

Denak ziren lan gogorrak, baina botatzaileena lanik gogorrena izanzen zen

### **282. Hurrengo urtean bakailaoa (BRA-019/014)**

Hurrengo urtean bakailaoa ematen hasi ziren... baina bera ez zen joan!

### **283. 50 urteko atzerapena (BRA-019/016)**

Juanitoren ustez 50 urteko atzerapena dugu hemen gauza guztietan. Adibide moduan aipatzen du Iratin aizkora eta arpana besterik ez zegoela eta Kanadara joan zelarik motozerraz egiten zutela lana

### **284. Jornaleko kontrabandista (BRA-019/018)**

Kontrabandoan ere baziren nagusiak eta langileak. Bera soldatapekoa izan da beti, nagusiak tratua egiten zuen eta beraiek garraiatu

### **285. Kontrabandoa boladetan (BRA-019/019)**

Bolada batean espartinak pasatzen ziren, milaka pare. Beste bolada batean almendrak

### **286. 50 kg-tako zakuak (BRA-019/020)**

50 kg-tako zakuak eramaten zituzten alde batetik bestera

### **287. 50 pezetako jorjala (BRA-019/021)**

Bidai bakoitzeko 50 pezetako jorjala ematen zieten. Lantegian lan egiten zutenek 10-15 pezetako jorjala zuten

### **288. Kontrabandoko istorioa 1 (BRA-019/023)**

Bi lagun Bidasoan ito zireneko istorioa kontatzen du

### **289. Kontrabandoko istorioa 2 (BRA-019/024)**

Guardia zibilek eskupekoa hartzen zuten beste aldera begiratzeko, baina kontrabandista guztiek ez zuten ordaintzen. Behin altoa eman eta tiro egin zioten kontrabandista bati eta hil egin zuten

### **290. Beste mutil bat hil zuten (BRA-019/025)**

Handik gutxira beste mutil bat hil zuten guardia zibilek, bizkarrean tiroa emanda

### **291. Berari ere tiro egin diote (BRA-019/026)**

Juanitori ere behin baino gehiagotan egin diote tiro

### **292. Kontrabandoko istorioa 3 (BRA-019/028)**

Normalean binaka joaten ziren. Guardia zibilekin topo egin zuen lehenengoan Juanito aitarekin zihoan

### **293. Kontrabandoko istorioa 4 (BRA-019/029)**

Beste behin ere paketea jaso eta berehala bota behar izan zuen. Paketea galduz gero ez zen soldata kobratzen

### **294. Harrapatutako paketeak enkantean (BRA-019/030)**

Guardia zibilek harrapatzen zituzten paketeak enkantean ateratzen zituzten eta sarritan jabeak berak erosten zituen

### **295. Etxaldekoak eta maizterrak (BRA-019/032)**

Gerra ondoren, baserri handi samar zutenak, etxaldekoak, dexente bizi izan ziren. Maizterrak, berriz, baserri txikiak ziren eta ez zen ailegatzten. Etxaldekoak ezberdintasun hori nabarmentzen saiatzen ziren gainera

### **296. Etxaldeko batekin anekdota (BRA-019/034)**

Etxaldeko batekin izandako anekdota kontatzen du

### **297. Etxaldekoak haien artean ezkontzen ziren (BRA-019/036)**

Etxaldekoak ez ziren maizterrekin ezkontzen, beste etxalde batekoekin ezkontzen ziren. Baserria ez zen puxkatzen, batendako gelditzen zen, baina horrek guraso eta ezkongabe ziren senideen kargu hartu behar zuen

### **298. Maizterrek ezin zuten alkate izan (BRA-019/037)**

Garaian alkatea izaten zen etxeak eta terreno handiak zituena, maizterrak ez

### **299. Maizterrak nagusien menpe (BRA-019/039)**

Errenta ordaintzeaz gain maizterrek nagusiarendako lanak egin behar izaten zituzten. Juanitoren familiaren kasuan sagarrak bildu eta Altzateko plazaraino eraman behar izaten zituzten

### **300. Baserri berrian baldintza berriak (BRA-019/040)**

Beste baserri batera joan ziren. Baserria hobea zen baina errenta gisa baserrian egiten zuten guztiaren erdia eman behar zioten nagusiari. Gainera administratzaile zorrotza jarri zien nagusiak

### **301. Artoa haiendako uzten zieten (BRA-019/041)**

Artoa haiendako uzten zien nagusiak baina, horren truke, nagusiarendako zerri bat gizendu egin behar zuten

### **302. Errenta eta baserri aldaketa San Martin egunean (BRA-019/042)**

Errenta San Martin egunean ordaintzen zen eta baserri aldaketa ere San Martin egunean egiten zen. Nagusiak ez zituen inoiz bidali baina bronkaldiren bat bai

### **303. Laguntzeko eskatzen zieten (BRA-019/043)**

Noizean behin nagusiek lanen batean laguntzeko eskatzen zieten maizterrei

### **304. Fruta eskas (BRA-019/045)**

Fruta eskas bazen. "Naranjero" deitzen zuten bat hasi zen ekartzen eta utzi behar izan zuen, mutikoek asaltatu egiten baitzioten kamioa. Baratzetan ere sartzen ziren lapurtzera baina, guardia zibilek harrapatuz gero jipoi handia ematen zieten

### **305. Oinutsik ibili (BRA-019/046)**

Beraiek oinutsik ibili izan dira baina abarkak lurrez beteak ez ibiltzeko. Aditu du lehen bazela beti oinutsik ibiltzen zen gizon bat

### **306. Euria eta oinetakoak (BRA-019/047)**

Zapatak luxua ziren, espartinekin ibiltzen ziren beti. Geroxeago kautxuzkoak erabiltzen hasi ziren

### **307. Gerra garaian "pelaio"etan (BRA-019/049)**

Gerra hasi zelarik 7 urte zituen eta "pelaio"etan sartu behar izan zuen, izan ere, errazionamendua zegoenez, uko eginez gero kartila kentzen ahal zioten gurasoei. "Pelaio"ak militarrez jantziak ibiltzen ziren eta igandetan desfilea egiten zuten

### **308. Anekdotak pelaioetan (BRA-019/050)**

Juanitok pelaioetan ibiltzen zeneko berari gertatutako anekdota bat kontatzen du

### **309. Beste anekdota bat pelaioetan (BRA-019/052)**

Juanitok kontatzen du nola eta zergatik moztu zieten ilea zeroan zigor gisa

### **310. Auzolana (BRA-019/054)**

Bidea moldatu behar bazen auzokoen artean moldatzen zen. Etxaldekoek edo posiblea zuenak ordezkoa bidaltzen ahal zuen zerbait ordainduta. Auzoka egiten zen eta etxe bakoitzeko batek joan behar zuen

### **311. Guztiak joaten ziren (BRA-019/055)**

Normalean jende guztia joaten zen eta ezinezkoa izanez gero lagun bati erranen zion bere partez joateko

### **312. Herriak tragoa ematen zuen (BRA-019/056)**

Herriak tragoa ematen zuen, baina trago bakarra

### **313. Festa egiteko modua (BRA-019/057)**

Arratsaldeko 5ak aldera jaisten ziren herrira pilotan edo futbolearen aritzera. Igandean dantza lotuan aritzen ziren

### **314. Garizuman musikaririk ez (BRA-019/058)**

Garizuma garaian ez zen musikaririk izaten eta luzea egiten zen

### **315. Besta bai baina argitu orduko etxera (BRA-019/059)**

Aitak honela erraten zien: besta egizue, baina argitu orduko etxera. Horren inguruko anekdota bat kontatzen du

### **316. Dantzan ligatu (BRA-019/060)**

Dantzan ligatzen zuten baina orain baino askoz prozesu luzeagoa izaten zen

### **317. Bi neskarekin batera (BRA-019/062)**

Bi neskarekin batera ibili zen, herriko batekin eta Arantzako batekin. Gero kanpora lan egitera joan zen eta bueltan oraingo emaztearekin hasi zen serio

### **318. Gaur egun oso diferentea (BRA-019/063)**

Gaur egun oso diferentea omen da, lehenago neska etxera laguntzeko konfiantza minimo bat behar zenuen

### **319. Haurdun geldituz gero ezkondu (BRA-019/065)**

Neska haurdun geldituz gero, normalean, ezkondu egiten ziren. Halere izan dira ama ezkongabe gelditu zirenak. Horiek gorriak ikusten zituzten

### **320. Luis Marianoren pelikula Lesakan (BRA-019/067)**

Luis Marianoren "El cantor de Mexico" pelikulako irudi batzuk Lesakan grabatu zituzten 1956an. Egun hartan guardia zibilarekin gertatutako anekdota kontatzen du

### **321. Beste anekdota bat guardia zibilarekin (BRA-019/068)**

Berako bestetan guardia zibilarekin gertatutako beste anekdota bat kontatzen du

### **322. Lau errota (BRA-019/069)**

Juanitok lau errota ezagutu ditu herrian. Bakoitza non zegoen zehazten du

### **323. Olentzero (BRA-020/001)**

Olentzero Eguberri bezperan egiten zen. Diru-eskean ibiltzen ziren herri guztian zehar kantari. Olentzeroarena haietako batek egiten zuen

### **324. Olentzeroren kankak koroan (BRA-020/002)**

Gure-Txokoa elkartekoek koroan kantatzeko prestatzen zituzten abestiak. 3 kantu izaten zituzten

### **325. Gabon-kanta (BRA-020/004)**

Gabon-kanta bat kantatzen du Matiasek

### **326. Olentzero buru-handia kanta (BRA-020/006)**

"Olentzero buru-handia" kanta abesten du Matiasek

### **327. Olentzero bakarra (BRA-020/008)**

Olentzero bakarra ateratzen zen eta denak horrekin ibiltzen ziren

### **328. Betidanik ezagutu du Olentzero (BRA-020/009)**

Betidanik ezagutu du eta bere aitaren denboran ere berdin egiten omen zen

### **329. “Dios te salve” urte-zaharrea (BRA-020/010)**

Urtezahar egunean “Dios te salve” egiten zen. Koadrilak ibiltzen ziren baserriz baserri bertsoka eta eskean. Herrian, aldiz, kantu bakarra erabiltzen zuten

### **330. “Dios te salve” kantua (BRA-020/012)**

Matiasek “Dios te salve”n kantatzen zuten abestiaren pasarteren bat kantatzen du

### **331. Sosa eskatzen zuten (BRA-020/014)**

Koadrilak ibiltzen ziren eskean eta sosa eskatzen zuten, janaririk ez. Bertsolariak koadriletakoak izaten ziren edo alde zuzenetik prestatutako bertsoak

### **332. Errege bezperako kabalgata (BRA-020/015)**

Neskek eta emakume gazteek prestatzen zuten desfilea eta hagitz polita izaten zen

### **333. Ortzegun-gizen eguna, “Peregrino eguna” (BRA-020/016)**

“Peregrino eguna” egiten zen. Eskolako haurrak goizean ibiltzen ziren eskean, denek batera herri osoa zeharkatzen zuten. Arrautzak, sosa... denetatik ematen zuten

### **334. Eskatzeko formula (BRA-020/017)**

Matiasek gogoratzen du hurrek eskean erabiltzen zuten esaldia

### **335. Kaldereroak otsailean (BRA-020/018)**

Kaldereroak inauteak baino 15 egun lehenago egiten ziren. Inauteen iragarpena izaten zen

### **336. Kaldereroetan ijitoz jantziak (BRA-020/019)**

Kaldereroetan ijitoz mozorrotzen ziren eta herrian bueltara ibiltzen ziren baina ez eskean

### **337. Kaldereroen kantuak eta musika (BRA-020/020)**

Kantari joaten ziren (zatitxo bat kantatzen du). Gainera mailua eta padera jotzen zituzten

### **338. “Totono” izeneko burua (BRA-020/022)**

“Totono” izeneko omen zen kaldereroen burua.

### **339. Kaldereroen ohitura berezia (BRA-020/023)**

Ijitoen moduan, jakiteko zenbat urte eman behar zuten elkarrekin, lurrezko eltzea hartu eta airean botatzen zuten

### **340. Inauteak 3 egunez (BRA-020/025)**

Igandea, astelehena eta asteartean izaten ziren inauteak. Gerra baino lehen hurrengo igandean egiten omen zen ere eta “domingo piñata” deitzen omen zioten, baina Matiasek ez du ezagutu eta ez daki zer egiten zen

### **341. Inauteetako igandeko programa (BRA-020/026)**

Goizean eskean aritzen ziren gero bazkaldu eta gero parranda. Igandean herria eta auzoen barna ibiltzen ziren baina bakarrik bandakoak eta mozorrotu gabe

### **342. Inauteetako asteleheneko programa (BRA-020/027)**

Astelehenean denak ibiltzen ziren eta baserri baserri ibiltzen ziren. Baserri batean bazkaldu eta arratserako herrira jaisten ziren. Mozorrotzen ziren baina bakoitza bere gisara, konplikazio handirik gabe

### **343. Inauteetako astearteko programa (BRA-020/028)**

Asteartean eskean ez ziren ibiltzen, bazkaldu eta gero parranda egiten zuten

### **344. Inauteak galaraziak ziren (BRA-020/029)**

Matiasen garaian inauteak galaraziak ziren eta bandakoak ibiltzen ziren bakarrik. Aurpegia ongi margotzen zuenak kasu egin behar zuen, baten bat espetxean sartu baitzuten

### **345. Inudeak eta artzaiak (BRA-020/030)**

Matiasen orduko argazkiak ikusi ditu baina denak mutilak ziren, batzuk neskaz jantziak. Jantzera berdintsua izaten zen. Inauteetako igandean ateratzen ziren dantzan

### **346. Udalak antolatzen zuen (BRA-020/031)**

Udalak antolatzen zuen besta. Orain ezberdin egiten da, orain bilera deitzen da eta gazteek parte hartzen dute antolakuntzan

### **347. Garai bateko Sanestebanak (BRA-020/032)**

Matiasen beti abuztuan ezagutu ditu Sanestebanak, baina garaian Eguberri eguneko biharamunean izaten omen ziren

### **348. Sanestebanetako programa (BRA-020/033)**

Bestetan, ilunabarrean erraldoiak herrian barna ateratzen ziren musikarekin eta 10etan plazan dantzaldia izaten zen. Bezpera egunean plazako musika gaueko 12etan bukatzen zen eta beste egunetan 1etan

### **349. Musika banda (BRA-020/034)**

Matias 1943an hasi zen Musika Bandarekin jotzen. Orduan balsak, pasodobleak... jotzen zituzten

### **350. Dantza lotuekin kontuz (BRA-020/035)**

Beran denetatik jo izan dute beti baina tokatu izan zaie kanpora joatea jotzera eta dena soltea jo behar izatea

### **351. Txupinazoa bezpera egunean (BRA-020/036)**

Txupinazoa arratseko 6,30ak aldera izaten zen bezpera egunean. Gero herrian buelta ematen zuten musikarekin, afaldu eta afal ondoren musika plazan

### **352. Biharamuneko programa (BRA-020/037)**

Goizean, txistulariekin, dianak jotzen zituzten eta gero meza nagusira joaten ziren herriko agintari guztiekin. Meza eta gero Berako Makil-dantza dantzatzen zen eta gero bertsolariak

### **353. Berako makil-dantzak (BRA-020/038)**

Hamar laguneko taldeak dantzatzen ditu eta hamar dantza dira. Jankera deskribatzen du

### **354. Bordon-dantza (BRA-020/040)**

Jankera deskribatzen du Matiasek eta aipatzen du Lesakako dantza bezala dantzatzen dela, baina makila erabili beharrean kordoi bat erabiltzen dutela

### **355. Bandera-dantza (BRA-020/041)**

Korpus (Bestaberri) eguneko prozesioan dantzatzen da bandera-dantza

### **356. Korpus eguna (BRA-020/042)**

Matiasek azaltzen du nola apaintzen den herria Korpus eguneko prozesiorako

### **357. Korpus eguneko prozesioa (BRA-020/043)**

Elizatik Altzateraino joaten zen. Bandera-dantza hiru tokitan dantzatzen zen. Prozesioa bukatuta elizan gauzak utzi eta txistulari eta bandera eramaten zuenari ostatuan bazkaltzeko ematen zitzaien

### **358. Bandera elizara (BRA-020/044)**

Ez da ongi gogoratzen, baina Matiasek aipatzen du prozesioa eta gero bandera elizara eramaten zela hainbat egunez

### **359. Bestak (BRA-020/046)**

Jan eta edan egiten zuten, orain bezala! Orain ez bezala, lehenago familia elkartzen zen

### **360. Lehen lehenago erretiratzen ziren (BRA-020/047)**

Lehen 2etarako erretiratzen ziren guztiak eta, horregatik, dianetan elkartzen ziren gero. Gaur egun ez duzu inor ikusten dianetan

### **361. Santu guztien egunaren bezpera (BRA-020/049)**

Santu guztien egunaren bezperan haurrak diru eskean ibiltzen ziren, "marautxo" eske

### **362. Santu guztien egunean "apeza-arrautze" (BRA-020/050)**

Santu guztien egunean "apeza-arrautze" egiten zen: urtean zehar jasotako diruaren soberakinak banatzen zituzten apezek airera botata

### **363. Musika Bandaren historia (BRA-020/052)**

Errepublikara garaietan bi musika banda izan omen ziren baina Matiasen bakarria ezagutu du. Bera gerra aurretik hasi zen ikasten eta gerra iritsi zenean desegin zen. Hamasei bat urte zituela berriro sartu zen eta, orduan, 26 bat lagun ziren

### **364. Entseguak (BRA-020/053)**

Entseguak egiteko hiru edo lau tokitara pasatu dira baina normalean Herriko Etxean

### **365. Instrumentuak (BRA-020/054)**

Instrumentu guztiak jotzen zituzten: baxuak, tronboiak, klarineteak, saxofoiak, tronpetak,...

### **366. Orkestrarekin toki askotan (BRA-020/056)**

Bandarekin, gehienbat, herrian jo dute, orkestrarekin, aldiz, toki askotan ibili dira

### **367. Gure Txokoaren sorrera (BRA-020/058)**

Futbolaren inguruan hasiko zen ziurrenik baina denetarik egin du: futbola, kulturala, liburutegia, pilota, festak, korua, dantzak, txistuak, txirrindulariak,...

### **368. Berehala bataiatu (BRA-020/060)**

Lehenengo denboretan jaio eta biharamunean bataiatzen ziren haurrak

### **369. Bataioa (BRA-020/062)**

Atautxi eta amautxia joaten ziren, aita ere joanen zen. Mutila baldin bazen atautxiak paratzen zion izena eta neska bazen amautxiak. Elizatik ateratzerakoan atautxiak sosa botatzen zuen eta gero bazkaltzera joaten ziren

### **370. Pregua (BRA-020/063)**

Ezkondutako baino lehen egiten zen, ezkontzaren kontra norbaitek zerbait izanez gero errateko, salaketa gisa-edo

### **371. Toberak ordaindu behar ziren (BRA-020/064)**

Ez zitzaion mundu guztiari jotzen, ordaintzen zuenari bakarrik

### **372. Noiz jotzen ziren toberak (BRA-020/065)**

Goizean, aldeztu aurretik apaindutako palanka paratzen zen atean. Ilunabarrean bertsoak botatzen zitzaizkion ezkontutako behar zuenari eta gero gazta eta ogia banatzen zuten

### **373. Nola jotzen ziren toberak (BRA-020/066)**

Matiasen azaltzen du nola jotzen ziren toberak eta bertsoan aritzen ohi zirenen izena aipatzen du

### **374. Elizakoak (BRA-020/068)**

Norbait hiltzear zegoelarik apeza eta sakristaua etxera joaten zitzaizkion. Farol bat eta kanpai batekin joaten ziren eta jendea belauniko jartzen zen haiek ikusterakoan. Aitorpena egiten zuten eta komunioa ematen zioten

### **375. Hiletak (BRA-020/070)**

Hiru hileta klase izaten ziren. Primerakoetan hiru apeza izaten ziren, argi guztiak piztuak,... Gainerakoetan gauza gutxiago izaten ziren

### **376. Argi-olata edo ofrendak (BRA-020/071)**

Elizako ospakizunetan ogia eramaten zen, olatak

### **377. Makina olata janak (BRA-020/072)**

Elizan kantatzen zuten haurrei olatak eta ezta ematen zizkien apezak

### **378. Opariak apezari eta serorari (BRA-020/073)**

Apezari denetatik oparitzen zioten. Serorek ere zerbait jasotzen zuten beren zerbitzuen truke

### **379. Seroren lana (BRA-020/075)**

Serorak eliza garbitzen zuen

### **380. Ezkilak jo (BRA-020/076)**

Beran bazen "kanpanero" deitzen zuten kanpotar bat. Egunean hiru aldiz jotzen zuen ezkila eta gora igo behar izaten zuen. Geroxeago soka bat paratu zioten eta sakristiatik jotzen zuen

### **381. Ezkila aditu eta otoitz egiten zuten (BRA-020/077)**

Jende askok ezkila sumatu eta kapela kendu, lana utzi eta otoitza egiten zuten

### **382. Gerrako presoak lanean (BRA-020/079)**

Gerrako presoak errepideak egiten ibili ziren. Beran Ibardinerako pista egin zuten eta Lesakan ere denbora luze eman zuten

### **383. Presoak jo egiten zituzten (BRA-020/081)**

Matiasek ikusi du presoak jotzen, lan egin nahi ez zuena jo egiten baitzuten zaindarien. Haiei ez zieten hurbiltzen uzten

### **384. Presoen bizi-baldintzak (BRA-020/082)**

Preso bakoitzari ematen zioten bi xafla bere etxola egiteko. Etxolak zeuden ingurua alanbraz inguratzen zuten. Gosea pasatzen zuten. Soldadu arropak janzten zituzten

### **385. Euskararen egoera Beran (BRA-020/084)**

Beran azkar galdu zen euskara, izan ere karabinero asko izan da herrian eta horrek eragina handia izan du. Euskaraz egiten zuenari irri egiten zioten herrian, orduan denek erdaraz egiten zuten. Orain gauzak aldatu dira eta euskara berreskuratu da

**386. 90 urte ditu (BRA-021/001)**

Duela 90 urte jaio zen gaur egun bizi den etxe berean

**387. 11 urterekin utzi zuen eskola (BRA-021/002)**

7 urterekin hasi eta 11 urte zituela utzi zuen eskola umea zaintzeko

**388. Dotrina (BRA-021/003)**

Ordu bateko bidea zuen dotrina ikastera joateko. Ordubetez ikasten zuten

**389. Oinutsik ibiltzen zen (BRA-021/004)**

Maiz ibili da oinutsik. Dotrinara joaten zenean ahizparekin aldatzen zituen espartinak

**390. Zenbaki ezberdinetako oinetakoak (BRA-021/006)**

Hurtzain joan zelarrik, etxeko nagusiak zenbaki ezberdinetako zapatak erosi zizkion. Anaiari, berriz, oin berekoak

**391. Jaunartzeko oparia (BRA-021/008)**

Amatxik arropa politak oparitu zizkion jaunartzerako. Ahizpak eraman zituen haur batendako politegiak zirelakoan

**392. Aitaren oinetakoak (BRA-021/010)**

Aitak erabiltzen zituen oinetakoak deskribatzen ditu, "eskapoiak"

**393. Aitak egurra saltzen zuen (BRA-021/011)**

Zuhaitzak erosi, egurra egin eta, gero, saldu egiten zuen aitak

**394. Lanerako behiek esne gutxi (BRA-021/013)**

Hiru edo lau behi izaten zituzten, baina lanerako erabiltzen zituztenez esne gutxi ematen zuten

**395. Beran saltzen zuten egurra (BRA-021/014)**

Beran saltzen zuten egurra eta iratzea. Nornahik erosten zuen

**396. Amak odolkiak egiten zituen (BRA-021/015)**

Amak oso odolki onak egiten zituen eta etxez etxe ibiltzen zen odolkiak egiten. Pakitak azaltzen du nola egiten zituen

**397. Ongi apaindua joaten zen ama (BRA-021/016)**

Arropa garbi-garbia eta ongi orraztua joaten zen ama etxeetara

**398. Odolkiak ordainean (BRA-021/017)**

Amari odolkiak eta lukainkak ematen zizkieten egindako lanaren ordainez

**399. Lukainkak nola egin (BRA-021/018)**

Amak lukainkak nola egiten zituen azaltzen du

#### **400. Birikak (BRA-021/019)**

Birikak zer ziren eta nola egiten ziren azaltzen du

#### **401. Lukainka eta solomoa kontserban (BRA-021/020)**

Lukainka eta solomoa kontserban jartzen zuten, olioan sartuak eta urte osoa irauten ahal zuten

#### **402. Zerria hiltzeko ilargiari begiratu (BRA-021/021)**

Txerria ilargiaren beherapenean hiltzen zuten

#### **403. Zerri puxkak banatu (BRA-021/023)**

Zerri puxkak partitzera denek joan nahi izaten zuten, saria ematen baitzuten. Puxkak aza-hostoan jartzen zituzten

#### **404. Labrantza gutxi zuten (BRA-021/025)**

Lurra bazuten ere, labrantzatik baino, egurraren salmentatik bizi ziren

#### **405. Labrantzako lana (BRA-021/026)**

Labrantzako lana nola egiten zuten azaltzen du

#### **406. Lan anitz bizkarka (BRA-021/027)**

Lan anitz bizkarka egiten zen: gorotzak atera...

#### **407. Lurra altxatu (BRA-021/028)**

Aitzurraz aritzen ziren lurra altxatzen

#### **408. Patatak saldu (BRA-021/029)**

Patatak soldaduei saltzen zizkieten, patata bere denboran jaten ez bada zimur-zimurra geratzen baita

#### **409. Etxea erosi eta obra egin (BRA-021/031)**

Maizter egon ziren, gero etxea erosi zuten eta dena berri egin zuten

#### **410. Maizterrak eta nagusiak (BRA-021/032)**

Diruz ordaintzen zuten, ez zuten lanik egiten nagusiarentzat; hala ere lan bat egiteko eskatuz gero, egin egiten zioten

#### **411. Aziendaren bat saldu errenta ordaintzeko (BRA-021/033)**

Aratxe edo zerri bat saltzen zuten urteko errenta ordaintzeko. Zenbaitetan zerria nagusiarekin erdibana egiten zuten

#### **412. Nagusiekiko harremanak (BRA-021/034)**

Pertsonaren arabera izaten zen baina, orokorrean, nagusiekiko harremanak ez ziren txarrak izaten.

#### **413. Maizterren mugak (BRA-021/035)**

Maizterrek ezin zuten alkate izan, ez ziren etxaldeetakoekin ezkontzen... Halere, Pakitak etxaldeko eta maizterren arteko ezkontza bat aipatzen du

#### **414. Irunera neskame (BRA-021/036)**

Irunen ez zegoen hainbesteko ezberdintasunik maizter eta etxaldekoen artean, horregatik Arantza eta Igantziko neska asko joaten ziren Irunera neskame

#### **415. Dendara sosik gabe (BRA-021/038)**

Urte guztiko erosketak zorretan uzten zituzten eta zerrikumeak saltzerakoan kentzen zuten zorra.

#### **416. Ogia mugaz bestaldean (BRA-021/039)**

Bolada batean ogia eta taloa mugaz bestaldean erosten zuten. Etxean ere egiten zuten baina ez zen iristen urte guttirako

#### **417. Anaia 20 urtez ohatzean (BRA-021/040)**

Anaia 20 urtez egon zen ohatzean. Jende asko etortzen zitzaion bisitan. Tabakoa ekartzen zioten, akordeoia... oso maitatua zen

#### **418. Kontrabandoan ari zela izan zuen istripua (BRA-021/041)**

Kontrabandoan aritzen zen anaia eta behin mendian lokartu zen, izerditan lokartu ere. Esnatzerakoan hotza eta ihintza hezurretan sartua zuen jada... eta 20 urte eman zituen ohatzean

#### **419. Anaiak eduki zituen laguntzak (BRA-021/042)**

Udaletik 8 duro eman zizkioten behin. Bestela jendea ibiltzen zen dirua biltzen beharrezkoak zituen botikak ordaintzeko

#### **420. Gertaera garrantzitsuetan bisita egiten zioten (BRA-021/044)**

Ezkondu baino lehen eta ezkondu eta gero bisitan etortzen zitzaizkion bikoteak, baita umea izaten zutenean. Soldadu joan behar zutenek bergauza egiten zuten... Inauterietan musikariak etortzen ziren eta gelan bertan dantzatzen zuten. Ijitoak ez beste guztiak pasatzen ziren anaiaren gelatik

#### **421. Anaiak egunean 40 zigarro erretzen zituen (BRA-021/045)**

Anaiak 40 zigarro erretzen zituen egunean. Pizten lagundu behar zitzaion eta beti faborez eskatzen zuen. Anaiaren argazkia erakusten diote kamerari

#### **422. Igandetako meza (BRA-021/046)**

6etako mezara joateko goizeko 4,30etan altxatzen ziren. Ilun zegoenean lastoaz egiten zuten argia

#### **423. Bidean aldatzen zituzten espartinak (BRA-021/047)**

Bidean espartinak aldatu eta mantelina paratzen zuten

#### **424. Elurra izan ala ez joaten ziren (BRA-021/048)**

Elurra egiten zuelarik ere joaten ziren mezara. Gizonek kautxuzko botak izaten zituzten

#### **425. Kontrabandoa (BRA-021/050)**

Denetarik pasatzen zen: ogi-irina, kafea, azukrea, puntilla,azienda. Portugesak asko pasatzen ziren ere

#### **426. Kontrabandoa boladaka (BRA-021/051)**

Boladak izaten ziren kontrabandoan, batzuetan aziendak, besteetan gurpilak... Pakita gurpilen kontrabandoan aritu da senarrarekin

#### **427. Emakumeak kontrabandoan (BRA-021/052)**

Paketeekin aritzen ziren ere: butanoa, behien uztarriak... Gona azpian sakarina ibiltzeko zaku eginak zituzten eta 100 baino gehiago ekartzen ahal zituzten batera. Behin karabinero batek errandakoa aipatzen du

#### **428. "Eltzetzuak" eta karabineroak (BRA-021/053)**

Nahiz eta behin baino gehiagotan harrapatu, ez diote inoiz ezer kendu

#### **429. Ama ere kontrabandista (BRA-021/054)**

Ama ere kontrabandoan aritzen zen. Bien anekdota bat kontatzen du

#### **430. Ator zuria seinale gisa (BRA-021/055)**

Bidea libre zegoela erakusteko amak ator zuria paratzen zuen

#### **431. Karabineroa haserre (BRA-021/056)**

Lasterka ihes egin zion karabinero bati eta gero toki guztietan ikusten zuen

#### **432. Azukre zakua karabineroak gordetu (BRA-021/057)**

Koinatuak 10 kiloko azukre zakua galdu eta gero karabineroaren etxeko balkoian ikusi zuen

#### **433. Umetatik laguntzen zuten kontrabandoan (BRA-021/058)**

7 edo 8 urterekin hasi zen bera kontrabandoan laguntzen

#### **434. Kafea, azukrea eta petrolioa Saratik (BRA-021/059)**

Kafea, azukrea eta petrolioa Saratik ekartzen zituzten. Ama oinutsik joaten zen

#### **435. Petrolioa argia egiteko, kafea saltzeko (BRA-021/060)**

Petrolioa argia egiteko erabiltzen zuten. Kafea inguruko etxekoei saltzen zieten

#### **436. Anaia zela-eta, karabineroak onak ziren haiekin (BRA-021/061)**

Karabineroak anaia ikustera joaten ziren ere eta haiekin beti ongi portatu dira

#### **437. Eskaleak (BRA-021/062)**

Eskaleak ere joaten ziren etxera. Auzoan baziren karabineroek eta eskaleek lo egiteko etxeak. Karabineroak ez ziren oraingoak bezala, apalagoak ziren

#### **438. Haurrak etxean izaten ziren (BRA-021/064)**

Haurrak etxean izaten ziren. Herriko andre bat etortzen ohi zen laguntzera. Pakitaren ume txikienaren kasuan medikua abisatu behar izan zuten, egun berean bi erditze izan zituelako emaginak

#### **439. Elizan sartzea (BRA-021/065)**

Haurra izan eta gero, elizan sartu ahal izateko, atean belauniko jarri eta apezari helduta sartu behar zen

#### **440. Elizan sartu bitartean (BRA-021/066)**

Haurra izan eta elizan sartu bitartean ez zen libre ateratzea. Etxetik atera ahal izateko teila buruan paratu behar zuten

#### **441. Atso bisitak (BRA-021/067)**

Bataio ondoko igandea "atso bisita" egiten zen. Familiako eta auzoko emakumeak etortzen ziren eta festa ederra egiten zuten kantuz eta dantzan. Oiloa ekartzen ohi zuten salda egiteko

#### **442. Arrigoak edo "esposteko-puxkak" (BRA-021/068)**

Maizterren arrigoak (arreoak) apalak izaten ziren: maindireak eta mantelak. Lagunei erakusteko ohitura zegoen eta prebu egunean egiten zen: neskak joaten ziren merendatzera eta gizonak afaltzera

#### **443. Toberak (BRA-021/069)**

Neskak merendatzetik etxera abiatzen zirenean jotzen zuten tobera. Goizean beztitzen zuten palanka eta arratsean jo eta kantatu egiten zuten

#### **444. "Flor de mayo" (BRA-021/071)**

Amabirjinari kantatzen zioten abestia, erdaraz kantatzen zuten

#### **445. Neska gazteak zuriz jantziak (BRA-021/072)**

Neska gazte guztiek hartzen zuten parte, zuriz jantziak eta elorri loreez eginiko koroekin. Maiatzeko igandetan egiten zen eta aldiro 3 neska joaten ziren

#### **446. Bizardun xelebrea (BRA-022/001)**

Pakita herrian ibiltzen zen Azkaineko gizon bizardun xelebrea batez solasten da. Zenbait anekdota kontatzen du eta inguruetan amabirjinak paratzen zituela azaltzen du

#### **447. Behi esneaz egindako gazta (BRA-022/002)**

Behi esneaz egindako gazta

#### **448. Behi umatu berrien esnea (BRA-022/003)**

Batzuek gustukoa zuten esne hori, oritza (kalostro)

#### **449. San Silvestretan kantari (BRA-022/005)**

San Silvestre egunean eskean eta kantari ibiltzen ziren auzoko gazteak eta zaharrak. Kantatzen ziren abestiak oroitzen ditu

#### **450. Auzoko lehendabiziko telefonoa (BRA-022/007)**

(Irudian agertzen ez den eta oso gaizki entzuten zaion ahizpak kontatzen du) Auzoan sartu nahi omen zuten telefonoa eta kabina egiteko gastu handia omen zenez, etxean paratu omen zuten telefonoa

#### **451. Urik ez etxean (BRA-022/008)**

Ura etxe ondotik pasatzen den errekatik hartzen zuten. Pixarrak, pedarrak... erabiltzen zituzten ura ontziratzeko. Aziendak errekatik edaten zuen

#### **452. Emakumeek buru gainean eramaten zituzten gauzak (BRA-022/009)**

Zaharrek kontu gabe eramaten zituzten gauzak buruan, berak kontu behar zuen

#### **453. "Tirakallua" (BRA-022/011)**

Zornea ateratzeko erremedioa omen da "tirakallua". Auzoko batek egiten omen zuen. Pakitak osagai batzuk aipatzen ditu

#### **454. Oheratzerako otoitza (BRA-022/012)**

Oheratzerakoan egiten zuten otoitza oroitzen du. Ohera joaterakoan "Jaungoikoak gabon" erraten zuten eta jaikitzerakoan "Jaungoikoak egunon"

#### **455. Soldadu sei urtez (BRA-023/002)**

Gerra denboran soldadu joatea tokatu zitzaion. Urtebete eman ondoren gerra bukatu eta koartelera eraman zituzten, Valentziara. Han 3 urte egin ondoren etxera itzuli zen baina handik gutxira, II. Munduko Gerraren garaian, berriro mobilizatu zituzten eta beste bi urte egin behar izan zituen

#### **456. Gerra denboran Andaluzian (BRA-023/004)**

Gerran pasatu zuen urtean, gehienbat, Andaluzian ibili zen

#### **457. Trintxerak egiten ibili zen (BRA-023/006)**

Ingeniarietan ibili zen, trintxerak eta alanbradak egiten. Aitzurraz eta palaz egiten zituzten

#### **458. Kiderrak egiten (BRA-023/007)**

Zurginik ez zen eta aitzurrendako kiderrak egiteko deitu zioten

#### **459. Euskaraz aritzea debekatua (BRA-023/008)**

Komandanteak errieta egin zion apezari euskaraz aritzeagatik

#### **460. Maleta eta armairua egin (BRA-023/009)**

Apezarekin batera maleta egin zuen. Gero fusilak gordetzeko armairua egiteko eskatu zion

#### **461. Trasladoa (BRA-023/010)**

Handik mugitzean frentean ibili ziren alanbradak paratzen

#### **462. Iruñetik joan zen taldearen izena (BRA-023/011)**

Iruñetik joan zen taldeari "2º Grupo de Zapadores y Minadores de Pamplona" izena paratu zioten. Gutunetan hori erabiltzen zuten

#### **463. Jatekoa ez zuten faltan (BRA-023/012)**

Jatekoa ez zuten faltan baina kontserba asko jaten zuten

#### **464. Valentzian sukaldean eta jantokian lanean (BRA-023/013)**

Zurgindegian edo sukaldean lan egiteko aukera eman zioten eta sukaldea aukeratu zuten. Sukaldari-burua kalamidade bat zen eta jantokira pasatzea erabaki zuten

#### **465. Besteek gosea pasatu zuten (BRA-023/014)**

Besteek gosea pasatu zuten. Teruelen izan zirenekoa gogoratzen du

#### **466. Garbitasuna (BRA-023/016)**

Garbitasuna desastre bat zen. Arropak eman garbitzeko eta ondoren edozeinen arropak jasotzen ahal zenituen. Valentzian zegoela Berako emakume bati eramaten zion garbitzeko arropa. Garbitzeagatik ez zuten ordaintzen baina trukean olio eta xaboa eramaten ohi zion

#### **467. Gerra denboran garbitasuna (BRA-023/017)**

Gerra denboran bakoitzak bere arropa garbitzen zuten. Galiziar baten anekdota kontatzen du

#### **468. Zorriak (BRA-023/018)**

Milioika zorri zeuden, leku guztietan izaten ziren eta zaila zen garbitzea. Valentziako kuartela zimitzaz betea zegoen, orduan kuartela itxi eta desinfektatu egin zuten

#### **469. Bi aldiz hartu du parte fusilamenduetan (BRA-023/019)**

Beraien lana trintxerak egitea bazen ere, bi alditan hartu du parte fusilamenduetan

#### **470. Ezin uko egin fusilatzera joateari (BRA-023/020)**

Ezin zitzaion uko egin fusilatzera joateari, behin ordezkoa bidali zuten eta, ondoren, bitan joan behar izan zuten

#### **471. Fusilamenduak (BRA-023/021)**

Fusilamenduak nola egiten zituzten deskribatzen du

#### **472. Errekisak (BRA-023/022)**

Valentzian ez ziren izan, aldiz Bera inguruan bai, etxe guztietatik eraman zuten zerbait: behia,...

#### **473. Baimenak (BRA-023/023)**

Etxera joateko baimenak 12 egunetakoak izaten ziren

#### **474. Kontrabandistak harrapatuz gero 15 egunetako baimena (BRA-023/025)**

1943. urtean Gipuzkoan zegoela, kontrabandistak harrapatuz gero 15 egunetako baimena eskaini zien tenienteak. Boluntario joan zen baina azkenean harrapatutako kafea tenienteak gorde eta baimena ukatu zien

#### **475. Gerrako presoak (BRA-023/027)**

Gerrako presoak langile batailoietan aritzen ziren bideak egiten. Hondarribitik Lezorako bidea beraiek egina omen da

#### **476. Fusilatuak batera lurperatu (BRA-023/028)**

Aitaren senidea ehorzle aritzen zen eta kontaktzen zuenaren arabera gauez fusilatzen zituztenak hobi komunetan lurperatzen zituzten

#### **477. Oiartzunera zaurituen bila (BRA-023/029)**

16 urte zituela Lesakatik Oiartzunera joaten zen, han gerrako zaurituak gurdian kargatu eta Lesakara ekartzen zituzten

#### **478. División Azul (BRA-023/030)**

División Azul izenekoa sortu zen alemaniarrek laguntzeko. Garai hartan bera soldadu zegoen. Alistatzea zozketa bidez eginen zutela erran zuten, hori dela-eta bertan ziren 10 euskaldunek ihes egiteko plana prestatu zuten. Azkenean ez zieten agindu joateko eta ezerezean gelditu zen

#### **479. División Azul-ean jende asko hil (BRA-023/031)**

Jende asko hil omen zen División Azul-ean, baina ez zuten erraten zenbat. Eibarko bizilagun baten kasua aipatzen du: joan eta berehala zauritu eta hanka moztu zioten

#### **480. Erreketeak (BRA-023/033)**

Erreketeak soldaduak bezala ziren, karlistak eta boluntarioak. Batzuk erreketeak eta beste batzuk falangekoak ziren. Errekete gehienak Erribera aldetik zetozen

#### **481. Gerrako "madrinak" edo amabitxiak (BRA-023/034)**

Frentean zirelarik soldadu-kideen arrebei edo ezagunei idazten zieten. Gehienetan ez zuten erantzunik jasotzen baina zenbaitetan dirua ere bidaltzen zieten

#### **482. Kontrabandoa, bizitzeko laguntza (BRA-023/036)**

Kontrabandoak bizitza aurrera ateratzen laguntzen zuen. Errekisa asko izaten zen

### **483. Gehienetan ez zekiten zer mugitzen zuten (BRA-023/038)**

Kontrabandoan aritzen zirelarik, gehienetan ez zekiten zer mugitzen zuten alde batetik bestera

### **484. Kontrabandoa soldadu denboran (BRA-023/040)**

Gipuzkoan soldadu zegoelarik asteburuetan etxera etorri eta kontrabandoan aritzen zen

### **485. Kontrabandozko botikak eskuratzeko baimena (BRA-023/042)**

Valentzian zegoela, teniente-medikuak botika zehatzak kontrabandoan eskuratzeko 15 egunetako baimena eman zion

### **486. Kontrabandoan pasatzen zirenak (BRA-023/044)**

Zernahi pasatzen zuten: erlojuak, iratzargailuak, koloniak, edari klase guztiak... Patzikuk azaltzen du "espitua" zer zen, zertarako erabiltzen zen eta nola garraiatzen zuten

### **487. Tolosaraino paketeak eramatera (BRA-023/045)**

Kontrabandoan egin zuen bidaiarik luzeena Tolosaraino egin zuen. Egindako bidea eta izan zuten laguntza deskribatu eta kontatzen du

### **488. Arazoak "eltzetzuekin" (BRA-023/046)**

Eltzetzuekin topatu eta lasterka ihes egitea normala izaten zen. Tiro egitea suerta zitekeen baina normalean airera botatzen zuten. Alabaina, hildako bat baino gehiago izan zen

### **489. "Eltzetzuek" erosi (BRA-023/047)**

"Eltzetzuek" edo guardia zibilak erosi egiten ziren, denak ez baina. Edozeinek egiten ahal zuen tratua haiekin

### **490. Kontrabandoko jorنال (BRA-023/048)**

Kontrabandoan egunean 5 duro irabazten zituzten, segan gehiago irabazten zen baina hagitz lan gogorragoa zen

### **491. Sorginak (BRA-023/050)**

Sorginen inguruko istorio asko aditu izan du: hegaz ibiltzen zirela, tximiniatik beheiti sartu eta harrapatzen zuten guztia jaten zutela...

### **492. Lamiak (BRA-023/052)**

Lamiak txikiak zirela erraten zuten. Lamien inguruko istorioak eta esamesak kontatzen ditu

### **493. "Satan-kumea" (BRA-023/053)**

Haurrak zirela beren osaba batek trapuzko panpina egin eta "Satan-kumea" izena paratu zion. Sukaldean hari batez lotu eta bertan zirela mugitu egiten zuen gora eta behera. Koxkortu zirenean konturatu ziren "satan-kumea" osabaren asmakizuna zela

#### **494. Euskaldunon ospakizunak (BRA-023/054)**

Euskaldunok zerbait ospatu nahi dugun bakoitzean jan egiten dugu, andaluzak aldiz lau oliba eta gazpatxoak jan eta dantzan eta kantuan hasten dira

#### **495. Esaera (BRA-023/055)**

“Euskalduna jan eta hotz; frantsesa jan eta bero, deus ez da gero”

#### **496. Baserriko lanak (BRA-024/001)**

Lehen asto-lan aunitz egiten zen. Baserrian egiten ziren lanak zerrendatu eta azaldu egiten ditu

#### **497. Emakumeen lana (BRA-024/002)**

Jorran eta aitzurraz emakumeak ziren nagusi

#### **498. Garai ezberdinetako lanak (BRA-024/003)**

Urteko garai ezberdinetan egiten ziren lanak zerrendatu eta deskribatzen ditu

#### **499. Belarra bizkarrean (BRA-024/004)**

Behientzako belarra bizkarrean garraiatzeko nola egiten zuten azaltzen du

#### **500. Bazka garraiatzeko beste tresna bat (BRA-024/005)**

Gangabila deitzen zioten tresna bat erabiltzen zuten bi lagun artean behientzako bazka garraiatzeko

#### **501. Maindireak ere (BRA-024/006)**

Maindireak ere erabili izan dituzte belarra mugitzeko, baina gutxiagotan

#### **502. Lurra lantzeko tresnak (BRA-024/007)**

Lurra lantzeko erabiltzen zituzten tresnak zerrendatu eta deskribatu egiten ditu

#### **503. Behiak eta behorrekin lanean (BRA-024/008)**

Hasiera batean behiekin lantzen zuten lurra, beranduago behorrak erabiltzen hasi ziren eta azkarrago eta aiseago moldatzen ziren

#### **504. Garagarra-eta pentsurako ereiten zen (BRA-024/009)**

Garagarra-eta gutxi ereiten zen, pentsurako bakarrik

#### **505. Eultzia (BRA-024/010)**

Baserriko ganbaran eultzitzen zuten eta lastoa bereizteko haizea botatzen zuen makina bat erabiltzen zuten

#### **506. Jatekoa (BRA-024/011)**

Kanpoan lanean aritzen zirelarik jatekoa buru gainean eramaten zuten. Zer jaten zuten kontatzen du

### **507. Ura (BRA-024/012)**

Etxean urik ez zegoenez kanpotik ekarri behar zen. Patzikuk azaltzen du nola egiten zuten

### **508. Kaiku txikiak esnea edateko (BRA-024/013)**

Zenbaitek kaiku txikiak edo opor txikiak erabiltzen zituen esnea edateko

### **509. Jeztea (BRA-024/014)**

Ardiak kaikura jezten zituzten, behiak aldiz latorrizko ontzira

### **510. Garbiketa (BRA-024/016)**

Arropa eta gorputzaren garbiketa nola egiten zuten kontatzen du

### **511. Komunik ez zen (BRA-024/017)**

Lehen ez zen komunik etxean eta arto soroan edo ongariaren gainean egiten zuten. Lehenengo komuna 8 urterekin ezagutu zuen

### **512. Gerra denboran oliorik ez (BRA-024/018)**

Gerra ondoren gauza asko falta ziren, tartean olioak. Bera Andaluzian zegoela olioak erosteko aukera izan zuen. Baimenaz etorri eta etxera ekarri zueneko anekdota kontatzen du

### **513. Herrira ez ziren jaisten (BRA-024/020)**

Baserrietako jendea auzoan zegoen frontoi txikian elkartzen zen igandeetan. Pilotan eta dantzan aritzen ziren.

### **514. Aita guantean aritzen zen frontoian (BRA-024/022)**

Berak ez du ezagutu, baina bere aita guantean aritzen omen zen frontoian

### **515. Urtezahar arratsean eskean (BRA-024/024)**

Baserrikoak ez ziren eskean ibiltzen, herrikoak gehiago. Hala eta guztiz ere urtezahar arratsean koadrila bat ibiltzen zen eskean urteberri egunean besta egiteko

### **516. Santu guztien egunean herrikoak eskean (BRA-024/025)**

Santu guztien egunean herrikoak eskean ibiltzen ziren, haiek ez ziren joaten urrun gelditzen baitzitzairen

### **517. Inguruko izenak (BRA-024/026)**

Inguruko mendiei ematen zaizkien izenak aipatzen ditu

### **518. Emakume gazteak. Neskato (BRA-025/001)**

Emakume gazteek baserrian egiten zuten lan eta gero, batzuetan, neskato joaten ziren; beste batzuk etxean gelditzen ziren. Bera neskato joan zen. Batzuetan trapitxeren bitartez lortzen zuten neskato lana.

### **519. Trapitxerak (BRA-025/002)**

Gerraostean gosetea zen. Trapitxerak Gipuzkoatik etortzen ziren trenean arraina eta bestelako gauzak saltzera. Beran denetarik erosten zuten: artoa, irina, eta abar. Altxapeka eramaten zuten salgaia. Berako estazioan guardia zibilak egoten zirela-eta, trapitxerak bere etxe ondoko apeaderoan gordeka sartzen ziren trenean (Pepita, haurra zela, laguntzen zien)

### **520. Neskato 1. Irun (BRA-025/003)**

Irunen neskato egon zen. Etxeko lanak egiten zituen: haurrak zaindu, merkatura joan, etxea garbitu, bazkaria egin...Dena eskuz egin behar zen: arropa garbitu, argizaria eman, sua piztu, eta abar. Izaten zituzten bi arratsalde libre astean: buelta bat ematen zuten, txurro batzuk jan eta zinera joan ziren (gallinerora hain zuzen, merkeena zelako). Beste neskato batzuekin ibiltzen zen. Berako bestetan egun batzuk libre izaten zituen, hori zen bere oporraldi bakarra.

### **521. Neskato 2. Soldata (BRA-025/004)**

Hasieran, Irunen, 40 duro irabazten zituen (200 pezeta), gero pixkanaka altxatu zioten soldata. Frantziara lanera joan zenean, berriz, 400 pezeta irabazten zituen. Gutxi kobratzen zuten neskatoek. Etxean bertan lo egiten zuten. Oso tratu ona izan zuen etxe guztietan.

### **522. Neskato 3. Donibane Lohitzune (BRA-025/005)**

Irunetik San Juan de Luzera (Donibane Lohitzunera) joan zen, han gehiago irabazten zelako. Oso etxe handian izan zen; goizean gosaria prestatzen zuen eta etxea eta arropak garbitzen zituen, eguerdian mahaia zerbitzatzeko zuen eta arratsaldean, berriz, plantxa izaten zuen. Uniformea janzen zuen. Bazkaria interina batek egiten zuen; txoferra ere bazen. Asteazken eta igande arratsaldeak libre izaten zituen; batzuetan Irunera joaten zen. Oporrak ordaintzen zizkioten. Hamahiru urte pasa zituen han.

### **523. Neskato 4. Paris (BRA-025/006)**

Donibane Lohitzunetik Parisera joan zen lanera. Etxean bera zen langile bakarra: gosaria prestatzen zuen, etxea garbitu, merkatura joan, bazkaria prestatu eta gainerako lanak (plantxa, zilarra garbitu...). Han jada garbigailua zuten. Bazkalondotan ordu bat izaten zuen libre egunero eta larunbat eguerditik astelehen goizera arte. Lagunekin ibiltzen zen: denda handietara joaten ziren eta hainbat toki ikustera; igandetan, meza ondoren, apaizarekin biltzen ziren eta txurroak eta txokolatea egiten zuten parrokiak. Euskaldunak eta espainolak zeuden, elkarri laguntzen zioten. Gaueko harrarretarako beti etxean izaten zen. Parisen ez zuen koartoa nagusien pisuan, etxe zahar haietan zerbitzariak goiko pisuan zuten logela.

### **524. Neskato 5. Udan Niza aldera joaten zen nagusiekin (BRA-025/007)**

Berak ez zuen inoiz arazorik izan hizkuntzarekin, poliki-poliki ikasi zuen. Beti ongi tratatu zuten. Pariskoekin udan Niza eta Montecarlo arteko herri txiki batera joaten ziren; Normandian eta Britainian ere izan zen nagusiekin.

### **525. Neskato 6. Parisko logela (BRA-025/009)**

Berak zortea izan zuen, logela ona zuen Parisen. Ohatzea, armairua, lababoa (ur bero eta hotzarekin) eta berogailua zituen. Baina baziren beste langile batzuk, Galiziatik joandakoak, ur berorik eta berogailurik ez zutenak.

### **526. Neskato 7. Parisko segurua (BRA-025/011)**

Parisen bost urte egin zituen. Oporretan etortzen zen Berara: oporrak ordaintzen zizkioten, baita bidaiaren erdia eta mantenurako kantitate bat ere. Frantzia segurua izateko eskubidea zuten neskatoek, baina lehenengo bi urteetan ezin zuten muga pasa eta batzuek ez zuten nahi; beraz, segururik gabe izaten ziren batzuk eta pixka bat gehiago ordaintzen zieten. Nagusien erabakia ere izaten zen paperak egitea ala ez. Berak segurua izan zuen eta gaur egun handik pentsioa kobratzen du.

### **527. Hogeita bost urtez neskato (BRA-025/012)**

Hogei urtetan joan zen lehenengoz neskato eta 45 urte zituela itzuli zen etxera. Neskato joan aurretik baserrian lan egiten zuen.

### **528. Baserrian urik ez (BRA-025/014)**

Baserrian ez zuten urik, errekatik eta iturritik ekartzen zuten. Argia, berriz, bazuten. Errekako ura pozalekin ekartzen zuten eta garbitzeko erabiltzen zuten. Edateko ura botijo edo pozalekin eramaten zuten

### **529. Eskolara oinez (BRA-025/015)**

Eskolara oinez joaten ziren, ia lau kilometroko bidea zuten. Mutikoak Altzatera joaten ziren eta neskak mojetara Berara.

### **530. Eskola (BRA-025/016)**

Eskolan haur aunitz izaten ziren eta dena erdaraz egiten zen. Mojek ez zuten jotzen. Gaizki portatzen zirenean "tranbiara" (pasaleku batera) joatera zigortzen zituzten. Etxean lan egiteko behar zituztenean, haurrak ez ziren eskolara joaten.

### **531. Zalain zoko, Alkaiga eta Endarlatza auzoak (BRA-025/017)**

Bera Zalain zoko auzokoa da (Lesakakoa da), baina beratarra sentitzen da. Izan ere, Zalain zokokoek Beran egiten dute bizi osoa: han bataiatu, han ikasi dotrina eta jaunartzea egin, hara joaten dira eskolara eta han lurperatzen dituzte. Lesakan, berriz, kontribuzioa ordaintzen dute. Alkaiga eta Endarlatza auzokoak antzeko egoeran bizi ziren.

### **532. Ez ziren mekikutara joaten. Etxeko erremedioak (BRA-025/019)**

Lehen oso gogorak ziren, "aizkoraz eginak" ziren. Medikutara gutxitan joaten ziren. Duela gutxi gertatutako anekdota bat kontatzen du. Haur denboran oinutsik ibiltzen ziren eta zauriren bat egiten zutenean, adibidez iltzeren bat sartzen bazitzaian oinan, amak baratxuriekin erretzen zuen olioia eta horrekin zauria garbitzen zien.

### **533. Oinutsik (BRA-025/020)**

Lehen jende aunitz ibiltzen zen oinutsik. Eskolatik etortzen zirela, euria hasten bazen, espartinak ez bustitzeko oinutsik etortzen ziren. Berara joaten zirenean ere askotan oinutsik joaten ziren eta hango etxe batean paratzen zituzten oinetakoak

### **534. Oinetakoak (BRA-025/021)**

Espartinak erabiltzen zituzten batez ere; jende guztiak ez zuen zapatarik. Bestelako oinetako batzuk nolakoak ziren azaltzen du: kalotxak (egurrezko zola zuten ) eta eskalaproiak (punta bat zuten).

### **535. Zalain zokoko bestak (BRA-025/022)**

Zalain zokoko bestak lehenago irailaren 8an omen ziren, baina berak ez ditu ezagutu. Antzara jokoa izaten omen zen. Horri buruzko kanta baten letra zati bat aipatzen du.

### **536. Berako bestak. Etxea zuritu eta garbitu (BRA-025/023)**

Berako bestetara joaten ziren. Parienteak etortzen ziren bere etxera. Bestak hasi aurretik etxea kisuarekin zuritzen zuten, ardi ilezko koltxoiak harrotzen zituzten, bokata egiten zuten maindire guztiak garbitzeko, olaskoak eta bildotsa egin bestetan jateko

### **537. Ohatzeak (BRA-025/024)**

Ilezko koltxoien azpian lastaira paratzen zuten (arto zurikinekin egindako jergoia). Koltxoiaren gainean maindireak eta koltxila (ardi ilearekin ere egina)

### **538. Lamiak eta sorginak (BRA-025/025)**

Erreka batean lamiak zirela esaten zen. Sorgin istorioak: bere amaren aitak, mutiko koskorra zela, mendian danbor soinuak entzun zituen eta bere osabak kasorik ez egiteko esan zion. Bere amaren amak apez bati galdetu zion ea sorginak baziren eta honek zera esan zion: "izena duen guzia badun, nor diren ez dira sinestu behar". Ondoko etxe batean bizi zen emakume bat sorgina zela esaten zuten; honek zera esaten zion: goizetan eguzkia ateratzen zen lekura begiratzeko eta erreztatzeko, horrela, berari norbaitek gaitza egin nahi baldin bazion, berari etorriko zitzaiola. Sugeen ausikiendako kredoa gibeletik aitzinera esan behar zela esaten zen

### **539. Sutara gatza bota (BRA-025/027)**

Oilarrak gauez kukurruku egiten bazuen behar ez zen tenorean, sutara gatza bota behar zen

### **540. Zimiko berri (BRA-025/029)**

Arropa estreinatzen denean zimiko berri egiten zen.

#### **541. Zalain zokotarren eta Beratarren arteko pikea. Euskara (BRA-026/002)**

Bere ustez, zalain zokotarrei esker beratarrek dakite euskaraz gaur egun. Lehenago, beratarrek Zalain zokokoak mespretxatzen zituzten, euskaraz egiten zutelako. Eskolan, Berako haurrek ez zekiten euakaraz. "Zalain zokoktarrak, tirritarrak" esaten zieten. Zalain zokotarrei buruzko bertsoak kantatzen ditu eta autobusean gertatutako anekdota bat.

#### **542. Lesaka eta Beraren arteko pikea (BRA-026/004)**

Beti izan da pikea Lesaka eta Beraren artean. Lesakarrek Berako bestetan euria egiteko kandelak pizten zituztela erraten zen.

#### **543. Hortza sutara bota (BRA-026/006)**

Hortzak erortzearekin zer esaten zuten azaltzen du: "harzak nere hortza zaharra eta ekarri berria"; hortza sutara botatzen zuten.

#### **544. Igantzi, "Madrid chiquito" (BRA-026/008)**

Igantzi "Madrid chiquito" dela esaten da.

#### **545. Farola kandelarekin (BRA-026/010)**

Gauetz argia egiteko farola kandelarekin erabiltzen zuten

#### **546. Igande arratsaldetan zer egiten zuten (BRA-026/012)**

Neskatxa zelarik auzoan gelditzen ziren igande arratsaldetan, baina, gaztetan, Berara joaten ziren. Han zinera joaten ziren, baina goiz itzuli behar zuten, ilun-  
ezkila jotzen zuenerako etxean egon behar baitzuten. Emakumeak ez ziren ostaluetan sartzen orain bezala. Mutilekin plazan biltzen ziren, musika baitzen.

#### **547. Ezkondu gabeko amak (BRA-026/013)**

Ezkondu gabeko amak etxean sartuta gelditzen ziren eta betirako markatua gelditzen zen. Haurra gauetz bataiatzen zuten eta bastarta esaten zioten. Ama batzuk gero esposatzen ziren

#### **548. Bedeinkapenak. San Migel (BRA-026/015)**

San Migel etortzen zelarik, prozesioa egiten zen eta bedeinkapenak egiten ziren. Horretaz gain, etxe batzuetara apezak joaten ziren bedeinkatzera, beren etxera ez ziren inoiz joan.

#### **549. Urtezaharretan etxez etxe kantari (BRA-026/016)**

Urtezaharretan etxez etxe ibiltzen ziren kantari. Koplen zati aunitz gogoratzen ditu: "Urte salve ongi etorri gabon Jainkoa..."

#### **550. Bera eta Lesakako euskara (BRA-026/018)**

Lesaka eta Berako euskara berdina da, baina lesakarrek doinu berezia dute.

#### **551. Etxean denda zuten (BRA-027/001)**

1920. urte aldera zabaldu zuten. Bera 1951.an heldu zen etxera. Janaria, edaria, arropa, oinetakoak... denetarik saltzen zuten

### **552. Edaria beste dendei saldu (BRA-027/002)**

Biltegia zuten dendan eta edaria bildu eta inguruko beste dendei saltzen zieten

### **553. Ostatua ere bazuten (BRA-027/004)**

Ostatua ere bazuten. Jendea tertulian aritzera, une bat pasatzera,...

### **554. Saltzen ziren edariak (BRA-027/005)**

Gehienbat ardoa edaten zen. Udan garagardoa saltzen ere eta, freskagarri moduan, ardoa sifoiatz, limonada... Kafea ere jartzen zuten. Kopa moduan anisa eta koñaka saltzen zen. Goizetan, mezatik bueltan, moskatela hartzen zuten. Emakumeak ez ziren edatera sartzen

### **555. Nylonezko lehen galtzerdiak (BRA-027/007)**

Galtzerdi hobeak ziren baina baita garestiagoak ere. Gizon batekin izandako anekdota bat kontatzen du

### **556. Gerra ondoren arrantzale joaten ziren gazteak (BRA-027/009)**

Gerra ondoren ez zegoen lantegirik eta gazte asko arrantzale joaten ziren Pasaiara. Han arraina ematen zieten, kardela, eta etxera ekartzen zuten, etxekoekin eta lagunekin jateko

### **557. Zapoa lehen aldikoz (BRA-027/010)**

Zapoa ekarri zioten lehen aldian ez zekien nola prestatu eta norbaitek saltsa berdean prestatzeko esan zion

### **558. Erosketak ordaintzeko moduak (BRA-027/011)**

Dendan egiten ziren erosketak, normalean, hamabostean behin ordaintzen zituzten. Ez dute inoiz arazorik izan kobratzeko

### **559. Gehien saltzen ziren produktuak (BRA-027/012)**

Azukrea, kafea, olioia, txokolatea, bakailaoa, dilistak, arroza... dena soltean saltzen zuten

### **560. Ardoa (BRA-027/013)**

Ardoa 5 edo 10 litroko txanbiletan (garrafoietan) saltzen zen

### **561. Egunero zabaltzen zuten denda (BRA-027/015)**

Denda egunero zabaltzen zuten, igandeak barne

### **562. Errazionamendu garaia (BRA-027/016)**

Pilar 1951.an hasi zen dendan, hortaz ez du denbora luzez ezagutu errazionamendua. Garai horretan pertsonako hainbeste produktu ekartzen zuten

### **563. Errazionamendu kartila (BRA-027/017)**

Kartila txiki bat zen eta bertan apuntatzen zen zenbat eramaten zuen. Kartilako produktuak ordaintzen ziren ere baina extraperlokoak baino askoz merkeagoak izaten ziren

### **564. Denetatik saltzen zuten (BRA-027/018)**

Odolkiak egiteko espeziak, kordela... saltzen ziren; eskolara joateko koadernoak eta lapitzak...

### **565. Auzoko telefono bakarra zuten (BRA-027/020)**

Etxean bazuten telefonoa, auzoko bakarra. Zentralitatik deitzen zieten mezuak eta mandatuak emateko

### **566. Estatu Batuetatik egin zuten lehenengo deia (BRA-027/021)**

Pillarrek ongi gogoratzen du hara joandako herriko batek Estatu Batuetatik deitu zuen lehen aldia

### **567. Mundu guztiaren zerbitzuan (BRA-027/022)**

Deiak egiteko eta jasotzeko orduan, beharra izanez gero, edozeinek erabiltzen ahal zuen telefonoa

### **568. Edaria gurdiz banatzen zuten (BRA-027/023)**

Zaldiz eta gurdiz ibiltzen ziren edaria banatzen. Gehienbat ardoa, garagardoa, sifoa, freskagarriak,... banatzen zituzten

### **569. Lehendabiziko supositorioak (BRA-027/024)**

Lehendabiziko supositorioak atera zirenean medikuak ez zuen asmatzen nola paratu behar ziren azaltzeko eta Pilarrengana bidaltzen zituen eriak

### **570. Bestelako botikak saltzen ziren ere (BRA-027/025)**

Aspirina saltzea ez zen librea baina saltzen zuten. Horretaz gain sagar-jarabea, kamamila,...

### **571. Kontserba latak (BRA-027/026)**

Kontserba latak ere saltzen zituzten: atuna, sardinak, berberetxoak, txipiroiak...

### **572. Entsalada txikitatik (BRA-027/027)**

Pillarren etxean betidanik jan dute entsalada: letxuga, tipula eta tomatea

### **573. Senarra tomatea jaten ikusi eta harritu (BRA-027/028)**

Bere senarra harrituta gelditu zen tomate gordina jaten ikusi zuen lehen aldian

### **574. Dendak paper garrantzitsua betetzen zuen herrian (BRA-027/030)**

Dendak paper garrantzitsua betetzen zuen herrian. Komunikazio eta berrien elkar-trukerako tokia izaten zen, gaur egun hori ez da gertatzen

### **575. “Eskolak galdu dik mundua” (BRA-027/031)**

Ostatura joaten zen batek “eskolak galdu dik mundua” erraten omen zuen. Beste batzuek gazteak kritikatzin zituzten, Pilarrek, aldiz, beti defendatu ditu

### **576. Ostatura gizonak bakarrik (BRA-027/033)**

Emakumeak ez ziren ostatura joaten, gizonak bakarrik. Iluntzerako erretiratzen ziren

### **577. Gutxitan ateratzen ziren paseoan (BRA-027/034)**

Paseoan jende gutxi ateratzen zen, aberatsak bakarrik. Igandean ateratzen ziren bakarrik

### **578. Bezperetara joan beharra (BRA-027/035)**

Lehenago, igandean, bezperetara joan beharra zegoen. Baserrietakoak etortzen ziren eta, haren ondotik, herrian gelditzen ziren

### **579. Gurutze bideak (BRA-027/036)**

Gurutze bideak egiten dira oraindik. Garizumako igandeetan egiten da, orain eliza barrenean egiten da baina lehenago, ostiral santu egunean, “El Calvario” izena duen mendi batera joaten ziren gurutze bidea eginez

### **580. Lehengo ospakizun erlijiosoak (BRA-027/037)**

Lehenago errogatibak, prozesioak,... egiten ziren

### **581. Ostiral santuko prozesioa (BRA-027/038)**

Figurak ateratzen ziren prozesioan. Duela hogeit bat urtera arte egin da

### **582. Besta Berri eguneko prozesioa (BRA-027/039)**

Besta berri eguneko prozesioan herria apaintzen da, Beratik Altzaterainoko bide osoa apaintzen da. Zinegotzi batek bandera eramaten du eta banderari dantzatzen zaio

### **583. Errogatibak euria egiteko (BRA-027/040)**

Errogatibak euria egiteko

### **584. San Miguel (BRA-027/041)**

San Miguel urtero etortzen da eta soroak bedeinkatzen dira

### **585. Trenaren inguruko oroitzapenak (BRA-027/042)**

Zerbitzu ona eskaintzen zuen. Irun eta Elizondorako bidaia egiten zuen egunean zenbait alditan

### **586. Bi tren zeuden (BRA-027/043)**

Bi tren zeuden, bata merkantziatarako eta beste bidaiariendako

### **587. Kongresu Eukaristikora (BRA-027/044)**

Donezteben ospatu zen Kongresu Eukaristikora joan ziren trenez eta oroitzapen polita gordetzen du. Egun-pasatzat hartu zuten gehienek

### **588. Futbol taldeak ere trenean (BRA-027/045)**

Lesakan, Beran, Elizondon eta Irunen futbol taldeak zeuden eta trenean mugitzen ziren

### **589. Geroago autobusak hasi ziren (BRA-027/046)**

Autobusak hasi zirenean asko kendu zioten trenari, autobusak zentrora hurbiltzen baitziren

### **590. Irundik etortzen ziren jana eske (BRA-027/047)**

Gerra ondoren, Irundik etortzen ziren familiak, "las trepitxeras", jana eske. Baserriren batean mata-txerria egiten zelarik saltzen zen lehen gauza txingarra izaten zen

### **591. Xaboa etxean egiten zen (BRA-027/049)**

Sosa kaustikoa erosten zen, koipearekin nahastu sutan eta hozten zelarik zatiak egiten ziren

### **592. Lehenengo detergenteak (BRA-027/050)**

Lehenengo detergenteak hasi zirenean ez zekien salduko ote ziren. Erabiltzen hasi eta harrituta gelditu ziren zein ongi garbitzen zuen ikusita

### **593. Anekdotak detergentearekin (BRA-027/051)**

Pilarrek kontatzen du lagun batek ilea garbitzeko erabiltzen zuela detergentea

### **594. Ilea maiz garbitzen zuten (BRA-027/052)**

Lehen ere maiz garbitzen zuten

### **595. Permanentea urte guztirako (BRA-027/053)**

Urte guztirako permanentea egiten zuten. Pilarrek kontatzen du nola egin zuen bere lehenengo permanentea

### **596. Orduko orrazkera (BRA-027/055)**

Normalean ile motza eramaten zen, "garçon" erara, kopeta-ileaz edo kopeta-ilerik gabe

### **597. Haur txikien orrazkera (BRA-027/057)**

Alabak kopeta-ilea eta atzean mototsa eramaten zuen

### **598. Beste orrazkera batzuk (BRA-027/059)**

Tupe, ile kardatua,... moda asko pasatu dira

### **599. Gazta egiteko modua (BRA-027/061)**

Bere etxean ardi esneaz egiten zuten gazta. Gazta egiteko prozesua deskribatzen du

### **600. Gaztanbera (mamia) egiteko modua (BRA-027/062)**

Gaztanbera (mamia) egiteko prozesua deskribatzen du

### **601. Gaztanbera egiten zuten ere (BRA-027/063)**

Gazta egitean gelditzen den gazura berriro egosita egiten da gaztanbera. Halere, bere etxean, gazura hori aziendari emateko eta haiek edateko erabiltzen zuten gehienbat

### **602. Harrak dituen gazta (BRA-027/064)**

Harradun gazta nola egiten den azaltzen du

### **603. Gurina nola egiten zuten (BRA-027/065)**

Esnearen koipeaz egiten zuten gurina. Nola egiten zuten azaltzen du

### **604. Bizkotxoak egiten zituen (BRA-027/067)**

Esnegainarekin bizkotxoak egiten zituen. Nola egiten duen azaltzen du

### **605. Sagardoa egiteko sagarrak (BRA-028/001)**

Pilarrek sagardoa egiteko erabiltzen ziren sagar motak aipatzen ditu

### **606. Auzoan dolare bakarra zegoen (BRA-028/002)**

Auzoan etxe bakar batean zuten dolarea eta auzoko guztiek hara eramaten zituzten sagarrak, aurretik fetxa hartuta

### **607. Sagardoa baino lehen “pittarra” egiten zen (BRA-028/003)**

Sagardoa baino lehen “pittarra” egiten zen ura botata

### **608. Inauterien garaian botiletan sartu (BRA-028/004)**

Sagardoa udazken aldera sartzen zen barriketan eta inauterietarako botiletara pasatzeko moduan izaten zen. Bitartean barrikatik edaten zuten, baina ez botiletan sartzekoa zen barrikatik

### **609. Nola jakin sagardoa ondua zegoen ala ez (BRA-028/005)**

Sagardoa dastatuz erabakitzen zen noiz zegoen ondua eta botiletan sartzeko prest

### **610. Xuri-beltzak nola egin (BRA-028/006)**

Bildotsen garaian, udaberri aldean, prestatzen ziren xuri-beltzak bildotsen tripekin. Pilarrek azaltzen du nola egiten ziren

### **611. Taloak nola egin (BRA-028/007)**

Pilarrek azaltzen du nola egiten dituen taloak

### **612. Artoa, arto-irinaz eginiko ogia (BRA-028/008)**

Arto-irinaz egiten zuten ogia edo tortari “artoa” deitzen zioten. Bere etxean ez zuten laberik eta Pilarrek etxean labea zutenekin aldatzen zuen ogia

### **613. “Txalo-txalo-txin” (BRA-028/010)**

“Txalo-txalo-txin” kanta eta nola egiten den azaltzen du

**614. “Xangulo-Mangulo” (BRA-028/011)**

“Xangulo-Mangulo” kanta eta nola egiten den azaltzen du

**615. Bizimodua asko aldatu da (BRA-028/013)**

Bere etxean lau aiton-amonak bizi izan dira... Gaur egun pentsaezina da

**616. “Hiru txito” (BRA-028/015)**

“Hiru txito” kanta

**617. “Kukurruku” (BRA-028/016)**

“Kukurruku” kanta

**618. “Amerikanoei” ongi etorria (BRA-028/017)**

Ameriketara joanak zirenak herrira etortzen zirenean herriko musika bandak egiten zien harrera

**619. Maiatzean loreak paratu neskei (BRA-028/018)**

Maiatzeko lehen goizean auzoko neskei akazia lorea paratzen zioten leihoan auzoko mutilek

**620. Alkaiaga auzoa (BRA-028/019)**

Lesakako parte da Alkaiaga auzoa, baina beratarrak sentitzen dira, bizitza Beran egiten baitute

**621. Gerra garaiko oroitzapenak (BRA-028/020)**

Gerra hasi zelarik 10 urte zituen. Erreketeak heldu zirela oroitzen du. Une haiek ekartzen ditu gogora

**622. Herriko ezagun batzuk fusilatu (BRA-028/021)**

Bertako jende asko ez zuten fusilatu, baina bakar batzuk bai. Kanpoko jendea ekartzen zuten Berako harrobian fusilatzeraz

**623. Gerrako presoak lanean (BRA-028/022)**

Beran eta Lesakan ibili ziren gerrako presoak bideak eta errepideak egiten

**624. Soldaduak urte luzez egon dira (BRA-028/023)**

Gerra eta gero, urte luzez izan dira soldaduak Beran, kanpamentuak baziren, kuartelak.. Frentetik etorri zirenak etxeetan sartuak egon ziren

**625. Soldadu baten anekdota (BRA-028/024)**

Bere etxean egon zen soldadu batek ezkontzako eraztuna galdu zuen eta disgustu handia hartu zuen

**626. Estraperloko garaiak (BRA-028/026)**

Orduan karabineroak zeuden Beran eta estraperloan harrapatzen zutenei kentzen zieten ekartzen zutena. Miseria handiko garaia izan zen hura

### **627. Estraperloko gauzak (BRA-028/027)**

Xaboa eta honelako gauzak ekartzen zituzten. Haiek ez dira inoiz ibili. Beren etxera joaten ziren sagarrak eroatera

### **628. Lantegia geldiarazi zuten (BRA-028/029)**

Herrira heldu zen erreketen batailoiak lantegia geldiarazi zuten

### **629. Batzuk Frantziara ihesi (BRA-028/030)**

Batzuk Frantziara joan ziren ihesi, gutxienez bospasei familia joan ziren eta kontzentrazio zelaietan egon ziren. Ahal izan zutelarik hurbilera etorri ziren

### **630. Medikua espetxean (BRA-028/031)**

Medikua espetxean sartu zuten. Askatu zutenean bezerorik gabe gelditu zen

### **631. Senideekin hika (BRA-028/033)**

Gurasoekin zuka erabiltzen zuten, beste senideekin hika

### **632. Aitarekin beti euskaraz (BRA-028/034)**

Aita erdaraz oso ongi solastu arren, ez da inoiz berarekin erdaraz aritu. Amarekin bai

### **633. Herrian erdara gehiago (BRA-028/035)**

Herrian gehiago entzuten zen erdara

### **634. Dotrina: baserrikoak euskaraz eta herrikoak erdaraz (BRA-028/036)**

Dotrina ikasteko orduan baserritarrei euskaraz eta herritarrei erdaraz irakasten zieten... eta funtzioak latinez izaten ziren!

### **635. Irakurtzen eta idazten jakin ez (BRA-028/037)**

Soldadu joan zirenetako askok ez zekien ez idazten ez irakurtzen

### **636. Anaiekin hika, ahizparekin zuka (BRA-028/038)**

Anaiekin hikaz egiten du, aldiz ahizparekin zuka erabiltzen du

### **637. Gizonen artean hika, andreen artean zuka (BRA-028/040)**

Gizonen artean hika egiten dute, andreen artean ez dago ohiturarik

### **638. Herrietako hizkera ezberdinak (BRA-028/041)**

Inguruko herrietako jendeari hizketan aditu eta igertzen zaio nongoa den: lesakarren doinu berezia dute, etxalartarren Iparraldeko hitz gehiago erabiltzen dituzte, arantzarrak lasaiak dira...

### **639. Etorkin asko Beran (BRA-028/042)**

Gaur egun etorkin asko dago Beran

#### **640. Herrien arteko harremanak (BRA-028/043)**

Igantzi "Madril txikito" deitu izan zaio beti, bestela ez dago herri ezberdinetako jendearen artean ezberdintasun handirik

#### **641. Lehendabiziko komunak (BRA-028/044)**

Baserrietan ez zegoen urik, hortaz komunarik ere ez, kanpoan egiten zuten. Paratu ziren lehendabiziko komunak egurrezkoak ziren, etxola baten modukoak

#### **642. Jaiotza eta bataioa (BRA-029/001)**

Haurra etxean jaiotzen zen eta bi egunera bataioa egiten zen. Aitatxiak bere aldeko senideak eta lagunak gonbidatzen zituen eta amatxiak bere aldekoak. Denen artean bazkaria egiten zen, baina emakumezkoak toki batean eta gizonezkoak bestean

#### **643. Bataio eguneko bazkaria (BRA-029/002)**

Rosariok bataio egunean zer jaten zuten kontatzen du

#### **644. Haurraren izena (BRA-029/003)**

Gehienetan, haurrari bataioko aitatxi edo amatxiren izena paratzen zitzaion

#### **645. "Errautsak" (BRA-029/005)**

Bataiotik ateratzean aitatxiak eta amatxiak "errautsak", sosak, botatzen zituzten

#### **646. "Padrino pelao" (BRA-029/007)**

Dirurik botatzen ez bazuen edota gutxi botatzen bazuen neska-mutikoei oihuka "padrino pelao" erraten zuten

#### **647. Emaginak (BRA-029/008)**

Haurra etxean izaten zen eta amari laguntzeko beti izaten zen zerbait gehixeago entenditzen zuen emakumeren bat

#### **648. Haurra ohean jaiotzen zen (BRA-029/010)**

Haurra amaren logelan jaiotzen zen. Jaiotzean haurra jantzi eta troxa, benda lodiago bat, paratzen zioten zilborrean

#### **649. Erditu ondoren oilo salda (BRA-029/011)**

Erditu ondoren oilo salda ematen zitzaion andreari. Rosariok lehengusu baten esaera aipatzen du

#### **650. Senideak eta lagunak bisitan (BRA-029/013)**

Gero senideak eta auzoko lagunak etortzen ziren bisitan. Hurbileko senideek oiloa ekartzen zuten, gainontzekoek edaria edo postreren bat. Kafearen ordez, txokolatea ateratzeko ohitura zegoen. Gizonezkoak ez ziren bisitan joaten

#### **651. Atso besta (BRA-029/014)**

Hogei bat emakume elkartzen ahal ziren eta besta inportantea zen

### **652. Ama zortzi egunez ohatzean (BRA-029/015)**

Hurbileko senideak haurra izan eta berehala etortzen ziren. Ama zortzi egunez egoten zen ohatzean eta hilabete baten buruan elizan sartzera joaten zen

### **653. Elizan sartzea (BRA-029/016)**

Amak, kandela bat eskuan, elizako atean itxoiten zuen, norbait mezatik atera eta ama zain zegoela iragartzen zuen arte. Ordura arte ezin zuen elizan sartu. Elizan sartu baino lehen kalera ateratzen ahal zen, baina erraten dute lehenago ez omen zela etxetik ateratzen

### **654. Lehen teila buruan paratuta ateratzen zen (BRA-029/017)**

Rosariok etxean aditu du, lehenago, elizan sartzea baino lehenago ateratzen bazen etxetik emakumea, buruan teila paratuta atera behar zuela

### **655. Sendotza edo konfirmazioa (BRA-029/018)**

Txikitan egiten zen. Apezak "el obispo de Roma, para que te acuerdes toma" erran eta zaplaztekoa ematen zien

### **656. Bi jaunartze (BRA-029/020)**

Bi jaunartze egiten ziren lehen. Lehenengoari "komunio txikia" deitzen zioten eta bigarrenari "komunio handia" (gaztelaniaz "comuni3n solemne"). Txikia 6 edo 7 urtetan egiten zen eta handia 12 urtetan. Bigarrena zen inportanteagoa zen, familiakoak gonbidatzen ziren eta bazkari ederra egiten zen

### **657. Bi jaunartzeren arteko ezberdintasuna (BRA-029/021)**

Bere garaian, lehenengo jaunartzean ez zen ospakizun berezirik egiten. Bigarrenean, aldiz, zuriz eta mantelinaz jantzita joaten ziren. Beranduago, lehenengoan zuriz joaten ziren eta bigarrenean kalez jantzita. Bigarrena egin eta gero, mutikoak San Luisen kongregazioan sartzten ziren eta neskek Hijas de Maria delakoan

### **658. Luistarrak eta Mariaren alabak (BRA-029/023)**

Hilabetean behin meza eta komunioa izaten zuten. Haietako bat ezkondu gabe hiltzen bazen zintak paratzen zitzaizkion hilkutxan

### **659. Mutilek zinta urdina eta domina (BRA-029/025)**

San Luiseko mutilek zinta urdina eta domina eramaten zituzten. Neskek zer eramaten zuten ez du gogoratzen

### **660. Mariaren alabak (BRA-029/027)**

Komunioa eta bileraren bat edo beste egiten zuten. Apezak gogorrak izaten ziren Mariaren alabekin

### **661. Ezin bizikletan ibili (BRA-029/029)**

Gazte denboran Rosariok bizikleta erosi eta apezak errieta egin zion

### **662. Neskatxek ere galtzerdi luzeak (BRA-029/031)**

San Miguel etortzekoa zela, harrera egitera joana zen 12 urteko neskatxa bati apezak galtzerdi luzeak paratzeko esan zion

### **663. Dantza egitea bekatua (BRA-029/033)**

Dantza lotua egitea edo mutil batekin eskutik ibiltzea bekatu mortala izaten zen

### **664. Apez baten anekdota (BRA-029/035)**

Apezak bota zuen sermoiaren arabera inor ez zen salbatzen ahal. Handik urte batzuetara apeza izateari utzi, ezkondu eta seme-alabak izan zituen apez berberak

### **665. Misioetako apezak (BRA-029/037)**

Misioetako apezaren arabera dena zen bekatu

### **666. "Flor de mayo" (BRA-029/038)**

Maiatzeko igandero ospatzen zen. Sei neska egoten ziren koroan, zuriz jantziak, lore sortarekin eta arrosa hostoekin. Bi zaindari ere baziren, hauek beltzez jantziak. Hostoak ama-birjinari botatzen zizkieten

### **667. Ama-birjinari kantua (BRA-029/039)**

Rosariok "flor de mayo"n kantatzen zen abestia gogoratzen du. Gaztelaniaz eta latinez kantatzen zuten

### **668. Beranduago euskaraz hasi ziren (BRA-029/040)**

Beranduago, apez gazteak heldu zirenean, euskaraz kantatzen hasi ziren

### **669. Mezara entenditu gabe (BRA-029/042)**

Orain zenbait jende kexu da euskarazko meza ez duelako ulertzen, baina lehen, latinez eta gaztelaniaz egiten zutelarik, ez zuten entenditzen eta joaten ziren

### **670. Purisimaren bederatziurrena (BRA-029/044)**

Purisimaren bederatziurrena euskaraz, apez gazte horiekin ikasi zuen. Lehenago euskaraz ez zen egiten

### **671. Ezkontza tratuak (BRA-029/045)**

Batzuk erraten zuten ezkontza egiten zutenek "mando-tratua" egiten zutela. Tratu horietan apezek ere agintzen zuten. Bere familian 3 senide ezkondu, 2 moja joan ziren eta besteak ezkongabe gelditu ziren

### **672. Amaren senideak (BRA-029/046)**

Amaren familian, 7 senidetatik 5 erlijioso joan ziren

### **673. Apeza mando-tratuan (BRA-029/048)**

Apez batek fama handia zuen mando-tratuan. Mutila eta neskaren arteko zubia egiten omen zuen

#### **674. Ezkontza (BRA-029/049)**

Segituan ezkontzen ziren, neskak beltzez jantziak eta mutilak traje ilunaz ere bai. Ostegunetan izaten ziren ezkontzak

#### **675. Prebua bota eta hiruzpalau egunetara ezkontza (BRA-029/051)**

Prebua bota eta egun batzuk uzten ziren eragozpenaren bat izatekotan agertzeko

#### **676. Prebua bota ondoren errefreskoa eta afaria (BRA-029/052)**

Etxean bazkari berezia egiten zen. Gero neskek errefreskoa hartzen zuten eta mutilek afaria egiten zuten. Gero "tobera-jo" egiten zen

#### **677. Tobera-jo (BRA-029/053)**

Palanka bat apaintzen zuten eta tobera-joleek musika jotzen zuten. Bertsoak ere botatzen zituzten toberaz

#### **678. Heriotza (BRA-029/054)**

Norbait hiltzear zegoelarik elizakoak ematen zitzaizkion eta, paperak egin gabe bazituen, Lesakatik notarioa ekartzen zen

#### **679. Testamentua (BRA-029/056)**

Ikustekoa da garai hartan egindako testamentuak zein ongi eginak diren. Etxean gelditzen zenak ezkongabe gelditzen ziren anai-arrebak etxean jaso behar zituen eta ezkontzen baziren dotea eman

#### **680. Dotea (BRA-029/057)**

Dotea etxeko ahalmenaren arabera izaten zen. Ezkontzen bazinen, etxeko nagusiak "arrigoa" (arreo) egin behar zizun

#### **681. Herentziaren paperak (BRA-029/058)**

Nahi zelarik egiten ziren. Normalean seme zaharrenarendako izaten zen etxea. Arrebak ezkonduz gero, dotea eman eta arrigoa egitea bere ardurapean gelditzen zen

#### **682. Zahar-partea (BRA-029/059)**

Diru sarrerarik ez zuten etxeko zaharrei ematen zitzaien... banatzeko baldin bazegoen

#### **683. Elizakoak (BRA-029/061)**

Norbait hiltzear zegoelarik apeza etortzen zen elizakoak ematera. Etxekoek, bi kandelaz, atarian itxoiten zuten apeza. Apezak oliodura ematen zion eta aitortza hartzen zion. Rosariok azaltzen du oliodura zer zen

#### **684. Hil eta gero (BRA-029/063)**

Bi neska ezkongabe joaten ziren mandatu egitera. Lehendabizi medikuarengana joaten ziren hil zela erratera, gero apezarengana eta gero familiako guztiak abisatzen ziren, etxez etxe eta baserriz baserri. Bueltan etxeok bazkaria ematen zieten

#### **685. Familiarrak funtziora etortzen ziren (BRA-029/064)**

Hildakoaren familiarrak ez ziren lurperatzera etortzen, funtziora etortzen ziren. Lehendabizi lurperatzea egiten zen eta gero funtzioak. Hiletan jendeak dirua botatzen zuen

#### **686. Funtzio maila ezberdinak (BRA-029/065)**

Funtzio maila ezberdinak zeuden, ordaintzen zenaren arabera. Rosariok funtzioen arteko ezberdintasunak aipatzen ditu

#### **687. Funtzioetako eskaintzariak (BRA-029/066)**

Berak ez du ezagutu, baina aditua du lehenago bildotsen burua erabiltzen zutela eskaintzari moduan

#### **688. Dotrina. Oparia ematen zioten apezari (BRA-029/068)**

Dotrina ikasteko bi talde zeuden, euskaraz ikasten zutenak eta erdaraz ikasten zutenak. Euskaraz ikasten zuten guztien artean bildotsa eramaten zioten apezari

#### **689. Hildakoaren jantzia (BRA-029/070)**

Auzoko eta etxeko norbaiten artean jantzen zuten hildakoa. Gizona bazen trajea eta emakumea bazen bere jantzirik onena eta buruan mantelina paratzen zitzaion. Eskuetan arrosarioa eta gurutzea. Hilkutxa beltzez forratzen zen. Gaubeila egiten zen eta 12etan afaria ematen zen eta goizeko 5etan txokolatea

#### **690. Lurperatzea eta funtzioak (BRA-029/072)**

Lurperatzea biharamunean egiten zen eta funtzioak hurrengoan eta hurrengoan. Ondoren, etxaldea bazinen, 2 urtez jarraian egunero joan behar zenuen. Emakume bakarria baldin bazen etxean eta ezin bazuen joan, emakume bati ordaintzen zitzaion mezara joan zedin

#### **691. Eliza (BRA-029/073)**

Elizan aulkitxoak eta tapizak zeuden. Gero belaun-aulkiak erosi eta tapizak kendu ziren

#### **692. Maizterrak (BRA-029/075)**

Maizterrak zirenek, etxeko norbait hiltzean, urte batez joan behar zuten mezara

#### **693. Elizako altzariak (BRA-029/076)**

Tapiza arrunta zen. Bere familiarenak azpiko aldean "B" bat zuen. Argizaiola paratzen zuten.

#### **694. Luto seinaleak (BRA-029/077)**

2 urtez gordetzen lutoa. Kanpoko izeba-osaba baldin bazen 6 hilabete, etxeok baziren urte bat. Elizara bi urtez joan beharra zegoen. Denek janzen zuten lutoa baina haurrak zuri-beltzez janzen ziren. Gizonen trajea tindatu egiten zen eta zinta beltza erabiltzen zuten.

#### **695. Alargunen ezkontzak (BRA-029/078)**

Alargun baten kasua ezagutu du Rosariok. Ondoko etxeok lorez hornitutako palanka paratu zioten atean

#### **696. Ama ezkongabeak (BRA-029/080)**

Ezkongabeko neska batek haurra izanez gero, harenak egin zuen, urteak pasatzen zituen etxetik atera gabe. Hurrek ere sufritzen zuten

#### **697. Hijas de la Caridad (BRA-029/082)**

Neskame aritzen zirenak ezin ziren kongregazioan sartu soldata jasotzen zutelako.

#### **698. Kongregazioa gaur egun (BRA-029/084)**

Kongregazio horretako mojek urtero berritzen dituzte botoak, martxoaren 25an, eta kongregazioa utzi nahi duenak oztoporik gabe uzten ahal du

#### **699. Maizterren etxeak ez ziren bedeinkatzen (BRA-029/085)**

Apeza etxaldeetara joaten zen alorrak eta etxea bedeinkatzera, maizterren etxeetara, aldiz, ez. Gazta edo merendua eman behar zitzaion

#### **700. Dena bedeinkatzen zuen (BRA-029/087)**

Alorrak bedeinkatzera etorri eta den-dena bedeinkatzen zuen apezak, baita kotxea bedeinkatzen ezagutu dute ere bai

#### **701. Kandelak santa Barbarari (BRA-029/088)**

Eguraldi txarra edo erauntsiak zirenean kandelak paratzen zizkioten Santa Barbarari

#### **702. Sagardoa egiteko sagar motak (BRA-029/090)**

Sagardoa egiteko erabiltzen zituzten sagar motak aipatzen ditu

#### **703. Etxerako eta saltzeko egiten zuten (BRA-029/091)**

Sagardo asko saltzen zuten, etxerako 3 barrika handi eta bi txiki egiten zituzten

#### **704. Sagar bilketa (BRA-029/092)**

Sagarrak eskuz biltzen zituzten

#### **705. Sagardoa egiteko prozesua (BRA-029/093)**

Barrika pare bat egiten zuten aldian. Rosariok azaltzen du sagardoa egiteko prozesua

### **706. Sagarrak jotzeko erritmoa (BRA-029/095)**

Denak erritmo berean aritzen ziren, soldaduak bezala. Hondarreko buelta bakoitzak nahi bezala, zipi-zapa

### **707. Sagardoa ondu (BRA-029/096)**

Barrikan sartzen zelarik, gainean zulo bat uzten zen irekia zaborra botatzeko. Zabor guztia bota ondoren zuloa ixten zen. Handik denbora batera probatu eta, ondua baldin bazen, botiletara pasatzen zen

### **708. Zenbait etxetan jarraitzen dute sagardoa egiten (BRA-030/001)**

Rosariok sagardoa egiten duten bi etxeren izenak aipatzen ditu

### **709. Sagardoa ondua dagoen jakiteko (BRA-030/002)**

Gaineko tapoia kendu eta poxpolua sartu. Itzaltzen bazen, gasa zegoelako seinalea; itzaltzen ez bazen, gasik ez zegoen eta botiletan sartzen ahal zen

### **710. Sagardoa botiletan sartu (BRA-030/003)**

Sagardoa nola sartu zuten botiletan deskribatzen du

### **711. Garralia (BRA-030/005)**

Sagardoa etxe batetik bestera garraiatzeko "garralia" erabiltzen zuten. Garralia barrika luze baten modukoa zen

### **712. Etxea garbitzeko astamenda (BRA-030/007)**

Etxea astamendaz garbitzen zuten. Lurrari argizaria ematen zioten

### **713. Gorputzaren garbiketa (BRA-030/008)**

Balde batean ura hartu eta komunean garbitzen zuten, izan ere berak 4 urte zituela komuna paratu zuten etxean. Bestela, eguraldi ona zelarik, harraskan egiten zuten

### **714. Ilea maiz garbitzen zuten (BRA-030/009)**

Permanentea egiten hasi ziren eta maiz garbitzen zuten, ongi gelditzen zelako

### **715. Arropa garbitzeko xaboiak (BRA-030/010)**

Arropa garbitzeko zer xaboi erabiltzen zen aipatzen du

### **716. Etxe aunitz urik gabe (BRA-030/011)**

Haien maizterrek ez zuten urik etxean eta haien etxera etortzen ziren ur bila, haien amak buruan eramaten zuen. Behiak ere ekartzen zituzten askara

### **717. Burutia (BRA-030/012)**

Mendira joaten zirenean, haiek ere buruan eramaten zuten bazkaria. Horretarako burutia paratzen zuten buruan. Rosariok azaltzen du nolakoa zen burutia eta zer eramaten zuten

### **718. Mendian ura edateko komeriak (BRA-030/013)**

Gizonak igotzen zirenean goiza pasatzeko eramaten zuten, bestela iturri batetik hartzen zuten. Gero, igotzen zirenean, haiek ere zerbait eramaten zuten. Herrian ez zegoen ur arazorik

### **719. Sardina zaharrak (BRA-030/014)**

Aunitz ziren eta janaria konpartitu beharra zegoen

### **720. Gazta ez zaio gustatzen (BRA-030/015)**

Rosariori ez zaio gazta gustatzen. Bere aita zenak ez zuen jaten ezta ere

### **721. Hortza erortzen zenean (BRA-030/017)**

Txikitan, hortzaren bat erortzen zitzairenean ez zuten ezer berezirik egiten, halere esaera bat aipatzen du: sagu zaharra, hortza zaharra ekarri berria

### **722. Erraldoiaren ipuina (BRA-030/019)**

Haurrak zirela, Bidasoan ura edaten zuen erraldoi baten istorioa kontatzen zieten

### **723. Lamiak (BRA-030/021)**

Inguruko erreka bati Lamixeko erreka deitzen zioten. Batzuk erraten zuten lamiak arrautzak bezalakoak zirela, txikiak. Erraten zen ere behin lamia bat ekarri zutela, zuriz jantzia, norbait sendatzera

### **724. Lamiak ez ziren gaiztoak (BRA-030/023)**

Lamiak ez ziren gaiztoak. Izanen zen sinesten zuen norbait, baina elizak guzti hori desterratzen zuen

### **725. Ume garaiko kantuak (BRA-030/025)**

Rosariok ume garaiko kantu bat gogoratzen du

### **726. Ume garaiko jolasak (BRA-030/026)**

Haurtzaroko jolasen izenak aipatzen ditu Rosariok: Kandelero, bale-bale, melastiroka...

### **727. Tortolosean erabiltzen zituzten hitzak (BRA-030/027)**

Tortolosean aritzen zirenean erabiltzen zituzten hitzak gogoratzen ditu

### **728. Haurtzaroko jolasak 1 (BRA-030/028)**

Haurtzaroko jolasen izenak eta jolasteko modua gogoratzen ditu Rosariok

### **729. Haurtzaroko jolasak 2 (BRA-030/029)**

Haurtzaroko jolasen izenak eta jolasteko modua gogoratzen ditu Rosariok

### **730. Haurtzaroko jolasak 3 (BRA-030/030)**

Haurtzaroko jolasen izenak eta jolasteko modua gogoratzen ditu Rosariok

### **731. Haurtzaroko jolasak 4 (BRA-030/031)**

Haurtzaroko jolasen izenak eta jolasteko modua, abestia barne, gogoratzen ditu Rosariok

### **732. Haurtzaroko jolasak 5 (BRA-030/032)**

Haurtzaroko jolasen izenak eta jolasteko modua, abestia barne, gogoratzen ditu Rosariok

### **733. Haurtzaroko jolasak 6 (BRA-030/033)**

Haurtzaroko jolasen izenak eta jolasteko modua gogoratzen ditu Rosariok

### **734. Haurtzaroko jolasak 7 (BRA-030/034)**

Haurtzaroko jolasen izenak eta jolasteko modua gogoratzen ditu Rosariok

### **735. Haurtzaroko jolasak 8 (BRA-030/036)**

Haurtzaroko jolasen izenak eta jolasteko modua gogoratzen ditu Rosariok

### **736. Haur txikiekin (BRA-030/037)**

“Honek arrautza ekarri, honek frijitu, honek atzeman, honek probatu... eta honek dena jan”

### **737. Haurtzaroko jolasak 9 (BRA-030/038)**

Haurtzaroko jolasen izenak eta jolasteko modua gogoratzen ditu Rosariok

### **738. Haur txikiendako kantak 1 (BRA-030/039)**

Haur txikiei kantatzen zitzaaien abestia kantatzen du

### **739. Haur txikiendako kantak 2 (BRA-030/040)**

Haur txikiei kantatzen zitzaaien abestia kantatzen du

### **740. Haur txikiendako kantak 3 (BRA-030/041)**

Haur txikiei kantatzen zitzaaien abestia kantatzen du

### **741. Etxalarko euskara eta Berakoa (BRA-030/042)**

Rosariok dio Etxalarko euskara Berakoa baino polita eta garbiagoa dela

### **742. Pagina edo pakina (BRA-030/044)**

Pagina edo pakina egitea, bidea konpontzea da. Auzolanean konpontzen zuten bidea. Behiak jabeak zirenek eramaten zituzten, maizter zirenek ez

### **743. Hankak belzten ziren (BRA-030/045)**

Bidea konpondu zuten batean, lurra ongi zanpatu bitartean, handik pasatzerakoan hankak beltz-beltzak jartzen zitzaizkien

### **744. Oinutsik ibiltzen (BRA-030/046)**

Rosariok oinutsik ibiltzen zen emakume bat ezagutu du

#### **745. Zapatak (BRA-030/047)**

Rosariok kontatzen du non aldatzen zituzten zapatak

#### **746. Oinetakoak (BRA-030/048)**

Rosariok ezagutu eta erabili dituen oinetakoak deskribatzen ditu.

#### **747. Elkarri oinetakoak utzi (BRA-030/049)**

Euria egin eta espartinekin harrapatuz gero, auzokoek oinetakoak uzten zizkioten elkarri

#### **748. Mezara joateko janzkera (BRA-030/051)**

Mantelina paratzen zuten eta misala eskuetan eramaten zuten

#### **749. Arropa (BRA-030/053)**

Dena etxean egiten zen. Barneko arropak deskribatzen ditu

#### **750. Eskolan janzkera kontrolatzen zuten (BRA-030/054)**

Alkandora eraman behar zela erraten zieten eskolan

#### **751. Arropa gutxi (BRA-030/056)**

Jantzi bat aste-egunetarako eta beste bat jai-egunetarako izaten zuten

#### **752. Eskapularioak (BRA-030/057)**

Bere izeba bat karmelita zen eta etxean eskapulario asko izaten zen

#### **753. Hurrei ebanjelioa (BRA-030/058)**

Haur txikiei ebanjelioa zintzilik paratzen zitzaaien baina ez da gogoratzen zertarako zen

#### **754. Haur-oihalak (BRA-030/059)**

Garaian erabiltzen ziren haur-oihalak deskribatzen ditu. Orduan eskuz garbitzen zituzten

#### **755. Hilerokoa (BRA-030/060)**

Hilerokoa zer zen amak azaldu zion eta, hasi zitzaionean, gehiago janarazi ere

#### **756. Erre-botika (BRA-030/062)**

Osagaiak eta nola egiten zen deskribatzen du

#### **757. Enplastua (BRA-030/063)**

Osagaiak eta nola egiten zen deskribatzen du

#### **758. Burdinekin eginiko zauriak sendatzeko erremedioa (BRA-030/064)**

Apaiz-hostoa erabiltzen zuten burdinekin egindako zauriak sendatzeko. Kontuz ibiltzeko belarra da hori, azkar zabaltzen baita eta dena hartzen baitu

**759. Arantzak ateratzeko (BRA-030/065)**

Xixtrika ateratzeko, gatzagia ona zela erraten zuten

**760. Garitxen kontrako erremedioa (BRA-030/066)**

Berak ez du izan baina aditu du gorostia erabiltzen zela

**761. Belarriko minarendako erremedioak (BRA-030/067)**

Belarriko minarendako erremedio batzuk azaltzen ditu

**762. Sugeen ausikien kontrako erremedioa (BRA-030/068)**

Sugeen ausikien kontra batek errezoak egiten zituen

**763. Behia erituta (BRA-030/069)**

Behia sendatzeko errezoak egiten omen ziren ere

**764. Bastero, Lesakako sendagilea (BRA-030/070)**

Lesakan bazen hezurak konpontzen zituen gizon bat eta oso ona zela aipatzen du

**765. "Xain-belarra" (BRA-030/071)**

Xain-belarraren enplastua ona izaten da mina kentzeko. Enplastua nola egiten den azaltzen du

**766. Bastieda baserria. Eskazaleak (BRA-030/073)**

Eskale askok lo egiten zuen bertan eta afaria eta gosaria ematen zitzaaien. Eskaleak etxe guztietan ibiltzen ziren. "Aiton-urdin" deitzen zutena gogoratzen du Rosariok

**767. Bastieda baserria eta Santiagorako bidea (BRA-030/075)**

Bastieda baserria Santiagorako bidean omen zegoen eta eskale asko eta asko Bastieda baserriaz galdezka etortzen ziren

**768. Artzapezpikua abisatu gabe (BRA-030/077)**

Oraingo erretoreak, egun batean, Iruñeko artzapezpikua eraman zuen etxera, alde zurretik abisatu gabe

**769. Erriberriko frantziskanoa (BRA-030/079)**

Erriberriko frantziskano bat etortzen zen eta horri sukaldean ematen zioten jatekoa

**770. Zelaia Baserria (BRA-030/081)**

Baserrietako hildako guztiak hara eramaten zituzten apezka eske. Eta apezka ere bertan itxosten zuen. Hildakoak uzteko mahaia enkargatu zuen emakumea izan zen lehendabiziko hildakoa

### **771. Bixente Tabernaren aurkezpena (BRA-033/001)**

Alkaiagakoa da Bixente, Gorrintzekoa. 10 urterekin Iruñera joan eta kolegio batean ikasi zuen, eta, ondotik, ikasketak eta lana Iruñean bertan egin zituen. Iruñeko Udalean ere egin zuen lan. 2020an hartu zuen erretiroa.

### **772. Euskararekin izandako harremana (BRA-033/002)**

Iruñean bizi zelarik, 6-7 urtez gau eskoletako irakasle izan zen. 1998an Donostiako Arkitektura Eskolan hasi zen, EHUko irakasle, 23 urtez. Bertan klaseak euskaraz eman zituen; euskaraz irakasteak animatu zuen eta horrek gehiago disfrutatzea eragin zion.

### **773. Euskara ikasle eta irakasle (BRA-033/003)**

Etzetik eta auzotik jaso zuen euskara. Halere, 16 urterekin herrirat bueltatu zelarik, ohartu zen euskara galdua zuela, eta poliki-poliki berreskuratu behar izan zuen. Horretarako, Iruñeko Eskolapioetako euskara-klaseetara apuntatu zen, eta hurrengo urtean bertan irakasleak behar zirenez, euskara-irakasle hasi zen. Patxi Altunaren metodoarekin ikasi eta irakatsi zuen: "euskara nire laguna"

### **774. 70eko hamarkadako giroa (BRA-033/004)**

Bixenteren inguruko giroan ez zegoen euskararen kontrako jarrerarik, baina euskara lehenagoko afera izanzen balitz bezala sentitzen zen. Euskara ez zegoen ez eskolan ez kultur munduan. Halere, etxean euskaraz aritzen ziren, lagunekin ere bai, eta Alkaiagan Beran baino euskara gehiago aditzen zen.

### **775. Principe de Vianaren euskaren aldeko jarrera (BRA-033/006)**

Principe de Vianakoek euskaraz zekiten neska-mutilei kartilla bat irekitzen zieten aurrezki kutxan, keinu sinbolikoa zen, baina euskararen nolabaiteko aldeko jarrera erakusten zuen.

### **776. Ez Dok Amairuren kontzertuaren iraultza (BRA-033/007)**

Leitzako Koralak, Xabier Letek, Lurdes Iriondok eta Mikel Laboak jo zuten Berako kontzertu hartan. Pensamiento Navarro egunkarian horren kronika hagitz ona argitaratu zuen. Kronikan aipatutakoak azaltzen ditu Bixentek. Kontzertu hark inguruko giroa irauli zuen eta modernitatea eman zion euskarari. Jende aunitz egon zen kontzertuan. EZ Dok Amairuren kontzertua Principe de Vianak antolatu zuen.

### **777. Barojatarrei omenaldia (BRA-033/008)**

Kontzertu haren ondotik, segur aski haren eraginez, Bixentek euskararen kontzientzia handiagoa hartu zuen, klaseak ematen hasi zen, eta horren guziaren tartean, barojatarren omenaldia antolatzen pare hartu zuen. Horretan aritu ziren guziak gazteak ziren, adibidez, Ixa Ordoñez. Josu Goia ere antolaketan aritu zen.

### **778. Barojatarren omenaldiko ardatzak (BRA-033/009)**

Pio Baroja sortu zenetik 100 urte bete behar zirela eta, omenaldia antolatu zuten. Bi ardatz izan zituen omenaldiak: Pio Barojaren oroimena eta euskara eta euskal kulturaren plazaratzea. Salbuespen batzuk kenduta, dena euskaraz egin zuten, euskararen mesedetan.

### **779. Barojatarren omenaldiko programa (BRA-033/010)**

Omenaldiaren programazioa bitan zatitu zuten: abuztuan eta abenduan. Udako jardunaldietan, bi kantaldi izan ziren (lehenbizikoan, Oskorrik eta Josu Goiak kantatu zuten; eta, bigarrenean, Ez Dok Amairukoek), herri bazkaria, txistulariak, dantzak... Neguko jardunaldietan, erakusketa bat antolatu zuten Nestor Basterretxearen laguntzarekin: Basterretxea, Oteitza...

### **780. Omenaldira joan zirenez eta lehiaketez (BRA-033/011)**

Jende garrantzitsua joan zen erakusketa hartara: Espainiako kulturako ordezkari eta idazle Juan Benet, Damaso Alonso (hitzaldi bat eman zuten)... Haurren lehiaketa pare bat egin zuten (ipuin eta marrazki lehiaketa); baita helduen lehiaketak ere. Helduen ipuin lehiaketa Luis Aranburu Altunak irabazi zuen. Antton Erkiziak accesit bat irabazi zuen.

### **781. Akelarre antzerki taldea eta Barojatarren haserrea (BRA-033/012)**

Antzerki talde berritzaile bat izan zen omenaldian, Akelarre, eta Altzateko Jaunaren istorioari buruzko antzezlan egin zuten. Gaztelaniaz izan zenez, Julio Caro eta Pio Caro haserretu egin ziren, Altzateko Jauna euskaltasunaren ikurra baitzen. Barojatarren "Navarra Cuatro Estaciones" filma ere proiektatu zuten.

### **782. Berako eta Lesakako ikastolen sorrera (BRA-033/013)**

Gure Txokoak ere omenaldiaren antolakuntzan parte hartu zuen. Elkarlan horretatik guztitik modu naturalean suertatu zen ikastola bat sortzeko lanketa; orduantxe hasiak ziren ikastolak martxan paratzen bertze leku batzuetan. Hala, 1974an gauzatu zen ikastolaren asmoa; Berako 5 lagun eta Lesakako 2 elkartu ziren helburu horrekin.

### **783. Ikastoletako lan-taldea eta hasierako planteamendua (BRA-033/014)**

Hasierako planteamenduan, ikastola bat sortzeko 3 gauza behar zirela pentsatu zuten: haurrak, leku bat eta andereño bat. Berako eta Lesakako ikastolen sorreran nortzuk ibili ziren aipatzen du Bixentek.

### **784. 3 urteko haurrekin hasiera (BRA-033/015)**

3 urteko haurrekin hasi ziren, hori ez zelako derrigorrezko hezkuntza. Hala, bizpahiru urte izanen zituzten dena legeztatzeko. Erretoreari 3 urte lehenago sortutakoen zerrenda eskatu zioten, eta guziei eskutitz bat bidali zieten ikastolaren asmoa azaltzeko. Mintzaldi bat ere antolatu zuten ikastolaren proiektuaren berri emateko.

### **785. Diputazioaren dirulaguntza (BRA-033/016)**

Ikastolaren diru-iturrietako bat aldundiak ematen zituen laguntzak ziren. Horretarako, harremana izan behar zen eta bere oniritzia izan.

### **786. Andereño bila (BRA-033/017)**

Zailtasunak izan zituzten andereñoa harrapatzen: euskalduna eta tituluduna. Eskualdean bilatu zuten, Iruñean, San Fermin ikastolako Atxarekin solastatu ziren, Iruñeko gau eskoletako zuzendari Patxi Zabaletarekin... .

### **787. Ikastolaren berria zabaltzen (BRA-033/018)**

Berako erretorearekin ere solastatu ziren ikastolaren proiektuaren berri emateko, baita haren arreba Mikaelarekin ere, Berako eskola zaharreko arduradunarekin.

### **788. Hitzaldiko hizlariak eta parte hartzea (BRA-033/019)**

Ikastola sustatzeko emandako hitzaldietara, Karlos Garaikotxea eta Satrustegi apeza etorri ziren hizlari. Horrek garrantzia eman zion proiektuari. Hitzaldiak hagitz jendetsuak izan ziren, eta ordurako sumatzen zen euskararen aldeko giroa.

### **789. Euskararen aldeko giroa Beran eta Lesakan (BRA-033/020)**

Euskararen aldeko giroa sumatzen bazen ere, batzuek uste zuten euskara zaharkitua zela eta ez zuela hizkuntza horretan ikastea merezi. Halere, guraso gazteek bazuten euskaren aldeko gogoia, Beran batez ere. Lesakan hasiera batean arrakasta ttikiagoa izan zuen ikastolak. Ikastola sortu baino lehen ere, zenbait guraso proiektua bulkatzen hasi ziren, horren alde lan egiten.

### **790. Lehenbiziko andereñoak (BRA-033/021)**

Berrotako Pili andereñoa hasi zen Berako ikastolan. Urtero andereño berri bat gehiago hasten zen ikastolan, baita Lesakakoan ere. Hala, ikastolak beren bidea egiten hasi ziren. Bixente soldaduskarat joan behar izan zen orduan, eta ikastolaren mugimendutik aldendu behar izan zen.

### **791. Gure Txokoako kantaldiak (BRA-033/023)**

Gure Txokoak ia urtero antolatzen zituen kantaldiak, normalean Altzateko plazan. Bixente urte batez egon zen elkarteko zuzendaritza taldean, eta, urte hartan, Berako plazan antolatu zuten Ez Dok Amairuren kontzertu bat, Joxean Artzek hala eskatuta. Xabier Leteren kontzertu erdian ezkilek jo zuten.

### **792. Iruñerriko gau-eskolak eta Arrotxapeako ikastola (BRA-033/024)**

Bixente Iruñeko gau eskolatan aritu zen, baina lehenbizi alfabetatu egin zen Jose Manuel Aleman irakaslearekin. Hurrengo urtean irakasle hasi zen Arturo Campionen. Urte batzuen buruan, Campion indartuta, auzoetan gau eskolak sortzen hasi ziren. Hala, Bixentek bertze gau eskola batzuetan ere eman zituen klaseak, adibidez Arrotxapean. Hortik, Arrotxapean ikastola sortzeko ideari ekin zioten, Bixente tarteko.

### **793. Garai hartako oroitzapenez (BRA-033/026)**

Garai hartako oroitzapen ona du Bixentek; berak bere burua berraurkitu zuen, eta berreskuratze prozesua ilusionagarria egin zitzaion. Franco bezalako etsai nabarmena izateak horretan ere nolabait lagundu zuen. Halere, garai konplexuak ziren, eta horrek tirabira batzuk ere eragin zituen.

#### **794. EHU*n* irakasle euskaraz (BRA-033/027)**

Bixentek 20 urte eman zituen EHU*n* klaseak euskaraz ematen, eta, neurri batean, horretarako euskara zientifiko bat sortzen aritu zen.

#### **795. Imajinaezina euskara irakaskuntza publikoan zabaltzea (BRA-033/028)**

Garai hartan ez zuten imajinatzen euskara irakaskuntza publiko guzira zabalduko zela. Jende aunitzek egin du horren aldeko lana.

#### **796. Itxaroren aurkezpena (BRA-034/001)**

1945ean sortu zen Itxaro Beran. Etxean ikasi zuen euskara, baita gaztelania pixka bat ere. Euskararen militantea izan da; Gure Txokoaren inguruan, euskararen alde aritu zen.

#### **797. 70eko hamarkado Berako giro erdalduna eta Olentzero eguna (BRA-034/002)**

1970eko hamarkadako Berako giroa arrunt erdalduna zen; euskaraz zekitenek ere gaztelaniaz egiten zuten. 1969an, Gure Txokoa haurrentzako Olentzero eguneko lehiaketa antolatzen hasi zen.

#### **798. Bortziritarren arteko harremanaz (BRA-034/003)**

Garai hartan, beratarrek harremana izaten zuten lesakarrekin; Bortzirietako bertze hiru herriekin, ordea, deus guti.

#### **799. Irungo ikastolan lanean (BRA-034/004)**

Irungo Txingudi ikastolan aritu zen Itxaro lanean. Berak bazuen magisteritza titulua, baina bertze irakasle aunitzek ez zuten ikasketarik; behin lanean hasita ateratzen zuten.

#### **800. Bera eta Lesakako euskararen aldeko mugimendua (BRA-034/005)**

Beran bazegoen euskararen aldeko mugimendua, eta bertan aritzen zen Itxaro bertze batzuekin batera: Josu Goia, Ixa Ordoñez, Bixente Taberna... Lesakarrekin ere bazuten harremana: Antton Erkizia, German Goienetxe... Lesakan biltzen ziren igande goizetan, orain ikastola dagoen lekuan (lehen fraideak egoten ziren bertan).

#### **801. Gogoetatzeko bilerak (BRA-034/006)**

Bilera haiek gogoetatzeko erabiltzen zituzten, zituzten galderei erantzunak emateko.

#### **802. Barojaren mendeurreneko ospakizuna (BRA-034/007)**

Gauzak antolatzen 1971. urte inguruan hasi ziren. Garai hartan Ez Dok Amairu zegoen, Oteitza eta Basterretxearen inguruko mugimendu kulturala, gau eskolak eta ikastolak ere orduantxe hasiak ziren... eta olatu horren baitan, Beran ere martxan hasi ziren. Hala, Barojaren mendeurrenaren aitzakiarekin, zerbait antolatzea gogoratu zitzaien; Gure Txokoa arduratu zen horretaz.

### **803. Barojaren omenez antolatutakoak (BRA-034/009)**

Barojaren omenaldia bi zatitan egin zen: abuztuan eta abenduan. Haurrentzako ipuin lehiaketa bat antolatu zuten, eta bertze bat helduendako. Epaimahaian, Jose Luis Borges eta Jose Angel Irigarai aritu ziren. Antzerki motz bat ere egin zen (Akelarre), pilota partidu bat, margolan eta eskultura erakusketa (Oteitzaren, Basterretxearen eta bertze batzuen lanekin)

### **804. Haurren ipuin lehiaketa (BRA-034/010)**

Haurren ipuin lehiaketak euskaraz egiten ziren. Lehenbizi Pio Baroja Saria izena zuten, baina urte batzuen buruan Bera Saria izena hartu zuen.

### **805. Euskara klaseak (BRA-034/011)**

Barojaren omenaldiaren ondotik, hurrengo urtean, euskara klaseak antolatu zituzten; arrakasta handia izan zuten, 70 lagunek eman zuten izena. Mailatan banatu zuten jendea: deus ez zekitenak (Itxaro izan zen irakaslea) , zerbait zekitenak eta alfabetatzea . Maristetan ematen zituzten klaseak

### **806. Berako ikastolaren sorrerako parte-hartzaileak (BRA-034/012)**

1974an ikastolaren sorrera izan zen, eta Itxarok bertan hartu zuen parte. Ikastolarako haurrak biltzeaz guraso batzuk arduratu ziren: Elena Santesteban eta Pepi Olaetxea. Arrakasta izan zuen, 16 haurrek eman baitzuten izena.

### **807. Ikastolaren finantzazioaz (BRA-034/013)**

Ikastola finantzatzeko kantaldiak antolatu zituzten: herriko etxeko plazan, Altzateko plazan eta frontoian. Ez Dok Amairukoak eta Oskorri etorri ziren kantaldi haietara. Jende aunitz biltzen zen kontzertuetan.

### **808. Ikastolaren lehenbiziko egoitza (BRA-034/014)**

Ikastola, hasieran, Berako herriko etxeko lehenbiziko solairuan egon zen.

### **809. Ikastolaren harrera onaz (BRA-034/016)**

Garai hartan, eskola publikoa nahiko minoritarioa zen, eta gehienak mojetara joaten ziren; baina jendeak zerbait berria eta euskalduna nahi zuen.

### **810. Ikastolaren aldeko hitzaldia (BRA-034/017)**

Ikastolako proiektuari bulkada emateko, Satrustegi eta Karlos Garaikoetxea eraman zituzten hitzaldi bat ematera.

### **811. Gau-eskolen sorreraz (BRA-034/018)**

Era berean, gau-eskola sortzeko mugimendua ere martxan zen. Horretarako, Itxaro Euskaltzaindiarekin paratu zen harremanetan, eta ikastaro bat egin zuten beraiekin. Hala, 1976an, elkarte izaera hartu zuen gau-eskolak.

### **812. Ikastola martxan paratzeko zailtasunez (BRA-034/019)**

Ikastola martxan paratzeko, zailtasunak izan zituzten baimen aferekin. Halere, Gure Txokoaren babespean aritu ziren, baita Principe de Vianako laguntza izan ere.

### **813. Oteitzarengana erreplika baten eske (BRA-034/020)**

Itxaro ikastolako koordinazio taldean aritzen zen. Behin, Oteitzarengana joan ziren Lesakako German Goienetxe eta bera, Lesakako ikastolarako haren obra bat hartzera: Agiñako Aita Donostiari egindako eskulturaren erreplika bat.

### **814. Itxarok Ikastolan egindako lanez (BRA-034/021)**

Irakasleak bilatzen ere aritu zen Itxaro. Arlo pedagogikoaz Itxaroren ahizpa arduratu zen.

### **815. Ikastolako materialaren prestaketaz: Gordailu (BRA-034/023)**

Gordailu izeneko leku bat zegoen Donostian, eta hantxe aritzen ziren ikastolako irakasleak materiala prestatzen, itzultzen (horretan aritu zen Itxaro)... Hala, testuliburuak sortu zituzten.

### **816. Leitzan ere, euskararen aldeko mugimenduan (BRA-034/024)**

1976an, Itxaro Leitzara joan zen, eta han ere euskaren aldeko mugimenduan segitu zuen; gau eskoletan, errate baterako.

### **817. Gerorako oinarria (BRA-034/025)**

Garai hartan egindakoa gero egin zenaren oinarria izan zen.

### **818. Gaur egungo harremanaz (BRA-034/026)**

Egun, Itxaro batzuetan elkartzen da 70eko hamarkadako euskaren aldeko mugimenduan aritu zirenekin. 2014an omenaldi bat egin zieten ikastolan, sorreran lanean aritu zirenei.

### **819. Bestetako programa euskaraz eta Berako Oihua (BRA-034/027)**

1974an egin ziren Berako bestetako lehenbiziko programak euskaraz; Itxarok itzuli zituen. Hurrengo urtean, Berako Oihua egin zen lehenbiziko aldiz, programaren barrenean sartzen zena. Lehenbiziko urte hartan idatzi aunitz izan ziren.

### **820. Haurrak herrian euskaraz (BRA-034/028)**

Franco hil ondotik, Itxarok gogoan du 70eko hamarkada akaberan Berarat bueltatu eta haurrak euskaraz aditzea; hori gauza berria zen.

### **821. Eskola publikoaren euskalduntzea (BRA-034/029)**

Eskola publikoan 1980ean hasi ziren euskara txertatzen.

### **822. Gau-eskolen sorrera (BRA-034/031)**

UEUn, 1973an, gau-eskolen sorrera izan zen, eta 1976an, gau-eskolek elkarte forma hartu zuten. Joxe Manuel Odriozola aritzen zen horretan, eta berarekin paratu ziren harremanetan Bortzirietako gau-eskolak martxan paratzeko.

### **823. Euskararen alde aritu zirenen lehenbiziko bilerak (BRA-034/032)**

Euskararen aldeko mugimenduan aritu zirenek, hasiera batean, mendi-irteerak antolatu zituzten, adibidez, Aralarrerat. Herria motel ikusten zuten, eta horri buelta emateko zerbait egin nahi zuten.

### **824. Polizia sekreta gau-eskoletan (BRA-034/033)**

Ez ziren garai errazak izan. Gau-eskoletako Itxaroren talde batean, polizia sekreta batek eman zuen izena. Itxarok erraten zituenak jakin nahi zituen.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-13

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com